



**Arrasateko
sanjuanak eta
Eskoriatzako
sanpedroak
argazkitan** | Ikus 'Herriak' saila

**Udalako auto
igoera antolatu
gura dute
aurtengo
udazkenerako** | 14

**Gaur, barikua, hasiko dira Aramaioko
San Martin jaiak; orri bereziak** | 21



**Aretxabaletako ondarea eta
historia ezagutzeko bisita** | 23



**Antzuolako bolatokia
berreskuratzeko lanean dabilta** | 27

**Istar Dapena,
Jonathan Perez,
Malen Ruiz de
Azua eta Eneko
Carrasacal.**



SASOI BETE-BETEAN

Arrasateko atletek lau domina eskuratu dituzte Espainiako bi txapelketatan | 30

JOKIN BEREZIARTUA

**Sariz betetako
Torreauzoko
kros herrikoia
etzi jokatuko da**

11:00etan hasiko da
7,5 kilometroko
lasterketa | 30

Lezetxikin altxor gehiago azaleratzeko indusketak abian

Astlehenean hasi zituzten lanak eta hilaren 16ra arte iraungo dute | 9



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Erromeria-taldeak: jai giroa, euren esku
- Elena Olaortuarekin, sexu aniztasunaz

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

**2 Ray-Ban
OPARI**
ERREFLEXUEN AURKAKO
LEIARRAK EROSTEAN
www.multiopaticasgipuzkoa.com

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Kontsumo legezko zure optikan kanpainaren ezagutza. 2016ko abuztuaren 31 arte egongo da balioz. Ezingo da beste eskalaz batzuetan erabili.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan

SINADURAK

Transmartinak | 6
MANEX AGIRRE

Urkulu baino are gehiago | 6
MIRARI ALTUBE

Gora gure mediak! | 11
IBON ARRUPÉ

Inork nahi ez zuen Europa | 15
MIGUEL LAZPIUR

Babel | 18
MARINA ETXEGOIEN

Eguzkia | 40
ANDER ETXEBERRIA

Miguel Altunaren enpresa habiaren instalazioak inauguratu dituzte

- ▶ Ekintzaileendako 450 m²-ko pabiloi bat dago
- ▶ MAIko ikasle eta ikasle ohiek erabil dezakete

KOMUNITATEA GOIENA | MIREN ERRASTI
MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA | BERGARA

Ekainaren 30an, eguena, Bergarako Miguel Altuna LHIko (MAI) Enpresa Habiaren inaugurazio ekitaldia izan zen. Ekitaldi horren bidez, Urratsbat egitasmoaren 15. urteurrena ospatzeaz gain, enpresak sortzearen aldeko bes-

te pauso bat eman eta MAIko Enpresa Kabia aurkeztu zitzaizen erakunde eta enpresetako ordezkariak, eta baita MAIko Urratsbaten bidez enpresa sortu dutenei ere. Zehazki, hantxe izan ziren Eusko Jaurlaritzako, Debagoieneko Mankomunitateko, Udaleko eta Tknikako –Lanbide Heziketa

berritzeko Eusko Jaurlaritzak abian ipinitako zentroa– ordezkariak.

Enpresa habia bera berria da, baina ez atzetik dagoen ekimena, Urratsbat; horren eskutik, 20 bat hainbat enpresa sortu dira.

Amillaga auzoan

Inaugurazioa bi zatitan banaturik egon zen. Hasteko, MAIko aretoan aurkezpen ekitaldia izan zen eta bertan MAIko zuzendari Josune Irazabalek, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuorde Jorge Arevalok eta Berriup-eko zuzendari Pedro Muñozek beraien aurkezpenak egin zituzten. Pedro Muñozek Berriup nola sortu zen eta ekintzaileei beraien produktuak arrakasta izan dezan nola laguntzen dien azaldu zuen: "Ez gara produktuaz maitemindu behar, baizik eta dugun arazoaz; produktu bat duzula, eman ezagutzera".

Jorge Arevalok gaur egun Euskadiko Lanbide Heziketa Europako onenetakoa dela azaldu zuen: "Zerk desberdintzen gaituen? Enplegarritasunari zuzendutako formazioa eskain-



Enpresa habia inauguratzen. | ENEKO AZURMENDI

tzen da LHn, espezializazioa indartu, metodologia berrien bidez berrikuntzan sakondu eta ekintzailetasuna eta internazionalizazioa bultzatzen ari gara, ongi prestatutako langileak izateko. Egun sinestezina iruditu arren, urte gutxi barru eskulan kualifikatuaren beharra izango dugu eta LHn prestatutako langileak beharko dira".

Ondoren, MAIko Enpresa Habiaren instalazioak bertatik bertara ezagutzera joan ziren arduradunak eta gonbidatuak. Enpresa hazitegi hori Amillagan kokatutako 450m²-ko pabiloi bat da, eta bertan, Saiotek eta Ekolber enpresak ari dira beraien negozioa martxan jartzen. Horretaz gain, MAIn leku faltagatik institutuan bertan eduki ezin diren makinak bertan daude, ikastetxe berria eraiki bitartean, eta zubi-garabien eta orga-jasotzaileen erabilera ikastaroak ere bertan eskaintzen dira.

DATUA

15

URTE

MAIren ekintzailetza programak, Urratsbat-ek, 15 urte ditu aurten; hainbat enpresa sortu dira bere eskutik.

Nazioarteko jardunaldia MAIn

ASEFIREkin (finkatze-elementuen ekoizleen Espainiako elkarte) elkarlanean jardunaldi berezia antolatu dute uztailearen 6rako, Bergaran, 09:00etatik 13:30etara. Jardunaldiak bi zati izango ditu: lehen zatian Miguel Altuna Institutuak koordinatutako Europako DOST proiekturaren emaitzak aurkeztuko dira, eta Alemania, Frantzia eta Italiako bazkideek egindako lana aurkeztuko dute. Gero, 4.0 Industriako joerak aurkeztuko dituzte, forja eta estanzapazioko industriari bideratuta.



Forja industriar. | RAINER HALAMA

Josu Kortabitarte | Sareteknikako Sare-kudeaketako ordezkaria

"Kooperatiba gaztea gara, baina 15 urteko esperientzia dugu"

- ▶ Sareteknika enpresak 18 milioi fakturatu ditu
- ▶ Fagor Etxetresnetako profesionalak sortu zuten

L.K. | ARRASATE

Fagor Etxetresnak itxi zenean, salmenta ondoko zerbitzu teknikoak martxan jarraitu zuen arlo horretako profesionaleri esker. 2014ko urrian, langile horiek Sareteknika kooperatiba sortu zuten. 2015. urtea ezin hobeto amaitu du Sareteknikak: 1.000 langile baino gehiago ditu, 18 milioi euroko fakturazioa egin du eta sei marka berrirekin akordioak lortu ditu. Jon Kortabitarteren hitzetan, enpresa "oso une interesgarria" bizitzen dabil. **Zer da Sareteknika?**

Sareteknika da salmenta ondoko zerbitzu integrala ematen duen kooperatiba. Kontzeptu moduan, gure bezeroen markapean ematen dugu salmenta osteko zerbitzua, jatorrizko ordezkari pieza erabiliz. 2014. urtean sortutako kooperatiba gara, eta lehen unetik Mondragon talde barruan gaude. Kooperatiba gazte eta berritzailea gara, baina gaztetasun horretan 15 urteko esperientzia duen kooperatiba bat ere bagara.

Nola sortu zen Sareteknika?

2014. urtean, Fagor Etxetresna Elektriko taldeko salmenta ondo-

ko zerbitzua eramaten zuen lantaldeak 1.000 pertsona ingururentzat lanpostuak sortu eta mantendu zitzaizkien proiektu bat posible zela ikusi zuen. Bestalde, merkatuan bertan hutsunea zegoen horrelako zerbitzuak eskaintzen zituen enpresa batek lekua edukitzeko.

Ze baliabide dituzue?

Salmenta osteko kalitatezko zerbitzu integral bat emateko behar diren baliabide guztiak ditugu. Esate baterako, 60.000 m³-ko almanen bat dugu, gutxi gorabehera 30.000 erreferentzia gorde ditzaizkeenak. Bestalde, 100 profesional osaturiko *contact center* propioa dugu. Horrez gain, logistika darman 30 laguneko lantaldea ere badaukagu. Gero, bulego zentraletan, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean, 32 pertsona inguru gaude lanean, gehienbat, kudeaketa nagusia eramanez. Eta bestalde, Espainia, Portugal eta Andorran, 140 SAT zentro daukagu, lekuko gestioa eta konponketak egiteko.

Nola dago banatuta lantaldea?

Guk Sareteknika familia deitzen diogu gure lantaldari. 1.000 pertsona ingurutik gora gaude: 32 pertsona Arrasaten; beste 30 ingu-



Josu Kortabitarte. | L.K.

"1.000 pertsona inguruk osatzen dugu Sareteknika familia, lantaldea"

ru Etxebarrin, biltegia daukagun herrian; beste 100 bat *contact center*-ean, Derion; eta sare guztian, gutxi gorabehera, 800 pertsonatik gora. 800 horietatik 600 bat teknikoak dira.

Horetatik zenbat datoz Fagor Etxetresnetatik?

Zatika hartuta, Arrasaten lan egiten dugunotatik, 30 gara Fagorretik gatozenak; eta sarean, nik esango nuke guztiak.

Profesional horiek bere burua birziklatu behar izan dute?

Birziklapena baino gehiago, esango nuke gure enpresa jaio dela bikaintasun eredu baten barruan. Ulertzen dugu gure kudeaketa metodoa etengabeko formazio batekin; ez da birziklapena, baizik eta beti egin izan dugun gauza bat, orain egiten duguna eta egongo duguna.

Ze une bizi du Sareteknikak?

Momentu oso interesgarri baten gaude. 2015. urtea erreferentzi hartuta, 18 milioi euro fakturatu genituen; sei marka berrirekin akordioak sinatu genituen. Momentu honetan, Fagor Taldeko hiru markataz aparte, beste sei markaren zerbitzu tekniko ofiziala gara.



Martitzen iluntzean jende asko elkartu zen Arrasaten egindako manifestazioan. | MAITE TXINTXURRETA

Sexu askapenaren aldeko borroka "beharrezkoa" dela aldarrikatu dute

TransMarikaBolloFeminista taldeak antolatuta, manifestazioa egin da asteen

M.T./J.B. | ARRASATE

Ehunka pertsona bildu ziren martitzen iluntzean Arrasaten, ostadarraren koloreko banderak hartuta sexu askapenaren aldeko aldarrikapenak kalera ateratzeko.

Antolatzaileak "oso pozik" azaldu ziren ibarreko herri ezberdinetatik etorritako jende kopuruekin: "Kitzikan taldetik oso pozik gaude. Eguraldi ona ikusita, jende gutxiago etorriko zela uste

genuen. Arrasateko belaunaldi berriak oso indartsu datoz, homosexualak ez izan arren jende asko batu da manifestaziora. Hori oso positiboa da guretako, jendea konturatu da gizarte oso baten

arazoa dela honako hau". Debagoienerako TransMarikaBolloFeminista koordinakundeak antolatuta, eskualdeko lehen LGTBI (Lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexual) harrotasun martxa bateratua burutu dute asteen Arrasaten. *Ez doulako ihes ingo* izan da aurtengo leoa.

Manifestazioaren amaieran irakurri zuten, sexu askapenaren aldeko borroka "beharrezkoa" da, "oraindik". Hala, gogoan izan zituzten azkenaldian LGTBI komunitatearen aurka hainbat lekutan izandako erasoak: Orlandon (AEB), Turkian, Errusian... Ikusgarritasuna lortzeko beharra ere azpimarratu zuten: "Hurrengo belaunaldiak guk baino bide errazagoa izan dezaten, beharrezkoa da".

Aldeko beste zenbait keinu

Arrasateko manifestazioaz aparte, Harrotasunaren Egunaren bueltan beste zenbait ekintza ere antolatu ziren. Arrasateko Udal Bibliotekak gida berezi bat kale-ratu eta erakusketa xume bat antolatu zuten; Oñatin, erdiguneko zenbait zebra-bide ostadarraren kolorez margotuta agertu ziren; eta, Bergaran, Hiruki Arrosa eta ostadarraren bandera jarri zituzten udaletxeko balkoian.

Hiruki Arrosa naziek erabili zuten homosexualak bereizteko kontzentrazio eremuetan. Gaur egun, sarraski hura gogoratze eta oraindik bete gabe dauden gay, lesbiana eta transexualen eskubideak aldarrikatzeko erabiltzen da.

Gazteluren aldeko argazki erraldoia etzi San Martzialen

J.B. | ARRASATE

Jose Migel Gaztelu preso beragararrak espetxean 19 urte bete dituela salatze, zenbait ekitaldi egingo dituzte. Gaurko manifestazioa eta enkartelada berezia antolatu dituzte Herriko Plazan, 19:00etan. Gainera, domekan, uztaialak 3, argazki erraldoia aterako dute San Martzialen (13:30). Amaitzeko, Jokin Urain preso ohiak *Ametsen liburua* aurkeztuko du gaztetxean (19:00).

Zazpi sumariotan

Gaztelu zazpi sumariotan izan da kondenatua Auzitegi Nazionalan, Ortega Lara bahitzeagatik, besteak beste. Auzitegi Nazionalak autoa eman zuen 2001ean, ebatziz zazpi sumario horietako zigorrak metatu egiten zitzaizkiola 30 urteko kartzela-zigorrean. Gazteluren abokatuak eskatu zuen behin-behineko kartzela-zigorra kontatu ziezaiotela 30 urte horiei kentzeko, baina Auzitegi Nazionalak eta gero Konstituzio Auzitegiak babes helegitean—2014ko maiatzean—ukatu egin zioten behin-behineko espetxealdia kontutan izatea.

Ausolanek deliturik egin ez zuela ondorioztatu du fiskal orokorrak

L.K. | ARRASATE

Eskola publikoetan jangela zerbitzua esleitzerakoan iruzurrik egon ez zela ondorioztatuta, ikerketa artxibatzea erabaki du Euskadiko fiskal orokor Juan Kalparsorok. Ikertutako artean zegoen Arrasateko Ausolan kooperatiba. Kalparsororen arabera, ez dago deliturik gertatu izanaren aztarnarik.

18 milioiko zigorra

Aurtengo otsailean, Lehiaren Euskal Agintaritzak 18 milioi euroko isuna ezarri zien Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publikoetan jantoki zerbitzua emateko kontratua izan zuten zortzi enpresari, prezioak adostegatik. Tartean zegoen Ausolan. Lehiaren Euskal Agintari-

tzak inoiz ezarritako isunik altuena izan zen hura. Agintaritzak ondorioztatu zuen Hezkuntza Sailak esleitzen zuen kontraturik handiena enpresa jakin batzuei ez besteei eragotzita zegoela, eta horrek kontratazioa garestitzen zuela. Aibak catering enpresak ipinitako salaketa batekin hasi zen ikerketa; Aibak-ek azpimarratzen zuen 2000. urtetik aurrera, urtero, beti enpresa berberak lortzen zuten kontratua, nahiz eta lehiaketa bidez egin.

"Pakturik ez"

Kalparsorok aitortzea hartu die zortzi enpresa haietako ordezkariari, eta horiek esan zuten pakturik ez zegoela merkaturaren artean banatzeko.

Bolumen handiko trasteak biltzeko ateratzeko egun eta orduak betetzeko eskatu du Mankomunitateak

Bolumen handiko trasteak Mankomunitateak jaso dituzan kalean uzteko jarritako egunak eta ordutegiak "hainbatetan betetzen ez" direla ikusirik, ezarritako egutegi eta ordutegiak errespetatzeko betebeharrak dagoela gogora ekarri du Mankomunitateak. Honako hauek dira: martitzenetan, Bergaran eta Arrasaten, eta eguenetan, Antzuolan, Aretxabaletan, Elgetan, Eskoriatzan, Leintz Gatzagan eta Oñatin. Aldez aurretik, 943 71 19 38 telefonora deitu behar dela ere gogoratu du Mankomunitateak.

Txernobil Elkartearen eskutik, hamar ume etorri dira Debagoienera uda pasatzera

Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatzen du zentral inguruan jaiotako umeek 40 egun jarraian pasatzea handik kanpo, osasungarriago egoteko

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Aurten, Txernobil inguruko 10 ume etorri dira Debagoienera (222 Euskadi osora) Txernobil Elkartearen eskutik. Herriz herri, honela daude banatuta: hiru ume Bergaran, bina Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan eta bat Arrasaten. Ekainaren 24an ailegatu ziren eta abuztuaren 28ra arte izango dira Debagoienera. 7 urtetik 18 urte dituzten arte parte har dezakete hango umeek programa horretan, eta, ahal dela, beti familia berberarekin egoten dira. Elkarteak neska-mutikoekin egoten da eta baita hemengo familiekin ere, bakoitzari ondoen dagokion umea eta familia elkartzeko.

Gero eta osasuntsuago

Urteak dituen etorrera programa horrek helburu nagusi bat du: osasuna. Hain zuzen, ume horiek bizi diren zonaldean Txernobilgo zentral nuklearraren ezbeharrak eragindako kutsadura handia dago oraindik, eta OMEk gomendatzen du ume horiek urtero gutxienez 40 egun jarraian eman ditzatela handik kanpo.



Suinagatarrak, Ukrainatik etorritako Sabrina txikiarekin. | YON SUINAGA

Yon Suinagaren familiak bigarren urtez hartzen du parte programa horretan. 8 urteko Sabrina izeneko neskatua bizi da eurekin—Yon eta Josune bikotea eta Maitane eta Alazne alabak—Bergaran ekainaren 24a ezker. Yonek honako hau dio: "Oso esperientzia positiboa izan genuen iaz, eta aurten errepikatzea erabaki genuen. Umeek oso ondo pasatzen dute, eta familiondako oso pozgarria da, oporrak bukatu ordurako, umeek osasuntsuago dau-

dela ikustea". Izan ere, bere esanetan, "etortzen direnean, agerikoa da ahal samar daudela". Parte hartzen duten familiei gomendatzen diete—nahiz eta derrigorrezkoa ez den—umeak medikura eroatea. Suinaga familiak horixe egin du, eta Sabrina aparteko osasun arazorik ez zuela egiaztatu zuten. Horrez gain, "hortz eta haginotako zainketa aldetik hutsuneak izaten dituzte eta komeni izaten da dentista-rengana ere eramatea haurra".



Murgialdai upategiko Aritz Galdos domekan Elgetara eramango duen txakolinarekin. | XABI GOROSTIDI

Debagoieneko IV. Txakolin Eguna egingo dute Elgetan

Domekan izango da, eta Oñatiko eta Arrasateko hiru upategi egongo dira

XABI GOROSTIDI | ELGETA

Domekan laugarrenez ospatuko da Debagoieneko Txakolin Eguna. Urtero herriz aldatzen den ekimena da. Iazkoa Arrasaten egin ostean, aurtengoa Elgetan egingo dute, Ferixa Nagusiaren barruan.

Aurtengo edizioan, Oñatiko Murgialdai eta Upaingoa eta Arrasateko Otxia txakolinak dastatzeko aukera izango da. "Bakoitzak bospasei kaxa eramango ditugula uste dut. Guretzako, aldarri-

kapen bat egiteko baliagarria izango da, zeren eta Debagoiengan betidanik egon baita txakolina, eta horrela jarrai dezala nahi dugu", adierazi du Murgialdai etxeko Aritz Galdosek.

Txakolinaren historia

Gertuko upategien uztak dastatzeaz gain, edari honek bailaran izan duen tradizioa ezagutzeko aukera egongo da. Jose Antonio Aspiazu eta Gerardo Elortza his-

torialari oñatiarrek *Txakolina eta Debagoiena* hitzaldia eskainiko dute 12:00etan. Duela 100 urte inguruko argazkiak erabiliz, atzera begiratua egingo dute bailara honek eta txakolinak duten lotura azaltzeko.

Ondoren, 12:30ean, hiru ekoizle debagoiendarren txakolin dastatze saioa egingo dute Guillermo Castaños enologoaren eskutik. Adituak ardo bakoitzaren ezaugarriak aipatuko ditu.

Jorge Oteizaren eta Arantzazuren arteko erlazioan sakonduz

X.G. | OÑATI

Uztailaren 3an, domeka, *Oteiza Arantzazun* izeneko bisita gidatuak eskainiko ditu Arantzazuko Turismo Bulegoak.

Gidatutako bisita horietan, alde batetik, Jorge Oteizaren biografiari begirada bat emango zaio. Bere bizimodua eta ibilbide artistikoaren lehen urratsak izango dituzte hizpide. Behin hori eginda, Orioko artistak Arantzazun egindako lanak sakon aztertuko dituzte. 1950ean Arantzazuko santutegi berrirako irudiak egiteko enkargua jaso zuen eta orduan sortutako Basilikako Apostoluak eta Pietatea eta Misterio obrak izango dira aztertuko dituzten obrak batzuk.

Bisitak 2008an egin ziren lehen aldiz, artista oriotarraren

jaiotzaren mendeurrenarekin bat eginez. Orditik hona, izandako arrakasta ikusita, urtero egin dituzte bisita gidatuak.

Plaza mugatuak

Bisitak Arantzazuko Turismo Bulegotik abiatuko dira. Bi txanda antolatuko dituzte: lehena, 11:00etan, euskarazko azalpenekin, eta bigarrena, 12:30ean, gaztelarazko publikoarentzat. Txanda bakoitzean, gehienez, hamabost laguneko taldeak arituko dira.

Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da. Horretarako, 943 71 89 11 telefonora deituta edo *diz.debagoiena@gmail.com* helbidera posta elektronikoki bidalita egin daiteke izen ematea. Sarrerek 2 euroko kostua izango dute.



Jorge Oteizaren Apostoluak. | GOIENA

Istanbulgo atentatua gaitzetsi dute

Eudelek deituta, elkarretaratzeak egin zituzten atzo, eguna, hainbat herritan Istanbulgo atentatua salatzen. Arrasaten adibidez, EAJ, EH Bildu eta Ahal Duguko ordezkariak elkartzaren.



XABI GOROSTIDI

Letona libre, nahiz eta 1981eko sumarioan inputatu

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Auzitegi Nazionalan bere kontra dagoen akusazioa ukatu ondoren, epaileak libre utzi zuen atzo, eguna, Enrike Letona. Fiskalak Letonaren kontrako badaezpada-ko neurriak hartzea eskatu zuen: pasaportea kentzea eta astero epaitegira sinatzera joatea. Epaileak, berriz, halako neurririk hartu gabe utzi zuen libre, epaitegitik deitzen dutenean bertara joango dela hitz emanda.

Izan ere, 1981eko sumario batean inputatu dute arrasatearra, beste kide batekin batera.

Eta epailearen aurrean deklaratu ondoren ere, Letonari ez diote jakinarazi orain zabalduko prozedurak aurrera egingo duen ala ez.

"Frogarik ez"

Edozein modutan, Letonak salatu du Auzitegi Nazionala ikertzen dabilen atentatuan ez dutela "inolako frogarik" bere parte-hartzea erakusten duenik, eta hau guztiau "mendekua" dela salatu du. "Dirudienez, sumario zaharrak zabalitzen ari dira", azpimarratu du, aditzera emanez, antzeko egoeran

egon litezkeela etorkizunean beste batzuk ere. Era berean, epaileari esan dio 1987an atxilotu zutenean, deklaraturako guztia torturapean deklaratu zuela, salatu ere salatu zituela torturok, eta hala ere, oraindik ez dituztela ikertu.

1981ko apirilaren 9an, Bilboko Begoñako eliza inguruan, ETak egindako atentatu baten zerikusia izan dezakeelakoan inputatu dute Letona. Atentatu hartan polizia nazional bat hil zuen ETak eta beste bi zaurituta gertatu ziren.

Trafiko Zuzendaritzaren udako operazioa abiarazi dute gaur, egubakoitza

1.795.000 ibilgailu pasako dira Euskadiko errepideetatik nazioarteko joan-etorrietan

X.G. | ARRASATE

Udako oporraldia heltzearekin bat, euskal errepideetako zirkulazioak nabarmen egiten du gora. Hori dela eta, Trafiko Zuzendaritzak udako operazio berezia abiarazi du, eta gaur hasiko da.

Trafiko Sailaren estimazioen arabera, nazioarteko joan-etorrien eraginez, 1.795.000 ibilgailuk zeharkatuko dituzte euskal errepideak. Horiei, Euskal Autonomia Erkidegotik inguruko autonomia erkidegotara egingo diren bidaiak gehitu behar zaizkie. Beraz, horrekin guztiarekin, aurtengo udan autoen presentzia iaizkoa baino %4 handiagoa izango da.

Debagoiena zeharkatzen duen AP-1 autobidea izango da Trafiko Sailak arreta handien jarriko duen errepideetako bat. Bost zati jarraituko dituzte era berezian: A-8ko Kantabriaranzko irteeran; Behobiako mugaldean; AP-8tik AP-1erako sarbidean; A-1 autobiatik AP-1 autobiderako sarbidean, Armiñonen; eta N-622 errepidetik A-1 autobiarako sarbidean, Gasteizen.

Garbiñe Saez Molinuevo Trafikoko zuzendariaren arabera, Euskadiko herritarrak era mailakatuan joaten dira kanpora. Nazioarteko trafiko handiena, bestalde, uztailko eta abuztuko azken bi asteetan espero da.

Alderdi guztiek botoetan behera egin arren, EH Bilduk eskuratu ditu boto gehien Debagoienez

Elkarrekin Ahal Dugu koalizioa izan da boto gutxien galdu duena, bi bakarrik, eta hirugarren bozkatuena izan da, EAJren atzetik

ENKO AZURMENDI | DEBAGOIENA
EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak Debagoienez, Eusko Alderdi Jeltzalearen eta Elkarrekin Ahal Duguren aurretik.

Oro har, alderdi guztiek egin dute behera boto kopuruari dagokionez, baina koalizio morea izan da gutxien galdu duena abendu-ko hauteskundeei erreparatu. Izan ere, bi boto gutxiago beste-rik ez du eskuratu.

EH Bilduk, 9.338 boto; EAJk, 9.148 boto; Elkarrekin Ahal Duguk, 8.808 boto; PSE-EEK, 3.353 boto; PPK, 1.591; eta Ciudadanosek, 417 boto.

Balorazioak

Alderdi politiko ezberdinei dagokionez, EH Bilduk dio ez direla espero zituzten emaitzak. "Hala ere, positiboa da oraindik ere jendeak gudan konfiantza izatea,

eta euskalduna eta ezkertiarra den proiektua gure bailaran aurrean egotea garrantzitsua da", azaldu du Xabier Vallinak, koalizio abertzaleko kideak.

EAJk, berriz, balorazio positiboa egiten du. "Gutxigatik gelditu gara bigarren, eta alderdi abertzaleak goialdean egotea oso garrantzitsua da gure bailarentzat", nabarmendu du Josu Ezkurdia jeltzaleak.

Elkarrekin Ahal Dugu koalizioari dagokionez, Debagoien mailan emaitza onak izan direla uste dute. "Hala ere, estatu mailan ez ditugu guk espero genituen emaitzak lortu", adierazi du Igor Urizarrek, koalizio moreko kideak.

Eta sozialistei dagokionez, emaitza duinak izan dira. "Batzuek espero zituztenak baino emaitza hobekak izan dira", esan du Paco Garciak, PSE-EEko kideak.

Emaitzak herririk herri

| 2016 | 2015 |

ARRASATE

ELKARREKIN AHAL DUGU*	EAJ	EH BILDU	PSE-EE	PP	CIUDADANOS
3161	3492	2655	2976	2630	2907
1488	1567	710	741	200	220

BERGARA

EAJ	EH BILDU	ELKARREKIN AHAL DUGU*	PSE-EE	PP	CIUDADANOS
2270	2436	2261	2490	2157	2154
702	713	351	336	87	97

OÑATI

EH BILDU	EAJ	ELKARREKIN AHAL DUGU*	PSE-EE	PP	CIUDADANOS
1971	2339	1899	1999	1296	1040
370	361	215	215	45	67

ARETXABALETA

EAJ	EH BILDU	ELKARREKIN AHAL DUGU*	PSE-EE	PP	CIUDADANOS
1021	1122	913	1062	1009	1038
365	377	176	157	43	78

ESKORIATZA

ELKARREKIN AHAL DUGU*	EAJ	EH BILDU	PSE-EE	PP	CIUDADANOS
546	576	534	595	500	515
287	296	80	86	29	41

ANTZUOLA

EH BILDU	EAJ	ELKARREKIN AHAL DUGU*	PSE-EE	PP	CIUDADANOS
469	539	320	346	264	240
105	100	31	35	8	4

ARAMAIO

EH BILDU	EAJ	ELKARREKIN AHAL DUGU*	PSE-EE	PP	CIUDADANOS
317	395	222	256	197	137
13	11	12	10	1	0

ELGETA

EH BILDU	EAJ	ELKARREKIN AHAL DUGU*	PSE-EE	PP	CIUDADANOS
214	262	188	203	148	112
24	16	15	13	4	6


LEINTZ GATZAGA

EH BILDU	EAJ	ELKARREKIN AHAL DUGU*	PSE-EE	PP	CIUDADANOS
63	61	39	32	30	21
0	1	0	0	0	0

ITURRIA: ESPAINIAKO BARNE MINISTERIOA

* 2015eko abenduaren 20ko hauteskundeetan, ezker batua eta ahal dugu ez ziren elkarrekin aurkeztu. Dena dela, konparaketa egiteko, alderdi biek bakarka lortu zituzten emaitzak batu ditugu zutabe bakarren.

DEBAGOIENENKO EMAITZAK



* 2015eko abenduaren 20ko hauteskundeetan, ezker batua eta ahal dugu ez ziren elkarrekin aurkeztu. Dena dela, konparaketa egiteko, alderdi biek bakarka lortu zituzten emaitzak batu ditugu zutabe bakarren.

JAIIAK!



GOIENA TELEBISTA | JAIIAK | ESKORIATZA, ELGETA ETA ARAMAIOKO JAIIAK
UZTAILAK 6, 22:00

ZABALIK

MANEX AGIRRE
goiena.eus/komunitatea/



Transmartinak

Bere ohorezko festak azarotik uztaileira ekartzeko baimena eman bazigun, utziko digu, Martin deunak, berezkoa duen santutasunaren patroitzari esker ospatzen ditugun festei izena aldatzea; *San Martinak* deitzetik *Transmartinak* deitzera pasatzea, alegia.

Ez diogu idatzizko eskaera ofizialik igorriko deskantsurako hautatu duen erreinura, bai baitakigu aramarioarren pentsamendu ororen berri baduela nahitaez, zerbaitetarako baita gure babesle. Dena dela, ezinegon handirik ez diola sortuko sumatzen dugu; are gehiago, bizkarretik pisu galanta kentzeko aukera da eskaintzen dioguna: lau egunez santu izateari uztea, *San aurrizkitik Trans aurrizkira* pasatzea. Zarautzen orain gutxi egin dute (*Sanpelayuak Transpelayotu* dituzte) eta parrokiari ez zaio dorrerik jausi.

Ez da Martin zaharrari mesede egiteagatik bakarrik. Kontzeptuari justizia egiteko gogoia da. Jaiek gehiago dute transedozeretik, santutasunetik baino. Domekako meza nagusira joaten direnekiko errespetuz, aspalditik dakigu festak gehiago zor diola herriari, elizari baino. Eta herriak bizia ematen dio festari. Eta bizia duen edozerk izaten du mugitzeko gogoia, erro-mara gainetik salto egitekoa.

Asteburu honetan, urtero bezala ikusiko dugu belaunaldien arteko transmisioaren eszenaratzea, aurtzen Iban Elejalderi egingo zaion omenaldian ederto islatua. Generorik onena txonetako eta tabernetako hozkailuetan dagoena dela gogoratuko dugu, eta bi hankakoentzat hobe dela transgeneroa. Eguzkiak, sartzeko eta irteteko orduan, transito berdina egiten duela ohar-tuko gara. Eta egunerokoan aurrera eta aurrera doan transatlantikoari lau egunez ozeano erdian geldi egoteko baimena emango diogu.

Transmartin, adeitasunez, zure gonapetik lau egunez irteteko baimena eskatzen dizugu. Gora, Transmartinak!

USTEAK USTE

MIRARI ALTUBE | aretxabaleta@goiena.eus

Urkulu baino are gehiago

Aretxabaletak ez du aparteko aberastasunik ondareari dago-kionez –onartu egin behar da ez dela Bergara, ezta Oñati ere–, baina daukana ezagutzea eta balioan jartzea herri-tarroio dagokigu. Eta datorren domekan aparteko aukera eskainiko du Aitor Antxia Leturiak. Herriaren historia kontuetan inork ezer baldin badaki, Antxiak daki: gertaera ofizialak, herri-tarren ahotik jasotako bizipenak, bitxikeriak, leku-izenen eta abizenen jatorria, dagoeneko egon ere ez dauden eraikinen istorioak, gerra kontuak... Eta jakintza hori guztia partekatuko du herriarrok. Aretxabaleta Urkulu baino zerbait gehiago da eta herriaren ondarearekin harro sentitzea aretxabaletarroi dagokigu.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Gure gorputza ez, mundua alda dezagun!

Miren Aranguren Etxarte
http://goo.gl/1uw888

Maite dut uda. Eta berekin batera datozen eguzki izpi berrien argia. Pozarren hartzen dut jendea arropa gutxiagorekin kaletik paseatzen ikustea; eskoteak, triapak bistan, galtza motzek erakusten dituzten izterrak, oinak, irribarreak... Negu osoan ezkutuan gorde ditugunak, publikora salto egiten dute, askatasuna berreskuratuko balute bezala. Eta maite dut hondartzara joatea. [...].

Onartu beharrean nago ez dela trago erraza izaten hondartzara jaisten naizen lehen eguna. Besteengan ikusten dudana gorputz sexy eta erakargarria, ez baitut nirearengatik sentitzen. Urteetako erritual bilakatu zait *operación bikini* delakoa. Aurreko hilabetearen plateran dagoen horri tentuz begiratzen hasten naiz, eta neurtzen saiatzen naiz mokadu bakoitza. Gelan dudana ispiluaren aurrean biluzi, bikiniaren kuleroak jantzi, erantzi;

bularretakoa jantzi, erantzi; ispiluan begiratu, aurretik, atzetik, keinu bat egin, beste bat. Besazpia depilatu edo ez erabaki, hankak horrelaxe utzi edo ez erabaki... Gorputzeko atal bakoitza beste begi batzuekin begiratzen hasten naiz, iragarkietako *hondartzarako gorputz* horien antza ez duten gorputz-zoko bakoitza zalantzan jartzeraino; eta aldaketak desio ditut zenbaitetan.

Jakin badakit zergatik den, eta zein den sistema patriarkalak Mendebalde ustelean emakumeoi ezartzen digun gorputz irudia. Edertasun kanon horrek ez dituela gorputz osasuntsuak sustatzen, baizik eta ahul, gaixo eta menpeko direnak sortzen dituela. Gehiengoari, gure gorputzarengatik galdetuta, hau eta beste aldatuko genukeela adieraziko dugula. [...].

XX. mende erdialdetik aurrera, gizentasunarekiko errepresioa areagotu zela esan dezakegu, osasuntsu egonik, gure gorputzak medikalizatzeko helburuarekin. Eta hortik aurrera, azkenaldian asko entzun dudana lodifobia erabat zabaldu zen. [...].

Lodifobiaren kontrako aktibista batzuek horrelaxe

definitzen dute: pertsona gizenek, gizenak izateagatik sufritzen duten diskriminazioa da; gizona umiliatzea, ikusezin bihurtzea, barregarri egitea, marjinatea, baztertzea eta indarkeria fisikoa erabiltzea helburu duen jarrera da. Indarkeria sexistaren beste adierazle bat dudarik gabe.

Lucrecia Lasson aktibista feministaren artikulua batek (*Elogio de la carne; Hysteria* aldizkarian argitaratua) kolpatu du nire errituala. Lucreciak dio gorputz lodia desagertzera bideratzen dugula, gizentasuna eta gizona egoteari uzteko nahia eskutik helduta datozela gehienetan. Eta arrazoi du. Gizona egon edo ez, gizentasuna mehatxu gisa bizi dugu; osasunarekiko, arrakastarekiko, desiratuta sentitzearekiko... [...].

Ez da erraza gure gorputza dagoen bezala maitatzea, are eta gehiago plazererako aldarrikatzea. Baina horrek pixkanaka genero sisteman arrakalak sortzen dituela jakinik, merezi duen ahalegina da. Gorputzak aldatu eta suntsitu orde, dudarik gabe, mundua aldatzeko ahalegina osasuntsuagoa da.

Irribarretsu eta adore handiagorekin, hartu dut hondartzarako bidea egunotan.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Ozel Arrieta.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zieritza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.507 ale



Eusko Jaurilaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Turismoa Oñatin:
eragina
merkataritzan
eta ostalaritzan

Jon Kepa Gerrikagoitia
(EAJren zinegotzia Oñatiko Udalean)
Oñati

Turismoak gora egin du Euskadin, eta zifrak ikaragarri onak dira.

Hala, 2015ean hiru milioi bisitari baino gehiago izan genituen, eta 2016. urteak hobia izateko itxura osoa dauka.

Gainera, turismoak eragin garrantzitsua du Gipuzkoako ekonomian, BPGaren %7,4 baita.

Hori dela eta, aberastasun-iturri garrantzitsua bilakatu da, bai Euskadirentzat eta Gipuzkoarentzat, bai Oñatirentzat.

Ildo horretatik, ezin da ahaztu gure udalerririk oso baliabide turistiko interesgarriak dauzkala kulturaren, gastronomiaren eta naturaren aldetik.

Baliabide-aniztasun hori izan arren, bisitariak geldialdi laburra baino ez dute egiten Oñatin, herriko merkataritzan eta ostalaritzan gastu turistiko larregirik egin gabe.

Gure herrian gaua edo eguna igarotzen duten bisitariak merkataritzan eta

ostalaritzan eragin dezaten, ezinbestekoa da bertaritzen direnen bisitak – joan-etorriak – behar bezala kudeatzea.

Horretarako, ikus-entzunezko baliabideak eta seinaleztapen egokiak uztartzen dituzten ibilbide turistikoak diseinatu behar dira. Ibilbide horiekin, bisitariak errazago sartuko dira Oñatira, gure herriak eskainitako aukera turistikoek gozatuko dute, eta, garrantzitsuenak, bisita horiek gastua egingo dute herriko merkataritzan eta ostalaritzan. Izan ere, turismo horrek dirua utziko du herrian.

Udal-kudeatzaileek hartu behar dute lidergoa, Oñatin turismoa errentagarria izan dadin eta jasangarria izan dadin. Nire iritzian, elkarlan publiko-pribatuak baino ez du lortuko Oñatiko saltokietan ibiliko diren bisitari andana ekartzea.

Hala gertatu dadin, beharrezkoa da kudeaketan eskumena duten erakundeen arteko elkarlana indartzea –Oñatiko Udala, Mankomunitatea, Aldundiko Turismo Zuzendaritza, Basquetour– eta kanal anitzeko sinergiak bilatzea – azoketara joatea, sare sozialetan egotea, promoziorako webguneetan agertzea...–. Era berean, garrantzitsua da Basquetourreko marketin-plana aintzat hartu,

eta honako eragile hauen eskaintza konbinatzen duen produktu turistiko esperientziala diseinatzea: bidaia-agentziak, ostatuak, ostalaritza, Oñatiko Turismo Agentzia, Helburua, Euskadira heltzen diren bisitariak, gero eta zorrotzagoak eta nazioartekoagoak, Oñatira erakartzea da.

Gatzagarrei esker
ona

Eneka Zankada
(Leintz Gatzagako alkatea)
Leintz Gatzaga

Ekainaren 10, 11 eta 12ko asteburua oso berezia izan da Gatzagar guztientzako. Puntaik Punta jaialdian Leintz Gatzaga ekitaldi ugari bete da, hango eta hemengo bisitariak izan ditugu gure artean eta horrela aste askotako lana gauzatu izan dugu.

Egingo dugu balantze pausatu bat eta orduan aztertuko ditugu nolakoak izan diren programatu ziren ekitaldien emaitzak, erakarrirako jendearen nondik norakoa, asebetetze maila eta egindako diru eta lan inbertsioaren etekina. Alea eta lastoa bereizteko aukera izango dugu.

Baina hori baino lehen, lerro hauek bidali gura nizkizuen eskerrak emateko eta Puntaik Puntan jarri

dugun ilusio eta lana goraiatzeko.

Benetan da pozgarria ikustea adin eta izaera desberdineko jendea nola batu den eta bakoitzak ahal zuenaren arabera nola egin duen bere ekarpena.

Gure onena jarri dugu bertan eta hori, bere horretan, arrakastaren seinale da.

Antolaketa lanetan eta zeregin desberdinetan ibili diren guztiei, esker onik benetakoa.

Gema Gonzalez
de Txabarriri
eskutitz irekia

Jaione Makazaga Lete, Saioa Urrutia Larrañaga eta Nerea Altuna Arkauz

(Leintz Gatzagako gelako haurren gurasoen izenean)
Leintz Gatzaga

Hezkuntza Sailaren Gipuzkoako lurralde ordezkari Gonzalez de Txabarriri andrea, gure haserrea eta mina erakustera gatozkizu. Nola azalduko dizugu zuen erabakiak zer lurrikara suposatu duen gure herrian, gure familietan eta gure etorkizunean.

Murrizketa garaia omen da. Eta denok, isildu behar. Onartu behar. Bada, gu ez gaude prest.

2015eko otsailaren 3an zuekin izandako bileran

emandako hitza jan eta gure herria hezkuntza zerbitzurik gabe utzi duzue, eta hori, Gonzalez de Txabarriri andrea, gure herria etorkizunerako hausporik gabe uztea da.

Gatzaga gainbeheran zihoa orain dela 20 urte, herriak izugarriko apustua egin zuen arte. Harrezkero, hamaika ekimen sortu eta garatu dira; bai ekonomikoki, bai sozialki. Horien artean, aipatzekoa, 2001ean, 1972an itxi zen eskola irekitzea lortu zenekoa; 2 eta 5 urte arteko umeentzat. Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolako gela desplazatu modura zabaldu zen.

Denon esfortzu horri esker lortu da herriak gorantz egitea biztanlerian, ekonomian, jai giroan, elkartegintzan, zerbitzuetan... Orain, dena dago arriskuan.

Guretzat, eskola ez da gure umetxoentzako jolas eta ikasketa gune hutsa. Guretzat, eskola, herri biziaren isla da. Herriaren bihotza da. Eta hori mantentzeko, momentu honetan, irakasle bakarra behar dugu. Horixe. Bakarra.

Murrizketak ordenagailuan zenbaki bihurtzen dira, baina ezin gara denok galbahe beretik igaro. Gatzagan, bost haur asko dira, eta are gehiago dira, herrian baldin badaude.

Ez utzi herri bat haurrik gabe, ez utzi herri bat etorkizunik gabe. Irakasle bakarra behar dugu. Horixe. Bakarra.

Karakterea, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizenziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

Debagoieneko
GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE
Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK


ARGI-PLASTIK

ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatze sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45



DUELA 10 URTE

2006-06-30

Elkargiren bulegoa Bergaran

Debagoieneko enpresa ertain eta txikiei laguntza emate aldera, bulegoa zabaldu zuen Elkargik Bergaran. Finantzaketa arloan laguntza eta aholkularitza ematea zuen helburu. Confebaskeko orduko presidente Miguel Laspiur eta Bergarako orduko alkatere Victoriano Gallastegi egon ziren aurkezpen ekitaldian. Orduan, bailarako 225 enpresa bazkide zituen Elkargik. Haietatik, %80k 50 langile baino gutxiago zituzten.



Elkargiren bulegoaren inaugurazioa. | GOIENA

2006-06-29

Herritarrei harrera egiteko bulegoa

Arrasaten, Biztanleen Arreta Zerbitzua (BAZ) zabaldu zuten, herritarrei harrera zerbitzua emateko. Maisu Arano kalean dagoen bulegoan, obra txikiak egiteko baimenak, errolda ziurtagiriak, bizikidetasun ziurtagiriak, denda zabaltzeko baimen eskara eta beste hainbat tramitatu daitezke. Era berean, kexak eta iradokizunak BAZen aurkezteko aukera zuten herritarrek. Astelehenetik zapatuta dago zabalik.

DUELA 5 URTE

2011-06-27

Txernobilgo umeak

Oporrak bakean programaren baitan, Txernobilgo hamahiru neska-mutiko heldu ziren Debagoienara: sei Oñatira, hiru Bergarara, eta bina Arrasatera eta Aretxabaletara. Bi hilabete pasa zituzten bailarako familiekin.

Garai berean heldu ziren baita ere Sahara haurrak. Guztira, hamahiru neska-mutiko.

OÑATI

HERRITARRAK

Anton Inza Lanbidez irakaslea, 59 urte ditu eta erretiroa hartzeko gertu dago: irailean hasiko du azken ikasturtea. Aloña Mendi Kirol Elkarteko presidentea ere bada. | MIREIA BIKUÑA

"Irakasleok merezitako oporrak ditugu; akaso, besteenak dira motzak"

Anton Inzak (Oñati, 1959) Aretxabaletako Lanbide Heziketa Institutuan egiten du lan. Irakaslea da lanbidez. Institutuko gelak hutsik daude dagoeneko, baina lanean segitzen du berak. **Topiko bat, hasteko: irakasleek opor luzeak izaten ei dituzue.** [Barreak] Hori esaten dute, bai. 35 urte egin ditut irakaskuntzan eta horietako 20 zuzendari lanean. Eta ozen esan dezaket, zuzendari izan naizen urteetan, uztaile bukaeran hartu ditudala oporrak. Ez ekainean.

Zuzendaritza arloan lan handia izaten dugu uztailean: matrikulazioak, irakasle zerrendak, gelen banaketa... Orain utzi behar dugu ikasturte berria antolatuta.

Bestalde, nik beti esan izan dut gure oporrak merezitakoak direla. Akaso, besteak dira opor gutxi dutenak. Gehiago eskatu behar... Baina, egoera aldatu egin da apur bat: Gabonetan eta Aste Santuan nik beste opor dituzten lagunak baditut.

Marrasketa Teknikoko irakasle zaitugu.

Oposizio bidez lortu nuen lanpostua, Aretxabaletako Lanbide Heziketa Institutuan. Hor 34 ikasturte bete ditut, eta beste biak Santurtzin egin nituen.

Zenbat aldatu da irakaskuntza urte hauetan guztietan?

Asko. 14-16 urte arteko eskolak ematen nienean derrigorrezkoak ziren eskolak. Ostean, espezialitateak aukeratzen zituzten. Ikasle batzuk behartuta joaten ziren eskolara, eta horrek arazoak sortzen zituen.

Irakasleen lana asko aldatu da irakaskuntzan?

Eboluzio handia izan da. Metodologia aldaketa asko egon da. Ikasgaiak ere aldatuz joan dira Lanbide Heziketan: ez dira betiko matematika eta fisika. Ikasgaiak askoz praktikoagoak dira:



Anton Inza Aloña Mendi Kirol Elkartearen egoitzan. | MIREIA BIKUÑA

"Irakaskuntzan 36 urte egin ostean, irailean hasiko dut azken ikasturtea"

"Aloña Mendiren eskubaloia sailaren zuzendaritzan hasi nintzen"

tailerrak, lanak, ariketak... Alde horretatik, asko aldatu da, bai ikasleen profila, irakasleen jarduna eta metodologia eta ikasgaiak.

Erretiroa hartzeko gogoz zaude? Gogoa badaukat, eta espero dut irailean hasiko dudana ikasturtea izango dela azkena.

20 urtez zuzendari eskolan, eta irailean bertan beteko dituzu 30 urte Aloña Mendi Kirol Elkarteko presidentea.

Eskubaloia saileko zuzendaritzan hasi nintzen. Koadrilakoak eskubaloia zaleak ziren, eta han hasi nintzen. 1984an Santurtzira joan nintzen eskolak ematera, eta eskubaloia utzi nuen bi urtez. Bueltan, Aloña Mendiren zuzendaritza orokorrera salto egin nuen Enrike Zubiagirrenen eskutik. Haren ondoan ikasi egin nuen urte mordo, presidente kargua hartu arte. Eta, orain arte. Lanean jarraitzen dugu. Baina ez nik bakarrik: badaude

beste hainbat lagun zuzendaritza tinko mantentzeko ahaleginean dihardutenak.

Zaila da 14 sail dituen elkarte bateko presidentea izatea?

Kirolari asko batzen ditu Aloña Mendik eta 14 sail ditu, baina ez da lan zaila. Zuzendaritza orokorrak ez dauka eguneroko lana. Sail bakoitzak era autonomoan funtzionatzen du.

Egunero joaten gara egoitzara, eta, bereziki, erantzukizuna eskatzen duen lana da. Dokumentu gehienak nire izenean doaz eta horrek ardura eta erantzukizun handia eskatzen du.

Adibidez, laster egingo dugu aurtengo garagardo azoka eta hori antolatzen protagonismo handia izaten dugu zuzendaritza orokorreko kideok. Bestelakoan, gure lana nahiko isila izaten da. **Txirindulari lasterketetan banderatzarekin bidegurutzetan, Elorzaren omenaldian argazkiak ateratzen, gimnasia erritmikoaren era-**

NIRE HERRIAN

OÑATI

Bizi garen lekua pribilegiatua da. Herri aberatsa daukagu. Ekonomikoki, kirol eta kultura arloan aberatsa. Mendiak, ikusgarriak. Bereziki, gustatzen zait Arantzazu eta Araotz ingurua. Ez naiz mendizalea, baina lasaitasun bila paraje horietara joaten naiz: Aitzulo, Jaturabe...

KIROL INSTALAZIOAK

Herriko kirol elkarte nagusiaren presidente naizen aldetik, eta herrian dauden kirolari mordoak ikusita, gabezia handia ikusten du kirol instalazioetan. Kiroldegia eta igerilekuak txiki geratu dira... Badakit, era berean, aurrekontua dela arazo handiena instalazioak hobetu ahal izateko eta ez dela erraza izango.

kustaldian muntaia lanetan laguntzen... Agenda topera daukazu horrenbeste kirol hitzordurekin!

Kirol ekitaldi batzuetara Aloña Mendi Kirol Elkartearen presidente modura joaten naiz. Baina, aurretik aipatu dituzun horietan, Anton Inza izan naiz. Laguntzeko gertu dagoen boluntarioa. Ezinezkoa da kirol hitzordu guztietara joatea, baina ahalegintzen naiz gehienetara joaten.

Ze kirol duzu gustuko?

Eskubaloia sailean hasi nintzen lanean eta koadrilakoak eskubaloia munduan ibilitakoak dira. Baina niri, gehien, futbola gustatzen zait. Dena den, aurtun eskubaloiarekin gozatu dut. Asko poztu nau pilota sailak izan duen bilakaera eta Herriartekoan egin duen bidea. Saskibaloiak EBAn egindako lana ere aipatu gurako nuke. Baina, bereziki, sail guztiek harrobiarekin egiten duten lana azpimarratu behar da.

HERRIAK

Lezetxikiko altxorren bila jarraituko dute aurten ere

- ▶ 21 urte daramatza Aranzadi elkarteak koba hori modu sistematikoan aztertzen
- ▶ Astelehenean hasi zituzten aurtengo indusketak eta uztailaren 16ra arte iraungo dute

ENEKO AZURMENDI | ARRASATE

Duela 21 urte hasi zen Aranzadi Zientzia Elkarteak Arrasateko Lezetxikiko koban indusketak egin eta hura modu sistematikoan aztertzen, Alvaro Arrizabalaga arkeologo eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea buru zuela.

Aurrez, 1956 eta 1968. urte bitartean, Jose Migel Barandiaranek gidatu zituen hainbat indusketa kanpaina eta azken urteotako indusketek jarraipena eman nahi izan diote garai hartako lanari.

Indusketa lanak astelehenean hasi zituzten eta uztailaren 16ra bitartean iraungo dute. Urtero moduan, arkeologia munduko estatuko hogeitaz langile inguru ari dira koba aztertzen, modu boluntarioan -Madril,artzelona, eta abar-.

Helburu nagusia iaz

Alvaro Arrizabalaga arkeologoak nabarmendu du iaz lortu zutela helburu nagusia: "Beheko haitza jotzea zen gura genuena, sekuentzia estratigrafikoa agortzea, eta iaz justu-justu lortu genuen, azken aurreko egunean. Suposatzen dut horrek zikloz aldatzea ekarriko duela", adierazi du arkeologoak. Azaldu du sekuentzia horretan dagoeneko ez dutela material zaharragorik aurkituko.

Aurten, berriz, indusketa albotik egiten ari dira, bi helburu lortu nahian: "Batetik, kronologia zaharreneko maila arkeologikoak aztertzen ari gara, gizakiak bertan izan zuen presentzia eta eragina neurtu ahal izateko. Bestetik, sarrera berri bat bilatu nahian gabilta", azaldu du Arrizabalagak.

Aurkikuntza garrantzitsuak

Lezetxikiko koban, Europa mailako hainbat museotan ezagunak diren aurkikuntza garrantzitsuak egin izan dira: maskorrak, iberiar penintsulan lehen aldiz aurkitutako zenbait animalien aztarnak, makakoaren matraila, eta abar. "Egun, arkeologiak multzoak eta testuinguruak definitzen lan egiten du. Lezetxikin



21 urte daramatza Aranzadi Zientzia Elkarteak indusketak egiten. Iazko argazkia da hori. | GOIENA

ALVARO ARRIZABALAGA | ARKEOLOGOA

"Iaz lortu genuen helburu nagusia: beheko haitza jotzea, hain zuzen"

Alvaro Arrizabalaga arkeologoa eta Lezetxikiko indusketen arduraduna da. Bera buru duela, Aranzadi Zientzia Elkarteak 21. urtea du Arrasateko koban aztertzen. Aurten, 20 lagun inguru arituko dira indusketa lanetan.

Noiz hasi zarete eta noiz arte egongo zarete lanak egiten?

Ekainaren 27an, astelehena, hasi ginen eta uztailaren 16ra arte egongo gara; hiru aste, guztira.

Zenbat lagun batu zarete eta nondik dator jendea?

Aste honetan gutxiago egongo gara, oraindik batzuk ez direlako etorri. Baina guztiak batzen garenean, hogeitaz lagun inguru izango gara. Madrildik, Bartzelonatik eta Espainiako beste inguru batzuetatik etortzen dira, arkeologia ikasle zein irakasleak.

Urtero helburu desberdinak izaten dituzue Lezetxikin?

Bai. Helburu nagusia iaz bete genuen, azken aurreko egunean. Iaz ere, beheko haitza jotzea lortu genuen, eta hori zen gura genuena, sekuentzia estratigrafikoa agortzea, hain zuzen. Orain, beste aro bat zabalduko zaigula suposatzen dut. Aurtengo helburua da antzinatasun handieneko mailan indusketa egitea, bertako giza presentzia eta eragina neurtzeko.



GOIENA

Zer izan da orain arte aurkitu duzuen material esanguratsua?

Hori oso zaila da esaten. 15.000 erregistro ditugu, eta 100.000 aztarna arkeologiko inguru. Hala ere, erlatiboki garrantzitsuenak izan daitezke maskorrak, iberiar penintsulan lehen aldiz aurkitutako zenbait animalien aztarnak edota makako baten matraila.

Aurkitutako material horrekin zer egiten duzue?

Hori material publikoa da. Beraz, bi urte ditugu azterketa egiteko, eta, ondoren, Gipuzkoan arkeologia museorik ez dagoenez, horren ordezko hartzen den Irungo Gordailuan sartzen ditugu.

Kobazuloaren egoera zein da?

Guk 20 urte daramatza eta hona iritsi ginenean aztarnategi hau zabortege hutsa zen, ez dauka zerikusirik gaur egun dagoen aztarnategiarekin; duintasuna itzuli diogu leku honi. Oso ikerketa-gune garrantzitsua da eta azpimarratzeko aurkikuntzak egin ditugu hemen. Jendea konbentzitu egon behar da hemen dagoena garrantzitsua dela eta ahalik, eta kontu handienarekin ibiltzeko eskatzen dugu.

Etorkizunera begira ze asmo daukazue?

Guk gustura jarraituko genuke indusketa lanetan, baina diru laguntza ere asko murrizten ari zaizkigu azken urteetan. Beraz, agian, indusketa lanetan etena egitea eta urte hauetan aurkitutako material guztia aztertzea tokatzen da, guretzatko errazagoa den zerbait.

DATUA

100.000

AURKIKUNTZA

Lezetxikin aurkitutako materiala batzen duen Irungo Gordailuak 15.000 erregistro ditu.

mikrougaztunak agertu izan dira, iberiar penintsulan aurrez sekula aurkitutakoak, sagu txikiak eta halakoak. Arkeologia aldetik oso aberatsa da koba hau, eta, paleontologia aldetik, are garrantzitsuagoa", azpimarratu du arkeologoak. Horregatik, herritarrei "ahalik eta kontu handienarekin" ibiltzea eskatu die, oso gune garrantzitsua delako. "Jendea konbentzitu egon behar da hemen koba hau garrantzitsua dela eta hemen aurkitzen denak balio arkeologiko eta paleontologiko handia duela", dio.

Gaineratu du Lezetxikin aurkitutako materialarekin 15.000 erregistro dituztela, 100.000 aztarna arkeologiko ingururekin. "Gipuzkoan arkeologia museorik ez dagoenez, horren ordezko hartzen den Irungo Gordailuan daude aurkitutako aztarna guztiak", nabarmendu du.

Diru laguntzak, murriztak

Aurkikuntza nabarmenak egin badira ere, diru laguntza geroz eta murriztagoak direla dio Arrizabalagak. "Inoiz ez gara egoera onean egon, eta, gainera, iristen zaizkigun laguntza murriztuz doaz urtero", azaldu du. Edozelan ere, Arrasateko Udalaran laguntza "ezinbestekoa" izan dela azpimarratu du. "Arrasateko Udalak beti lagundu izan digu. Laguntza teknikoak, logistikoa eta, behar izan denean, ekonomikoa ere eskaini digu, eta, alde horretatik, ezin gara kexatu. Hala ere, horrek asko laguntzen du, baina ez du arazo guztia gaineratik kentzen", onartu du.

Kultura kalera uztailean, Udazabal ekimenari esker

Zirkuarekin zerikusia duten ekintzak dira nagusi aurten; eskaintza plaza ezberdinetara zabaldu gura izan dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Heldu da Udazabal, Udalaren uztaileko kultura gida. Urteko beste hilabete batzuekin alderatuta egitarau interesgarriagoa izateaz aparte, kultura kalera ateratzen du Udaleko Kultura Sailak hilabete honetan.

Izan ere, kultura kalera ateratzeko apustua egin zuten duela urte batzuk eta urtez urte indartzen doa ekimena, herrita-

rrek ondo erantzuten dute eta. Aurten, zirkuarekin zerikusia duten ekintzek hartuko dute protagonismo berezia: "Bederatzi ekintzetatik hiruk zirkuarekin harremana dute. Ez dira zirku bakarrik, beste diziplina batzuekin ere lotuta datoz. Horien artean aipagarriena *Lurrak* ikuskizuna izan daiteke, apustu handia izan delako. Ez dira aukera asko izango ikuskizun horretaz gozatzeko;

aukera paregabea izango dugu Arrasaten", adierazi du kultura teknikari Karmelo Alberdik - *Lurrak* ikuskizunaren gaineko xehetasun gehiagorako, ikus 32. orria-.

Zirkuaren munduarekin bat datozen ekintzez gain, bestelako eskaintzarik ez da faltako: musika, dantza, antzerkia... Horregatik diote Kultura Sailetik egitarau "zabala eta erakargarria" dela.



Garai, Alberdi, Ubarretxena eta Mendieta, Udazabalen aurkezpenean. | X. GOROSTIDI

Erdigunean, sakabanatu

Eguazten goizeko aurkezpenaz azaldu zutenek, aurten ekintzak herriko erdiguneko plaza ezberdinetara zabaldu nahi izan dituzte: "Kultura kalera ateratzea da Udazabalen helburua. Iaz berreskuratu zen Zaldibarko frontoia, baina aurten asmoa izan da Monterron parkean kontzentratu gabe ekintza guztiak, plaza ezberdinetara zabaltzea: Herriko Plaza, Jose Letona Plaza, Biteri, Monterron, Zaldibar...", adierazi zuen Maria Ubarretxena alkateak.

Pailazo ezagunen ikuskizuna

Azken urteetako ohitura izan da Pirritx, Porrotx eta Marimotots San Juan jaietan etortzea, ekainaren 25ean. Aurten ez da posible izan, ekainaren 25a zapatua denean beste konpromiso bat izaten dutelako Tolosa aldean. Horregatik, uztailean etorriko dira; oraingoan, *Amalur* ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da datorren egunean, hilak 7, Monterronen (19:00).

Azken errementariaren 'buelta'

Bestalde, bueltan dator *Dinbi Danba mailuaren hotsa* erakusketa iraunkorra. Bixente Barandiaran Arrasateko azken errementariaren bizitza eta obra jasotzen ditu erakusketak. Uztailearen 7tik urriaren bukaerara arte irekiko dute berriro, Harre-

si aretoan; abuztuan itxita egongo da. Honako hau izango da ordutegia: eguenean, 17:00etatik 20:00etara; egubakoitzetan, 17:00etatik 20:00etara eta zapatutan 10:30etik 13:30era. Sarrera ez da ordaindu behar.

UDAZABAL 2016

Gaur, uztailak 1: Arrasate Musikaleko Big Bandaren kontzertua, Monterronen, 22:30ean.

Etzi, uztailak 3: *Lurrak* zirku-antzerki ikuskizuna, Zaldibarren, 20:00etan.

Uztailak 7: Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Amalur* ikuskizuna, Monterronen, 19:00etan.

Uztailak 7: *Dinbi, danba mailuaren hotsa* erakusketa inaugurazioa, Harresi aretoan (zabalik egongo da urriaren bukaerara arte).

Uztailak 10: *Malas Companias* taldearen *Letter* zirku-antzerki ikuskizuna, Seber Altuberen, 20:00etan.

Uztailak 15: Bocinegro taldearen kontzertua, Jose Letona plazan, 20:00etan.

Uztailak 17: *Spazi...o* zirku-antzerki ikuskizuna, Zaldibarren, 20:00etan.

Uztailak 21: *Cuasanaunchic* folklore jaialdia, Monterronen, 22:30ean.

Uztailak 24: *Berriketan* dantza-musika ikuskizuna, herriko plazan, 20:00etan.



Big Band-ak iazko Udazabal ekimenaren barruan Monterron parkean eskaini zuen kontzertua. | IMANOL SORIANO

Big Band-aren kontzertu bereziaz gain, disko berria salgai

Udazabal ekimeneko klasiko bat da Arrasate Musikaleko Big Band-aren kontzertua. Gaur joko dute, Monterronen (22:30). Gainera, taldearen disko berria erosteko aukera egongo da, bost eurotan; honako hau bosgarren diskoa da honezkerok. Zigor Martinezen zuzendaritzapean, 27 musikaririk hartu dute parte Tio Pete eta Pottoko estudioetan grabatu den diskoan.

Maitane Mazmela arrasatearra arduratu da diseinuaz. Big Banda Jose Ramon Elkorok jarri zuen martxan 2000. urtean eta partaide guztiak dira Arrasate Musikaleko ikasleak edo irakasleak: bost tronboi, bost tronpeta, sei saxo, pianoa, gitarrak, bateria, perkusioa, baxua, ahotsa... Errepertorioari dagokionez, denetarik doinuak: bluesa, jazz, funka, bossa, rocka...

'Nordic walking' jarduera ezagutzeko eta probatzeko aukera dago kiroldegian

J.B. | ARRASATE

Kirol Zerbitzuak *nordic walking* diziplina ezagutzeko ikastaro berri bat antolatu du uztaileko. Kurtsoa bost ordukoa izango da eta 27,25 euroko prezioa izango du. Ikastaroak uztailearen 6an eta 11n izango dira, bi txandatan: goizez (11:00-13:00) eta arratsaldean (17:00-19:00). Ikastaroan 15 pertsonarendako lekua egongo da.

Doan probatzeko aukera

Horrez gain, diziplina zertan datzan doan probatzeko aukera dago. Horretarako, bi egun bideratu dira, uztailearen 4a (18:00) eta uztailearen 5a (11:30). Materiala Kirol Zerbitzuak eskainiko du, eta, parte hartzeko, kiroldegiko harreraren izena ematearekin nahikoa da. Plaza mugatuak direnez, komeni da izena lehenbailehen ematea.



Nordic walking ikastaroko aurreko saio bat, Mojategin. | ARRASATEKO UDALA



Juanjo Olaizola azalpenak ematen, erakusketa irekiera egunean. | E.A.

Vasco Navarro trenaren erakusketa gozatu ahal izango da uztailearen 8ra arte

J.B. | ARRASATE

Arrasate Zientzia Elkartearen ekimenez Kulturateko klausuraren ikusgai dagoen Vasco Navarro trenaren gaineko erakusketa ikusteko azken egunak dira honako hauek, uztailearen 8ra arte egongo da-eta zabalik. Honako hau da ordutegia: astelehenean zapatuta, 17:30etik 20:30era. Oraindik erakusketa ikusi ez duenari begira, erakusketa zabalik dagoen bitar-

tean, antolatzaileetako bat egongo da klausuraren, edozein zala-tza argitzeko gertu.

Oso harrera ona

Erakusketa oso harrera ona izan du orain arte. Logikoa denez, lehen egunetan izan zituen bisita gehien; AZEkoen arabera, lehen bi egunetan 320 lagun inguru gerturatu ziren. Dagoeneko hurrengo proiektura begira hasita daude lanean.

Mondrally-k eskuter topaketa antolatu du biharko, seigarrenez

Mondrally eskuter taldearen seigarren topaketa egingo da bihar, hilak 2. 11:00etan Herriko Plazan elkartuko dira izena emateko eta 12:00etan irteera egingo dute inguruko parajeetatik. 14:30ean Udala auzoko Larrinetxe jatetxean egingo dute bazkaria eta ondoren, 20:00etatik aurrera, musika girotutako festa izango dute DAT tabernan.

Tourrerako porra egin ahalko da Monte tabernan, etzira arte

25 urteren ondoren, Xantini lagunarteak aurten utzi dio Giroko, Tourreko eta Vueltako porrak antolatzaileari. Hala ere, Monte tabernak Tourrerako porra antolatu du; izen-ematea domekan, uztaileak 3, itxiko dute (14:00). Porrak urteroko baldintzak izango ditu; apustu bakoitzagatik 30 euro ordaindu beharko da.

Igerilekuko gozamina, euskaraz irakurriz eta jolastuzosatzen

Badator Txatxilipurdiren Freskura ekimena, gaur hasi eta uztailaren 29ra arte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Txatxilipurdi elkarteak beste urtebetez antolatu du Freskura ekimena Musakolako kiroldegirako. Euskarazko irakurgaiak eta jolasak alokatzeko aukera izango dute kanpoko igerilekuen erabiltzaileek, gaur hasi eta hilaren 29ra arte. Astelehenetik egubakoitzera eskainiko dute zerbitzua, arratsaldean, 16:00etatik 20:00etara. Helburu argia du

ekimenak, antolatzaileen arabera: "Euskaraz dauden askotariko produktuen ezagutza eta erabilera sustatu nahi dugu. Adin tarte guztientzat, aukera ezberdinen bitartez -jolastuz, irakurriz eta tailerretan parte hartuz- igerilekuan dauden momentu oro ongi pasatzeko aukera eskaini nahiko genieke, udan ere euskaraz jolasteko eta irakurtzeko bideak eginez".

Lehen aldiz 2011n
Egitasmoan adin guztietarako jolasak zein irakurgaiak maileguan hartu ahalko dira. Parte hartzeko, kanpoko igerilekuen eremuko leku ikusgarri baten egongo den postuan izen-emate orri bat bete beharko da, eta, horrela, erabiltzaile bakoitzari bere Freskura txartela egingo zaio. Denetarik jolasak aurkitu ahal izango dira postuan, eta,



Irakurgaiak eta jolasak, Freskura ekimenaren artxiboko irudi baten. | J.B.

jolasez gain, euskarazko irakurgai ugari ere egongo dira erabiltzari, aldizkariak eta egunkariak. 2011n antolatu zen lehen urtez

Freskura, eta urtez urte indartzen doa. Aukera ederra igerilekuko gozamina euskaraz irakurriz eta jolastuz osatzeko.



Edanda eta gidaibaimen barik

Ekainaren 26an, arratsaldean, auto bat Santa Marina kalean behera zihola kontrola galduta, espaloiko faroletako bat jo zuen; jo, eta farola bota. Autoak kalteak izan zituen, baina gidaria onik atera zen. Udaltzainek atxilotu, eta euren egoitzara eraman zuten; han egin zioten alkohol-proba, eta positibo eman zuen gidariak. Gainera, gidabaimen barik gidatzen aritu zela ere ikusi zuten udaltzainek.

TXALOAK ETA TXISTUAK



Ia astebete hondakinez gainezka

Herritar batek Goienako erredakziora helarazi duen goiko erretratuan ikus daitekeen edukiontzien gunea Arbolapeta ondoan dago, Arrasateko erdiguneko leku igaroenetako baten. Bada, ia astebetez egon da beiraren edukiontzia argazkian ikus daitekeen egoeran: "San Juan jaien ondorioz izan daitekeen arren, egun larregi egon da zaborra edukiontzitik kanpo", dio irakurleak.

NIRE USTEZ

IBON ARRUPE



Gora gure mendiak!

Euskaldunok mendi tontorregandik betidanik sentitu dugu erakarpen berezia. Beraietara igotzeko beharra barne-barnean daramagunik inork ezin jarri zalantzan. Mendi txikia edo handia, astebururo dozenaka pertsona ikus daiteke mendietan. Arrasateko mugetan badaude hiru tontor. Ederrena, Udaltx. Gertukoena, Kurtzetxiki. Ezezagunena eta apalena, Anporetta.

Azken hau apenas ezagutzen du inork, basoaren erdian egonik ez baita erraza bertarako bidea aurkitzea. Hala, Udalak, tontorra balioan jartzeko aldera, tontor hori hartzen duen lursaila erosi eta berreskurapen lanak burutzea erabaki du, herriko eragileekin batera.

Alde batetik, tontorreko pinuak moztu eta zelai-gune bat atonduko da. Ondoren, bertatik igarotzen den gerra zibileko lubakia berreskuratuko litzateke eta Aranzadi-ekin batera agertu diren aztarna megalitikoak aztertzeko asmoa dago.

Eta hau guztia ezagutzeko, Besaide Mendizale Elkartearekin batera diseinatu den ibilbide laburra (SL) homologatu eta dagozkion panelak eta seinaleak jarriko dira.

Epe laburrean, naturaz eta mendi tontorrez gozatzeko aukera berri bat izango dugu!

Elkarrekin Ahal Dugu lehen indarra, abenduaren 20ko sorpresari eutsiz

J. B. | ARRASATE
Abenduaren 20ko hauteskunderetan inork gutxi espero zuen Podemosen Arrasateko zirkulua izango zenik lehen indarra. Sorpresa handia izan zen orduan, baina ekainaren 26ko hauteskunderetan aurreikusteko modukoa zen Elkarrekin-Ahal Dugu koalizioa izango zela garaile.

EAJ, EH Bilduren aurretik
Bestetik, lehia estua izan zen bi alderdi abertzaleen artean. EAJk lortu zuen bigarren alderdi bozkatuena izatea, EH Bildurekiko 25 botoko aldearekin. Datu hauek utzi zituzten Arrasaten Espainiako Gorteetarako hauteskunderak: Elkarrekin-Ahal Duguk, 3.161 boto (%28,74); EAJk, 2.655 (%24,14); EH Bilduk, 2.630 (%23,92); PSE-EEk, 1.488 (%13,53); PPK, 710 (%6,46) eta Ciudadanosek, 200 boto (%1,82).

Aldaketa auzoen mapan
Datuak auzoz auzo begiratzuz gero, Elkarrekin-Ahal Duguk jaso ditu boto gehien auzo guztietan, erdi-

gunean eta baserri auzoetan izan ezik. Izan ere, erdiguneko barrutietan EH Bildu izan da lehen indarra -EAJ bigarrena- eta

baserri auzoetan, berriz, EAJk jaso ditu boto gehien. Hala ere, Elkarrekin-Ahal Duguk mapa aldatu du ia erabat.

ARRASATEKO EMAITZAK AUZOZ AUZO

	ELKARREKIN AHAL DUGU	EAJ	EH BILDU	PSOE	PP	CIUDADANOS
Erdigunea	1.093	1.285	1.331	347	218	52
Musakola-Santa Marina	828	379	415	456	179	56
San Andres	354	325	243	273	133	27
Uribarri-Erguin	835	593	576	403	163	64
Baserri auzoak	51	73	65	9	17	1
GUZTIRA	3.161	2.655	2.630	1.488	710	200

ITURRIA: GIPUZKOAKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

"Epe laburrean, naturaz gozatzeko aukera berri bat izango dugu!"

Amaitu dira luze eta bizi joan diren aurtengo San Juan jaiak

Haur, gazte eta helduentzako ekintzarik ez da falta izan aurtan, eta azpimarratzekoa da 'Zuk iñ zuk jan' herri bazkaria hartzen ari den indarra

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Asteburua bete-bete harrapatu ostean, amaitu dira aspaldiko sanjuanik jendetsuenak izan direnak. Txosna batzordekoek suzuria bota eta Raimundo Amadorrek azken akordea jo arte, askotariko ekintzez gozatzeko aukera izan da San Juan jaien baitan.

Lehen egunean, 400 lagun inguru batu ziren Biterin egindako herri bazkarian. Txopo-poteoa egin ostean, fin-fin aritu ziren, eta makala lehen saiakeran igotzea lortu zuten. Iluntzean, Errementari Dantzak Arrasateko kaleak hartu zituen. Aurtan, berritasuna izan da plazan jarritako pantaila erraldoiari esker herritar gehiagok izan zutela ikuskizunaz gozatzeko aukera. Gaua luze joan zen askorentzat, eta goizaldean zezen plaza goraino bete zen, lehen entzierroaren ostean.

Bigarren egunean, erraldoi eta kilikiak kalera atera ziren, eta Arrasate Musikaleko Bandak kontzertu berezia eskaini zuen Monterronen. Eguraldi eskasak eraginda, Dragoi Jana azokan egin zuten. Orain arte, giroak lagundu ez duenean, Uarkapera eraman izan dute antolatzaileek, baina, kirol instalazioetan erretzea debekatzen duen legeak eraginda, aurtengoa azokan egin dute. Gau partean, euskal kantak

izan ziren protagonista Anne Etchegoyenek eta Goikobaluk egindako kontzertuan.

Zapatuan, Eguzkilaruk haurrez inguraturik ospatu zuen bere 20. urtebetetzea. Ondoren, 700 lagun baino gehiago batu ziren *Zuk iñ zuk jan* bazkari herrikoian. Urtetik urtera indarra hartzen ari den egitasmoa da, eta datorren urtera begira jende gehiago har dezakeen leku baten bila ari dira antolatzaileak. Gauean txosnagunea goraino bete zen, Arkada Socialen eta Non Serviumen zuzeneko ikusteko. Arrasatearren kontzertu erdian, Arrasateko emakumeen Gazte Asanbladako kideek agerraldia egin zuten. Euren aldarrikapenak egin zituzten eta txosnagunean jarritako kartelaren harira Udalak ateratako oharrari erantzun zioten.

Jaietako azken eguna berezia izan zen, bereziki jaiak eta hauteskundeek bat egin zutelako egun berean. Arrasatear askok, ajearen eraginez, azken unera arte itxaron zuten euren botoa emateko.

Eguerdi partean, 1.000 pintxo baino gehiago banatu zituzten Eusko Labelakoek herriko plazan. Ondoren, gozatu ederra hartu zuten herriko pilotazaleek Uarkapen egindako pilota profesional jaialdian. Aitor Mendizabalek

amore eman zuen Jon Jaunarenaren aurka. Ondorengo partiduan ikuskizun paregabea eman zuten bi bikoteek, baina amaieran, Altuna eta Barriola nagusitu ziren, 22-18. Jaiak agur esateko, herriko plaza goraino bete zen Raimundo Amadorren kontzertuarekin. Ehunka lagun bildu ziren bertan, artista sevillarraren doinuekin gozatzeko eta dantzatzeko.

Aurtengo urrezko dragoiak AGAKOK eta Gure Esku Dagok jaso dituzte. Lehenak, aurtan 25 urte betetzen dituzenez, urte hauean guztietan egindako ibilbideagatik saritu ditu Txosna Batzordeak. Gure Esku Dago-ren kasuan, milaka arrasatearri botoa emateko aukera eskaini izanagatik jaso du garaikurra.

Balorazio positiboak

Jaiak amaitu ostean, balorazio positiboak egin dituzte Udalak eta Txosna Batzordeak.

Egitarauko ekitaldiek izandako harrera ona eta herritarren parte hartzea azpimarratu ditu Udalak. Txosna Batzordeko Eneitz Urrutia ere pozik azaldu da. "Gure aldetik antolatutako ekintza guztiek ondo funtzionatu dute. Aurtan diru kontuak tarteko ez dugu lortu herriko taldeen kontzerturik antolatzetik, baina datorren urtean lortuko dugu".



Eguzkilaruk bere 20. urteurrena ospatu zuen haurrekin batera.



Zezenen aurrean trebezia erakusten.



Dragoi txuletak egiten ke artean.



Dragoia sua pizten duen une magikoa.

ARGAZKIAK: AITOR AGIRIANO ETA IMANOL SORIANO

arbolapeta

arrasate

beinke

Sagardo garaia amaituta, erretegi moduan orain.

Udako menuak. Abuztuan eta irailean ere zabalik!

Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa / Aramaio
945 445 385 685 721 593
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Pantaila erraldoia izan da Errementariko berritasuna.



Street Boulderrean jo eta su.



Gure Esku Dago-ko ordezkariak urrezko dragoiarekin.



Zuk iñ zuk jan bazkaria arrakastatsua izan da aurten ere.



Su artifizialak San Juan jaietako klasikoak dira.



Danborradako kideek gogo biziz astindu zituzten danborrak.



Raimundo Amador maisua.



Jaiak aldarrikapenerako esparru.



Hodei Beitia gogotsu abesten.

PRESTA ZAITEZ UDARAKO

Lirainen txoke-tratamendu bat eskaintzen dizugu, merkatuko teknika eraginkorrenak erabilita.

Silueta definitu
Bolumena txikitu
Zelulitisa hobetu
Ehuna sendotu

**% 15eko
deskontua**

Uztailaren 15a baino lehenago kontratatzen baduzu, intolerantzia-test bat oparituko dizugu, elikaduraren gaineko aholku personalizatuekin, eta etxerako mantenu-krema bat doan eramango duzu.

*Eskaintza baliagarria uztailaren 31 arte

LIRAIN
ESTETIKA ZENTROA



Udalako auto igoera antolatu gura du Arrasateko A+Gas taldeak, udazkenerako

- Garaian 'motorshow'-a antolatu beharrea auto igoera egitea erabaki dute; urrian izango da
- Babesleen laguntza eta baimenak lortu dituzte; Udalaren erantzunaren zain daude

XABIER URZELAI | ARRASATE

Arrasateko A+Gas motor taldea herrian motor-zaletasuna sustatzeko beste urrats bat egin guran dabil, eta aurten, *motorshow*-a antolatu beharrea –Markuleten eta Garaian egin dituzte azken edizioak–, auto igoera bat antolatzeko lanetan dabilta, Udala auzora, zehatzagoak izanda: "Lanak nahiko aurreratuta ditu-

gu, babesleen partetik uste baino erantzun hobea izan dugu, eta, nahiz eta laguntza guztiak zehaztuta ez ditugun, bide onetik goaz", adierazi du Asier Zubillagak.

Hala, babesleen arreta lortzeko orduan, aurreko *motorshow* edizioetatik antolatzaileek hartu-emana zuten babesleekin, eta horrek erraztu egin ditu lanak. Eta, federazioko baimena eskue-

tan, Arrasateko Udalaren erantzuna falta zaie antolatzaileei igoera errealitate bilakatu dadin.

Seguruenik, urriaren 29an

Euskadiko automobilismo federazioaren egutegian lasterketa noiz egingo duten dagoeneko zehaztuta dago, urriaren 29an: "Hasiara baten, egun hori zehaztu dugu, baina ez da definitiboa;

arazoren bat baldin badaukagu, posible da hurrengo egunera, urriaren 30era, atzeratzea".

Hori horrela, Udalako igoera Mendiko Sarirako puntuagarria izango da, eta horrek esan gura du turismoekin batera CM autoak eta barketak ere hartuko dituztela.

Bost txanda izango ditu

Arrasatetik Udalarainoko bidea laburra da, ez ditu hiru kilometro izango; hori horrela, eta nobedade moduan, lasterketak bost txanda izango ditu –lasterketek, normalean, hiru izaten dituzte–. Proba hasiera Gorostizan egingo lukete, Malvinetako etxeen parean: "Hiru txanda eginda lasterketa laburregia geratuko litzateke. Gainera, tramuren baten chicanea jarriko dugu, autoek larregiko abiadura har ez dezaten; izan ere, inguru horretan base-riak daude". Lasterketa errealitate bilakatzeko lanean jarraituko dute A+Gas taldekoek.



Joan den astean Udanako igoerako irudia, Mini-a lehen tramuan. | IMANOL SORIANO

ESANAK

"Motorshow'a egin beharrea Udalara auto igoera erabaki dugu, eta urri amaieran izango da"

"Erguindik Udalarako tartea motza da; horregatik, asmoa da proban bost txanda egitea"

"Babesleen erantzuna ona izan da, eta federazioaren baimena ere badaukagu"

ASIER ZUBILLAGA | A+GAS

Denboraldi borobila amaitu eta berria antolatzen hasteko bilera

Mondrak ohiko batzar orokorra egin du, eta iazko lana positiboki baloratu

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Lorpenez betetako denboraldia izan da 2015-2016 Mondra Futbol Taldekoentzat. Iaz igotzeko zorian geratu ondoren, aurten, ohorezko erregional mailan lehiatzeko txartela eskuratu du talde zuri-moreak.

Behin denboraldia amaituta, balantzea egin eta ilusioz betetako datorren denboraldia prestatzeko garaia da Mondrako zuzendaritza batzordearentzat. Horren harira, ohiko batzar orokorra egin zuten astelehenean Kulturaten.

Gizonezkoen lehen bi taldeek mailaz igotzea lortu ondoren, honako balorazio hau egin zuen Josu Etxebarriak, kirol arloko zuzendaria: "Urteko balorazioa egitean, benetan positiboa dela esan dezakegu. Lehen taldearen helburua mailaz igotzea zen eta hori lortu da. Eta gainera, bigarren talde bat ere sortu genuen. Hauen helburu nagusia mailaz igotzea ez bazen ere, lan oso ona egin dute eta mailaz igo dira. Beraz, dena primeran atera zaigu, eta, alde horretatik, oso pozik gaude".

Datorren urteko helburuak

Erregional preferente mailan lau urte egin ondoren, ohorezko erregional mailan jokatu du Mondrak datorren urtean. Denboraldi berri-rako helburuen inguruan galde-tuta, zera esan zuen Josu Etxebarriak: "Nik uste dut igoera bat dagoen bakoitzean egin beharra maila mantentzea izan behar dela. Kategoria berria da eta taldean jende gazte asko dago. Beraz, gizonezko lehen bi taldeen helburuak mailari eustea eta partidu guztietan lehiatzeko gai izango dira".

Bestalde, zuzendaritza batzordeak dei egin zuen batzarkide berriak egiteko. Roberto Zazo

idazkariak jende berria sartzearen beharra azpimarratu zuen: "Zuzendaritza batzordetik guraso, laguntzaile eta bazkide guztiei gurekin lan egiteko gonbita luzatzen diegu. Denen ekarpenak ongietorriak izango dira, eta ideia berriak behar ditugu".

Balantze ekonomikoa

Beste hainbat konturen artean, aurreko urteko eta datorren denboraldiko aurrekontuak izan zituzten hipzide.

Arlo ekonomikoa, 7.988 euroko defizitarekin itxi dute iazko urtea. Talde berri bat sortu izanak, lehen taldeak denboraldia luzatu izanak, ekipamendu berriak eta markagailu elektronikoa bezalako inbertsioek eragin dute sarrera baino gastu gehiagorekin amaitzea. Galera hori datorren urteko aurrekontuaren barne sartu eta 2016-2017 denboraldirako aurrekontua onartu zuten.

Horretaz gain, bazkideen kuota igotzea ere adostu zuten. Urte asko daramatzate kuota ukitu gabe, gastuek gora egin duten artean. Hori dela eta, %14ko igoera egitea onartu zuten. Hala, ohiko kuota 70 eurotik 80ra pasako da eta gazte, erretiratu eta langabeena, 35etik 40ra.

Amaitu da Ointxe!-k egin duen udako VI. campusa

Domekatik atzo arte 40 neska-mutiko aritu dira saskibaloia nontik norakoak ezagutzen

X.G. | ARRASATE

Seigarrenez antolatu du Ointxe! saskibaloia udako campusa. Zortzi eta hamabi urte arteko neska-mutikoei zuzendutako ikastaroa izan da, bost egun jarraian saskibaloian lehen urratsak emateko asmoarekin antolatzen dutena. Aurten, Josu Larreategi lehen taldeko prestatzailea eta Iker Barbero jokalaria aritu dira campusa zuzentzen.

Aurtengo campuserako 40 lagun inguruk eman dute izena. Goiz eta arratsalde aritu dira saskibaloiarekin lotutako ekintzak egiten. Goizean 10:00etatik 13:00ak arte eta arratsalde, 15:00etatik 18:00ak arte. Arratsaldeko saiorako indarrak hartzeko, Hilarion jatetxean bazkaltzeko aukera izan dute. "Normalean, goizean jolasak egiten ditugu berotzen joateko, eta arratsaldean saskibaloian zentratzen gara", azaldu du Barberok.

Ointxe!-rentzat campusak dira harrobia lantzen hasteko aukerarik onenak. "Ahalik eta haur gehien erakartzea eta hauekin lan egitea da gure helburua", adierazi du Iker Barberok.

Saskibaloia baino gehiago

Saskibaloiaz gain, beste kirol batzuk ere jorratuko dituzte, eta, bide batez, kirolak osasuntsu egoteko daukan garrantzia helaraziko diete partaideei.

Ingelesezko eskolak, eskulanak, berbaldiak, irteerak eta jolasak ere egin dituzte. "Aurtengo campusaren balorazioa oso positiboa da. Haurren iritzia jasotzea gustatzen zait, eta, nekatuta amaitu duten arren, oso gustura ibili direla esan digute", adierazi du Larreategik.

Campusaren fruituak

Aurten, Ointxe! taldeko infantil mailako neskek Gipuzkoako txapeldun eta Euskadiko txapeldunorde geratzea lortu dute, eta maila aparta eman dute estatuko talde gogorrenen aurka. Denboraldiaren balorazioa egiteko orduan, Iñaki Ogarak saski eskolan egindako lanaren fruitua dela adierazi zuen.

"Aurten, infantil taldean maila onena eman duten jokalariek campusean eta saski eskolan aritutakoak dira. Beraz, era honetako ekimenak klabeak dira klubaren etorkizunarentzat", esan du Larreategik.

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Saguzarrak, itsaspeko indusketa birsortzea eta bisita gidatua, Laboratoriumen eskutik

Maddi Mujikaren azalpenekin 'Loreak asmatzen' erakusketa ikusteko lehen aukera, gaur bertan

JULEN IRIONDO | BERGARA

Uztailaren 10era arte dago aukera Laboratoriumeko *Loreak Asmatzen*: naturzale europarrak Euskal Herrian erakusketa ikusteko. Azken txanpa honetan, baina, bisita Maddi Mujikak -Ingurumen Zientzietan graduatua- gidatuta egiteko aukera egongo da: euskaraz, gaur, egubakoitza, 19:00etan eta hilaren 10ean, domeka, 11:30ean; gaztelera, berriz, hilaren 9an, zapatua, 17:30ean. Bisitaren iraupena 45 minutu ingurukoa izango da

Erakusketak historia, zientzia eta artea ditu oinarri, eta XIX. mende erdian Euskal Herrian egokitu ziren bi landare zale atzeritar ardatz: bere herbarioarentzat landareak jasotzen jardun zuen Pietro Bubani italiarra eta Gipuzkoako florari eskainitako hiru album egin zituen Didier Petit de Meurville frantziarra, landareekiko maitasunari pinturarako zaletasuna batu ziona. Panel retroiluminatuek eta objektu orijinalak -Bergaran eta Arantzazun margotutako paisaia batzuk, besteak beste- dituzten bitrinek osatzen dute erakusketak. Bisita gidatuetarako ez dago aurrez izena eman beharrik.



Saguzarra arbolan. | WIKIPEDIA

Urpeko indusketa Agorrosinen Uluburun, itsasontzi hondoratua igerilekuan izeneko jarduera, berriz, 8 eta 12 urte arteko haurrei dago bideratuta, eta hilaren 6an, eguaztena, izango da, 17:30ean. 1984an George Bass arkeologoak eskura zituen bitarteko guztiak jarri zituen Turkiako kostaldean hondoratutako Uluburun itsasontziko -hondoratze antzinakoa, ezagutzen dela- ondarea azalertzeko. Hamar urte behar izan zituen horretarako, eta arkeologiaren mugari bihurtu zen bere lana. Lan hori erreproduzitzeko jarduera izango da Agorrosingoa; jolasaren bidez azterketa hartan

erabilitako metodologia zientifiko ezagutzeko aukera izango dute haurrek, dibulgazioa eta ikerketa uztartu ohi dituzten arkeologo profesionalen gidatuta.

Bertan parte hartzeko, laboratorium@bergara.eus helbidean edo 943-76 90 03 zenbakian eman behar da izena -dohainik-, eta ezinbestekoa da igerian jakitea; egunean, bainujantzia, gorroa eta toalla eraman beharko dira.

Saguzar gaua hilaren 8an

Hurrengo egubakoitzean, berriz, saguzarrak ezagutzeko irteera izango da. Publiko orokorrarentzat da hau ere -haurrek gura-

soekin joan beharko dute-. Museoa egin dute hitzordua, 21:00etan.

"Euskal Herrian 25 bat saguzar espezie desberdin bizi dela adituek baino ez dute jakiten. Gaueko bizimodua izanik, ugaztun hauek oso ezezagunak dira publiko orokorrarentzat. Jarduera honekin Bergara inguruko saguzarrak ezagutzen hasteko aukera izango dugu", diote museo-ko arduradunek.

Jarduerak bi zati izango ditu. Aurrena, adituen azalpenak jasoko dituzte museoan: saguzarrak zer diren eta nolakoak; zenbat saguzar espezie bizi den ingurutan; non bizi diren; nola ikertzen dituzten; nolako tresneriarekin...; "saguzarrak ultrasoinuen detektoreen bidez ikertzen dituzte sarritan, eta tresneria berezi hori ezagutzeko aukera izango da museoan". Ondoren, tresneria hori probatzeko aukera izango da, saguzarrak behatzeko ibiladitxo bat eginez eta saguzar espezie desberdinak detektatuz.

Museoak eta Pol-Polen Mendia Bizirik taldeak antolatutako jarduera da, eta bi ordu iraungo ditu gehienez. Dohainik da, baina izena ematea komeni da.

Berriz ere euskarara ohitzeko, Getariara

J.I. | BERGARA

Irailaren 1etik 4ra izango da Jardunek antolatutako Antxintxika irteera -izena orain eman behar da-. 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, eta Getariako Askizu auzoan izango da.

Irteeraren helburua da irailan eskolan hasi aurretik berriz ere euskaraz hitz egiteko ohitura eta erraztasuna hartzea. Horregatik, dei berezia egiten diete udan euskararekin harremanik izango ez duten neska-mutikoei edo harreman gutxi izango dutenei: "Baina hauei laguntzeko beharrezkoa da euskaraz ondo moldatzen direnek eta euskaraz jarduteko ohitura dutenek ere irteeran parte hartzea", azaldu dute Jardunetik.

Irteeraren prezioa Jarduneko bazkideentzat edo 2015/16 ikasturtean euskara errefortzuetan ibili direnentzat 80 euro izango da, eta gainontzekoentzat 85. Irteerara joan nahi dutenek uztailaren 15a izango dute izena emateko azken eguna.

Opari eta guzti, abian da Klikmetroak ekimena

KOMUNITATEA GOIENA
KILOMETROAK 2016

Kilometroak 2016ren sareko ekimenaren helburua da zirkuitu digitalari ahalik eta itzuli gehien egitea. Komertzio eta enpresek metroak babestuko dituzte, eta norbanakoek, berriz, metro horiek hartu, mezu eta argazki bana jarri. 300 saritik gora daude zirkuituan banatuta, metroak egiten dituzten artean banatzeko.

Labegaraietarako proposamenak, uztailaren 8ra arte

Prozesuko lehen bileran, biltegian txiki-park bat egitea edo kanpoko pistak estaltzea proposatu zen, adibidez. Edo-nork egin ditzake proposamenak, Udalaren webgunean edo Labegaraietako eta Agorrosingo tabernetan. Proposamenen bideragarritasunaren berri uztailaren 20ko bigarren bileran emango du Udalak.



lazko erromeria, San Martzialen. | GOIENA

San Martzialgo erromeriaren atariko, Orfeoiaren kontzertua

J.I. | BERGARA

Atzo, eguena, hasi ziren San Martzial egunarekin lotutako ospakizunak, eta bihar izango dute jarraipena. 18:30ean buruhandi eta erraldoien kalejira eta 20:00etan Orfeoiaren eta Orfeoi Gaztearen kontzertua izango dira.

Kontzertua Errekalde parkean izango da -eguraldi txarrarekin, Mariaren Lagundiko elizan-. "Oso parke politak daude Bergaran, eta pentsatu dugu paraje horiek aprobetxatzea", adierazi dute antolakuntzatik. Eguneko programa habanerekin osatua egongo da, hasieratik bukaerara: "Estilo hau oso ezaguna eta maitatua da Euskal Herrian", diote.

Pianoan Anabel Henao eta Eli Mendiaraz ariko dira, eta Nere Ibarra eta Ainara Uribealago, bakarlari.

Domeka

Domekarako, berriz, ohiko erromeria dago gertu. 09:30ean alborada hasi eta ordu erdira San Martzialerako igoerari ekingo da. Ohikoak ez dira faltako aurten ere: jolasak, herri kirolak, larrain dantza, aurraskua... Bertsolarien saioa ere izango da, Iñaki Murua eta Anjel Mari Peñagarikanorekin. Dantzarako doinuak, berriz, Laket taldeak jarriko ditu.

NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR



Inork nahi ez zuen Europa

Nire lagun Sabin Azua-ren artikulu bat irakurri dut, eta elkartasuna adierazten diot. Krisi ekonomiko nahikotxo bizi izatea tokatu zait; konprobatu ahal izan nuen 3an bukatzen ziren urte guztietan, arrazoi bategatik edo beste bategatik, ekonomiaren geldialdiren bat gertatzen zela: 73an, 83an, 93an... Egoera haietatik irtetea erraztuko ligukeen Europako Batasun bat amesten genuen orduan, baina, aldiz, historia-krisi ekonomiko handiena pairatu dugu, eta Europako Batasunean egoteak ez du askorako balio izan. Ezagutu dugun krisi ekonomiko larriena izan da, oraindik ez dugu gainditu, eta ondorioak hor daude.

Errefuxiatuen gaiarekin egindakoa kudeaketa negargarriaren beste adibide bat izan da. Agerikoa da Europa honek ez duela balio izan azken Mundu Gerra osteko herritar eta politikariek euren gogoan zituzten printzipioak eta balioak gauzatzeko eta indartzeko; eta hor sartzen ditut gureak: proiektuak ez du balio izan denok espero genuen ongizatea sortzeko. Estaturik gabeko nazioengano babesa eta errespetua ziren gure gurasoen beste helburu bat, eta argi dago horretarako ere ez duela balio izan.

Azkenik, hor dugu Erresuma Batua-ren Brexitaren gaia; gaizki ez badut oroitzen, Europaren eta Erresuma Batua-ren arteko eztabaida baten ondorioz sortu zen, eta kontua urrunegi joan da: hasieran gauza bat bultzatu zutenek, kontrakoa defendatu dute orain. Nahiago nuen Europako Batasunean jarraitu izan balute; ez al ditugu bihar edo etzi hartutako erabakiaren ondorioak pairatu beharko! Sabin, ni europarra naiz, zu bezala; uste dut proiektuak baduela etorkizuna, baina modu honetara ez, ezin ditugu gauzak horrela egin.

OHARRAK

ODOL EMATEA

Eguaztenean, 18:00etan, abulatioan.

BEHERAPEN AZOKA

Bedelkarren udako azoka, gaur eta bihar. Denda aurre-aterako dituzte produktuak.

DOMIKA AZOKA

Hilaren 10ean da. Parte hartzeko, Udalaren webgunean egin daiteke eskaera.

Alde zaharra biziberritzeko EAJren mozio alternatiboak egin du aurrera

Amiantoaren mapa osatzeko irabaziren proposamena ez zen onartu

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Ekaineko ohiko osoko bilkuran EH Bilduk eta Irabazik hiruna mozio aurkeztu dituzte. Amiantoaren mapa egiteko eskaerak eta alde zaharra biziberritzearen gaiak eztabaida ekarri dute.

Azken hori EH Bilduren eskuetik etorri zen. Eskatu zuten lan mahai bat osatzea eta sei hilabete epean plan bat osatzea.

EAJk mozio alternatibo bat aurkeztu zuen, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zena. Bertan gogora ekartzen dira erdigune historikoaren errehabilitaziorako 2013ko plan berezia eta 2009ko plan orokorra. Mozioak jasotzen du plan horiei jarraipena eman eta gunean jardura gehiago aurrera eroatea.

EH Bilduko Agurte Barrusok dio mozio alternatiboak ez duela "EH Bilduren nahia" betetzen, eta



Ekaineko ohiko osoko bilkura, astelehenean. | M.T.

gaia zehaztasunez lantzeari "izkin egiteko" modua dela dio.

Amiantoaren mapa

Irabazik amiantoaren mapa bat osatzeko mozioa aurkeztu zuen, material hori daukaten eraikinak jasoko dituen eta amiantoak

sorrarazten dituen gaitzekin kalteetako pertsona laguntza ematea helburu duena. Proposamenak ez zuen aurrera egin, EAJk eta PSE-EEK aurka bozkatu zutelako.

Beste bi mozio aurkeztu zituen Irabazik. Bata, Yesako urtegiaren aurkako militanteak, "Yesako

zortziak" izenez ezagunak, errugabetzat jotzea aldarrikatzen zena; bestea, berriz, Andaluziako Langileen Sindikatuko kide Andres Bodaloren indultua eskatzen zena. Bietan, udal gobernuak abstentzioaren alde egin zuen, argudiatuz gaiak ez direla udalbatza- ren eskumenekoak.

'Fracking'-a, 'Mandela arauak' EH Bilduk *fracking*-ari buruz idatzitako mozioa aho batez onartu zen. Espainiako Gobernuari Eusko Jaurlaritzaren *fracking*-aren aurkako legeari jarritako helegitea kentzeko eskatzen du.

Bestalde, presoek eskubideak bermatzeko *Mandela arauak* izenez ezagun diren neurriekin bat egitea onartu zuen udalbatzak, aldeko 15 botorekin eta PSE-EEren abstentzioarekin.

Buruño industrialdea

Udalbatzak onartu zuen Mekolaldeko zubi zaharretik Lazpiurrera bitarteko bosgarren sektoreko industrialdea Buruño izendatzea. Gune horretan sortuko den kale berriari Ibetondoa izena jartzea ere onartu zen.

Bizikleta bidea mintzagai Uberako parte hartze bileran

M.T. | BERGARA

Joan den astean San Juan auzoan egin bezala, eguaztanean Udalak antolatutako parte hartze bilera egin zuten Uberan. Hamar uberar izan ziren batzarrean, eta hainbat gai jorratu zituzten; tartean, auzoa Bergarako herrigunearrekin lotuko lukeen bizikleta eta oinezkoen bidearena.

Hain zuzen, gai hori San Juaneko batzarrean ere atera zen. Auzokideek Ubera, San Juan eta Bergara, hirurak lotuko dituen bizikleta eta oinezkoen bidea eskatzen dute, errepidetik kanpo segurtasunez ibiltzeko. Nagore Narbaiza udaleko parte hartze teknikariak azaldu duenez.

Garraio publikoa

Irisgarritasuna ere izan zuten mintzagai uberarrek. Gaur egun herribusa iristen da Uberara, baina, geltokia plazan duenez, baserrietan bizi diren pertsona nagusiek zailtasunak izaten dituzte etxera joateko. Hori dela eta, auzo taxi zerbitzua jartzea proposatu zuten.

Bestalde, auzoan Maisuaren etxea izenez ezagutzen dena egoera kaxkarrean dagoela aipatu zuten uberarrek, Narbaizak azaldu duenez. Egun, hutsik dago, eta aipatu zuten norbait bertan bizitzeko hobeto zainduko lukeela.

Plaza ingurua txukuntzea eta biltzeko leku bat egokitzea ere proposatu zuten.

Bederatzi botogatik, EAJ indar nagusi

M.T. | BERGARA

Abenduko aldatuz, oraingoan EAJ alderdiak lortu ditu boto

gehien domekan egindako Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan Bergaran (28,68). EH Bil-

duri (%28,57) bederatzi botoko aldea atera diote jeltzaleek. Hirugarren indarra Elkarrekin Ahal

Dugu koalizioa izan da (%27,26).

Hirurek botoak galdu dituzte abenduko hauteskundeetako emaitzekin alderatuz gero. Zehazki, EAJk 166 boto gutxiago eskuratu ditu eta EH Bilduk, berriz, 229. Elkarrekin Ahal Dugu koalizioak abenduan bananduta aurkeztu ziren Ahal Dugu eta Unidad Popular-Orain Aldaketak lortutako botoen batura baino hiru boto gutxiago eskuratu ditu.

Parte hartzea

Boto-emaileak guztira 7.954 izan dira; abstenitu egin dira, berriz, 3.638 herritar. Bestela esanda, abstentzioa %31,38koa izan da herrian. Baliogabeak 40 izan dira eta boto zuriak, berriz, 45.

BERGARAKO EMAITZAK AUZOZ AUZO

	EAJ	EH BILDU	ELKARREKIN AHAL DUGU	PSOE	PP	CIUDADANOS
Frontoia	1.265	1.152	1.005	283	174	48
Matxiategi	501	526	533	216	105	21
Osintxu	64	87	70	20	5	1
Martoko	312	273	423	75	61	14
Labegaraieta	128	223	146	29	6	3
GUZTIRA	2.270	2.261	2.177	702	351	87

ITURRIA: EAJ ETA EH BILDU

Haurrentzako 'Marie' antzezlana azokan

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

M.T. | BERGARA

Apar festa izan da asteon Oxirondo plazan, eguazteneko azokaren bueltan. Zerua lainotuta egonda ere, umeak primeran pasa zuten bainujantzia soinean bits artean jolastan.

'Marie' antzezlana

Datorren eguazteneko azoka ekintzaz inoiz baino beteago dator. Batetik, Marie de Jongh antzerki taldearen *Marie* antzezlana izango da, umei zuzendua. 19:00etan izango da, eguraldi ona bada, Oxirondo plazan.



Txikiak primeran ibili ziren eguazteneko apar festan. | M.T.

Balkoi lehiaketa

Bestalde, balkoiak lore eta landareekin apaintzeko hirugarren lehiaketako irabazleei sariak banatuko zaizkie azokan bertan, 19:00etan. Lehenengo saria 400 euro izango da, herriko dendetan gastatzeko bonutan; bigarrena, berriz, 200 euro.

Baserritarren azoka

Bi hitzordu horietaz gain, beti bezala, herriko baserritarrek izango dira azokan, beraien postuetan tokiko eta garaiko produktuak saltzen.

Horrez gain, pintxo-potea ere izango da, Kortazar tabernak eskainia, oraingo honetan.

Udal Pilotalekuko taberna ustiatzeko plegua kalean da

Tabernaren ustiaketa eta instalazioen kontrolerako deialdi publikoa kaleratu dute. Kontratuak lau urteko iraupena izango du, eta beste bi urtez luzatzeko aukera egongo da. Lizitazio oinarria 6.000 euro gehi BEZa da (%21). Pleguak eta informazioa Agorrosin kirolgunean eskura daitezke.

Interneteko erremintei probetxua ateratzeko 'on line' ikastaroak

Pinterest, Twitter, Dropbox edota Wordpress erabiltzen ikasteko *on line* ikastaroak eskainiko ditu KZgunea uztailearen 11tik aurrera. Parte hartzeko, www.kzgunea.eus webgunean eman beharko da izena. Lehenengo hirurak lau ordukoak izango dira eta Wordpressena, berriz, 20koa.

El Twanguero: rock-and-rollaren eta erritmo hispanoamerikarren arteko nahasketa

- ▶ Gaur hasiko da Berumuga, bi 'Latin Grammy' dituen artista valentziarraren emanaldiarekin
- ▶ Musikari handiekin jo eta grabatutakoa da, eta askoren ustez, munduko gitarra-jole onenetakoa

JULEN IRIONDO | BERGARA

Gaur gauean, 22:00etan Espoioan, emango zaio hasiera aurtengo Berumuga zikloari; El Twanguero valentziarraren emanaldiarekin izango da. Agertoki latindarrean artista handienetakoa da Diego Garcia. Bere estiloa oso ezagun bihurtu da nazioartean, espainiar gitarraren, amerikar folkaren, flamenkoaren eta tangoaren artean dabilen twang soinu bereziagatik eta *fingerpicking* delakoa –gitarra bakarka jotzeko teknika, erritmoa eta melodia batera ateratzeko– ezin hobeto menderatzeagatik. Bost disko argitaratu ditu orain arte, eta sari asko irabazi ere bai; tartean, bi *Latin Grammy*.

Andres Calamaro, Santiago Auseron, Diego El Cigala, Juanes, Wyclef Jean, Jaime Urrutia, Fito Paez, Enrique Bunbury, Ely Guerra, Raphael, Camilo Sesto, Jose Maria Cano, Yerbabuena, Adriana Varela eta Diego Torres bezalako artistekin jo eta grabatu eta hamaika ekoizpen lanetan esku hartu du Espainiako, Argentinako, Ameriketako Estatu Batuetako eta Mexikoko telebistetarako, eta zinemarako eta irratirako jatorrizko soinu bandetan ere.

Askoren arabera, munduko gitarra jotzaile onenetakoa, era guztietako ikus-entzuleak biltzen ditu El Twanguerok, bai gitarra zale porrokatuak eta baita erritmo eta jostaketa zaleak ere.



Diego Garcia, El Twanguero. | EL TWANGUERO

Tourreko porra, domekako 14:00ak arte

J.I. | BERGARA

Lokatza Ziklismo Eskolaren Tourreko porrarako orriak ohiko lekuetan jaso eta entregatu daitezke, apustu bakoitzeko 20 euro ordainduaz. Azken aukerak bihar –eguerdian eta arratsaldean, Iralan– eta domekan –San Martzialen, 14:00ak arte– izango dira. San Martzialen parte hartzen dutenen artean Lamaino landetxean gau bat zozkatuko da. Arranon bihar 21:00ak arte eta Usoan etzi 14:00ak arte ere jasoko dituzte.

Lehen hamarrek izango dute saria, batutako diruaren %30etik %1era. Horrez gain, sari banaketa egunean herriko komertzioek emandako 25 sari zozkatuko dituzte, eta Mikel Landaren maillota



Errioxarako irteeran parte hartu zutenak. | BKE

Urteko batzar nagusia egingo du Bergara Kirol Elkarteak egunean

J.I. | BERGARA

Egueneko batzarra Irizar jauregian izango da, 18:30ean lehen deialdia eta 19:00etan bigarrena. Gai-zerrenda osatzen dutenen artean daude: kirol sailen txostena –sail bakoitzak urtea nola joan den azalduko du–; txosten ekonomikoa; eta datorren denboraldirako aurrekontua eta kuotak, besteak beste.

Futbolekoak Errioxan

Erregionaleko eta Lehen Erregionaleko taldeek Errioxara egin dute denboraldi amaierako irteera, zuzendaritzako kide batzuekin batera. "Jaiegun borobila" igaro zuten. Briñasen hamarretakoa eta pilota partiduak izan zituzten; ondoren, Logroñon, txikiteoa, eta upategi batera joan ziren gero bazkaltzera.

Udako txapelketa azken kanporaketetan sartua da dagoeneko

Gaur, mutilen final-laurdenak: HIS-TCC (19:00) eta Betijai-Ezdakiu (20:00). Kopako finalerdia, berriz, hilaren 6an: San Lokal-Minavo (18:30) eta Langostas-Birgerias (19:45). Nesketan, bigarren finalista erabakitzeko partidua, astelehenean (19:00): Rita-Salabarduak. Beteranoetan, final-laurdenak hilaren 5ean: bi partidu 19:00etan eta beste bi 20:00etan.

LABEGARAIETA

EMAITZAK

HIS-Errefuxa (penaltietan)	4-4
Estrella Coja-Birgerias	8-6
Birgerias-SVC	5-2
Estrella Coja-Vodka Juniors	7-5

KOPAREN AMAIERA

Uztailak 2, zapatua	
15:30	Arrano Zabalk-Komando Pi perak (America)
16:30	River City-America (Arrano Zabalk)
17:30	Final 1/2: bi irabazleak (Errefuxa)
18:30	Final 1/2: E. Coja-Errefuxa (irabazlea)
19:30	Finala
20:00	D taldeko irabazleak

Urretxindorrek: omenaldirako eta afarirako txartelak

Taldearen 50. urtemuga dela eta hilaren 9an egingo den omenaldirako sarrerak www.kutxabank.es eta www.pikupe.com helbideetan eskura daitezke, eta Pikuperen bulegoan ere bai, 5 eurotan –geratzen badira, leihatilan, ordubete lehenagotik–. Afarirako txartelak, berriz, Pol-Polen eta Pikupen daude, 15 eurotan.

Gil eta Pereira nagusi Udaberrikoan

Legazpin jokaturako finalekin amaitu zen Udaberriko txapelketa, eta, alebinetan, Iker Gilek eta Andoni Pereirak 16-15 irabazi zieten Asteasukoei. Finalean ez, baina txapelketan Oihan Etxeberria ere aritu da.



disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53



BELAITZ

- Fitosanitarioak
- Landareak
- Erremintak
- Pentsuak

Aparkatzeko leku zabala!

NEKAZARITZA ETA INDUSTRIA HORNIGAIK
SORALUZE Mendiola Industrialdea www.belaitz.com 943 75 18 81

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Sergio Gil eta Sergio Lopez oñatiarrak. | GOIENA

Anbulantzian joango dira Mongoliaraino Sergio Gil eta Sergio Lopez oñatiarrak

- ▶ Urritasunak dituzten umeen eskola bateko arduradunei emango diete
- ▶ Uztailaren 23an aterako dira eta hilabete iraungo du elkartasun bidaiak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Behin baino gehiagotan bidaiatu dute elkarrekin Sergio Gil eta Sergio Lopez oñatiarrek eta duela bi urte Marokora egindako bidaiaren pentsatu zuten bidaiak luze bat egin behar zutela. Bien lanbideak eta egutegiak tarteko, aurtengo udan egingo dute.

Bidaia luzea izango zela bai, baina elkartasun oporrak izango zirela ere argi zuten biek. "Nepalera joatea pentsatu genuen hasieran, baina urrutiegi zegoen guretako. Hala, Interneten begira hasi ginen eta Durangoko La Otra Mirada gobernuz kanpoko erakundeak Mongolian duen proiektu bat ikusi eta gustatu zitzaigun. Eta horrela hasi ginen Mongolia Helburu proiektua antolatzen", dio, irribarrez, Sergio Gilek.

tu bat ikusi eta gustatu zitzaigun. Eta horrela hasi ginen Mongolia Helburu proiektua antolatzen", dio, irribarrez, Sergio Gilek.

25 ume

"Urritasunak dituzten umeak ez dituzte eskolara eramaten han, eta elkarte honek ospitale zahar

bat konpondu eta egokitu zuen ume horiek hartzeko", azaldu du Sergio Gilek.

Eskola zabalik dago, baina behar handiak dituzte, eta horretan laguntzeko bidaia izango da Gilek eta Lopezek egingo dutena. "Ume horiek makuluak behar dituzte, gurpil aulkiak eta ibiltzen laguntzeko barra asimetrikoak, adibidez. Eguneroko bizimoduan lagungarri izango zaizkien tresnak eramatea da gure asmoa, eta horiek lortzen ari gara biok", dio Gilek. Eta pozik daude orain arteko lanarekin. Anbulantzia bat ere lortu dute. "Legez, ibilgailu horiek ezin dute ohiko zerbitzua eman behin hamar urte pasata, eta, duela hilabete inguru, hamar urte bete dituen ambulantzia bat lortu dugu. Urnietako Ambulancias Gipuzkoa enpresak eman digu eta oso pozik gaude".

Oñatitik Ulan Bator-erako bidaia ambulantzia batean egingo dute bi oñatiarrek eta ibilgailu hori gidatu ahal izateko paperak egiten ibili dira azken egunetan Gipuzkoako Trafiko Zuzendaritzan. "Horrelako ibilgailuek normalean izaten dituzten tresna guztiak ere eramango ditugu, baita ohatila ere. Mongoliako hiriburutik, Ulan Batortik, 40 kilometrora dagoen Nalaikin herrian dago eskola, eta hango arduradunei utziko diegu, beste tresna guztiak batera. Hegazkinean egingo dugu etxerako bidaia", argitu du Sergio Gilek.

Berogailua

Egun, berogailurik ez dute Mongoliako eskola horretan, eta berokuntza sistema bat jartzeko laguntzea ere bada Gilen eta Lopezen asmoa. Diruarekin lagunduko dute horretan. www.destinomongolia.com atarian [crowdfunder](http://www.crowdfunder.com) bat zuten eta gaur amaitu da. Hala ere, atzo iritsi ziren zehaz-

tutako kantitatek. "Eskumutur-rekoak, kamisetak eta pegatinak ere baditugu salgai, dirua lortzeko. Horrez gain, enpresa eta erakunde ezberdinekin jarri gara harremanetan, publizitatearen truke diru sarrera bat izateko. Batutakoa eskolan beroa izan dezaten galdara bat erosteko eta kolokatzeko erabiliko da, eta proiektu horren ardura dutenen kideei emango diegu. Egun, 25 ume daude eskola horretan, baina 100era iristeko obrak ere egin gura dituzte, eta horretarako ere erabiliko dute batutakoa. Oso eskertuta gaude bai tresnak bai dirua eman dizkigutenei", argitu du Sergio Gilek.

11.000 kilometro

Uztailaren 23an aterako dira Oñatitik. Gil bakarrik abiatuko da eta Lopez jasoko du bidean, Baqueira Beret ondoko herri batean bizi baita, Vielhan. 11.000 kilometroko bidaia egingo dute eta hamaika herrialde ezberdinetatik igaroko dira, Europa osoa zeharkatuta. "Asmoa da eguneko 800 kilometro inguru egitea. Baina hori aldatu daiteke, ez dakigu Europatik kanpo zer-nolako errepideak dauden eta. Moskun egun bateko atsedena hartuko dugu, hiria ezagutzeko, eta Kazakhs-tan-en beste bat. Asmoa da helmugara abuztuaren 19an iristea eta 24ra arte ingurua ikusten eta hangoekin berba egiten eta proiektua gertutik ezagutzen ibiltzea".

Kanpin-denda eramango dute lo egiteko eta tarteka ostatu edo norbanakoen etxeetan pasako dute gaua, "dutxatu eta hobeto atsedean hartzeko". Sare sozialen bitartez bidaiaren jarraipena egin gura dute. Euren logean idatziko dituzte eguneroko pasadizoak eta argazkiak ere zintzilikatuko dituzte. Twitterren (@DestinoMng) eta Facebooken ere ireki dute kontua.



Mendiko arropa erosoan eramatea aholkatu dute antolatzaileek. | DONOSTIA 2016

Donostia 2016 Bidea Oñatira helduko da uztailaren 17an

Arantzazu-Otzaurte etapa egingo dute eta hiru autobus antolatu dituzte ibilaldira joateko

O.E. | OÑATI

Donostia 2016 egitasmoaren barruan Gipuzkoari itzulia egiten dion ibilbideen mapa egin dute Bidea izeneko programan. Hala, 32 etapa zehaztu dituzte eta 17.a Oñatira helduko da.

Etapa guztiak domeketan egingo dira eta Oñatikoa ere horrela izango da. Arantzazu eta Otzaurte arteko Erdi Aroko bideak hamazazpi kilometro ditu, eta zailtasun ertaina. 09:30ean elkartuko dira Arantzazuko santutegian.

Urbia aldera joan aurretik, baina, meteorologiari eta artzaintzari buruzko hitzaldiak egingo dituzte fraideek Gomiztegiako Artzain Eskolan. Ondoren, 10:00etan, abiatuko dira Arantzazutik Urbia. 12:00etan, Mikel Etxezarreta eta Eli Arrillaga artzainek artzaintzako eta gaztagintzako erakustaldia egingo dute eta Urbiako zelaietatik aurrera eginda, San Adriango pasabideraino joango dira. Han, Erdi Aroko antzezpina egingo du Urrup antzerki taldeak. 15:15ean Otzaurterako bidea hartuko dute eta 17:00etan, musika emanaldia egingo du Zegamako Orkatz abesbatzak Otzaurteko ermitan.

Autobusak

Bidea egiteko hiru autobus antolatu dituzte. Bi Donostiatik irten go dira eta hirugarrena Oñatitik Arantzazura joango da; 09:00etan aterako da postetxe aurretik. Izen-ematea internet bidez edo Oñatiko Turismo Bulegora joanda egin daiteke; izen-abizenak eta nortasun agiri zenbakia eman behar dira horretarako. Irteeraren prezioa da zazpi euro, joan-etorriko autobusa barne.

NIRE USTEZ

MARINA ETXEGOIEN

Babel

aster teknologiak gailu berri bat eskainiko digu, irailerako aurreikusten dituzte lehenengo salmentak. 115 eurotan, iraultzailea izan daiteke. Belarrian sartu ahala, aplikazio baten bitartez, gailu honek ulertzen ez ditugun hizkuntzak itzuliko ditu bat-batean, Interneten beharrik gabe. Hitz egiten ari diren bi pertsonen eraman beharko dute gailua, hori besterik ez. Momentuz, lau hizkuntzatan funtzionatuko du: frantsesez, ingelesez, italieraz eta gaztelerez.

Teknologiak abantaila handiak ekarri ditu eta gehiago ekarriko ditu, baina, batzuetan, beldurra ere sorrarazten du. Mugikorrek sortu zirenetik, ez dakigu buruz telefono zenbaki

bakarra ere, Facebook-ek abiatzen digu gure lagunaren urtebetetzea dela, eta, zalantzaren bat dugunean, buruari bueltak eman barik, hor dago Google, ez duguna gogoratzen gogorazteko. Orain, berriz, zertarako ikasiko ditugu hizkuntzak, itzultzailea belarrian badugu?

Erosotasuna eta abantailak alde batera utzita, nahikoa izango dugu jaiotzez jasotzen dugun ama hizkuntzarekin? Eta, oso urruti joan gabe, zer gertatuko da hizkuntza bat irakasteko eta mintzatzeko egiten diren ahalegin guztiak? Agian, beste hizkuntza bat ikastea bitxikeria hutsa bilakatuko da denbora gutxi barru eta Babelgo eleaniztun mundu ederrean bizi garelako ahaztuko zaigu.

"Teknologiak abantailak bai, baina beldurra ere sortzen du"

Udalak zenbait auzo-bide konponduko ditu udan

Konpontze lanak uztailean hasiko dituzte eta hilabete eta erdi iraungo dute

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Oñatiko Udalak herriko zenbait auzo-bide konponduko ditu uda honetan. Uztailean zehar hasiko dituzte konpontze lan hauek eta hilabete eta erdi iraungo dute. Hala adierazi du Aitor Gerena-barrenak, landa garapeneko udal teknikariak.

Udal titularitatea duten hainbat auzo-bidetan konponketa, hobetze eta asfaltatze lanak egitea aurreikusten du Udalak. Egoera txarrean edo konpontzeko premian dauden errepideen zerrenda osatu zen lehenengo, eta, behin zerrenda osatuta, Udalak Sestra Ingeniaritza eta Arkitectura SL enpresari eskatu zion proiektu bat aurkezteko. Proiektu honetan, auzo-bide bakoitzean ze konponketa egin behar diren zehazten da, eta, horretan oinarrituz, lanak esleitzeko iragarkia kaleratu zuen Udalak. Hala ere, oraindik esleitu gabe daude.



San Julianeko auzo-bidea, konponduko dutenetako bat. | ENEKO AZURMENDI

Hauek dira konponduko dituzten bideak: Koiskar, San Julian, Baltzola eta Errotatxo baserrietara doan bidea eta Sarramendi eskola zaharra zenera doan bidea. Gainera, Albitxuri eta Etxa-

txo-Santuera doazen bideak eta Jaturabeko mini-gunearen inguruko zabalgunea asfaltatu egingo dira. Aramaixuena eta Leibar arteko eta Arrikruz eta Kortarako bideak hobetuko dituzte.

Jaiak ospatuko dituzte Torreazon eta Zubillagan

Gaur hasi eta domekara bitartean, mota guztietako ekintzak egongo dira bi auzoetan

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Torreazon bihar goizean hasiko dituzte jaiak, etxafuego jaurtiketarekin. 11:00etan, kalejira egingo dute baserri baserri, trikitilariak lagunduta, eta ondoren, auzoko txikiteoa egongo da. Arratsaldean, mus txapelketa izango da, 16:30ean. Gaztetxoztat, berriz, Kulki taldearekin, baserriko jolasak. Gero, txokolatea eta gozokiak banatuko zaizkie bertaratutakoek, Trikimailu taldearen musika emanaldiarekin batera.

Domekan, krosa egongo da, 11:00etan. 12:30ean, meza nagusia izango da, auzoko ermitan, eta ondoren, luntxa, herriko dantzari, trikitilari eta bertolariarekin. 14:30ean, auzo bazkaria izango da Etxe Aundin, Miren Errasti eta Maddalen Arzallus trikitilariak alaiturik.

Zubillagan, berriz, gaur 19:00etan *Pello* basurdearen jaitziera izango da eta gero,

auzo barbakoa egingo dute. 20:30ean, nagusiendako toka txapelketa izango da eta 22:00etan, Umore Gaua.

Bihar, 11:30ean, haur jokoak izango dira. 13:00etan, berriz, gazteen toka txapelketa. 16:30ean, Haur Happy festa izango da eta 17:00etan, mus txapelketa. Ondoren, 18:30ean, txorimaloak eta txokolate-jana. Bukatzean, DJ Amaiaren emanaldia, Gauargi taldearekin eta mozorro lehiaketa. Afalostean, emanaldiaren jarraipena eta mozorro lehiaketako sari-banaketa.

Domekan, 11:00etan, meza egingo dute eta ondoren, jubilatuekiko luntxa. 12:45ean Pedro Irizar auzotarrari omenaldia egingo diote, 100 urte bete dituelako aurten. Gero, Gazteen Pilota Txapelketako finalak jokatu dira. 17:00etan, txorimaloak egongo dira eta ondoren, zinta lasterketa. 21:00etan, basurdeari agurra.

EH Bilduk eskuratu ditu boto gehien, baina EAJ oso gertu dauka

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

EH Bilduk segitzen du Oñatin lehen indarra izaten, EAJ eta Elkarrekin Ahal Dugu atzetik dituela. Hala ere, nabarmena da abenduko datuekiko izan duen boto galera. Hona zenbakiak: EH Bildu: 1.971 (%33,66); EAJ: 1.899 (%32,43); Elkarrekin-Ahal Dugu: 1.296 (%22,13); eta ondoren, boto alde handia-

goarekin datoz sozialistak: 370 botorekin (%6,32). PPK emaitza berbera atera du: 215 (%3,67).

Botoak hauteslekuka

Bost hautesleku izan dira, betiko moduan. Hala ere, ikastolan konpontze lanak egiten ari direla eta, haren ordezkari kiroldegiko kantxa izan da bozkaleku bat aurten.

BOTO KOPURUA BOZKALEKUETAN

	EAJ	EH BILDU	ELKARREKIN AHAL DUGU	PSOE	PP	CIUDADANOS
Kiroldegia	851	772	506	138	76	18
Elkar Hezi	405	422	220	42	36	5
Errekalde	179	190	108	63	46	4
Txiki-Txoko	254	404	332	72	31	5
Olakuako dorrea	210	183	130	55	26	4
GUZTIRA	1899	1971	1296	370	215	36

ITURRIA: GOIENA



Ana Griott, udal liburutegian. | JOKIN BEREZIARTUA

Ana Griott ipuin kontalariak Senegalgo hezkuntza proiektu bat lagunduko du

E.A. | OÑATI

El dragón que se comió el sol liburua aurkeztu zuen martitzenean kultura etxeko liburutegian.

Liburuak 33 ipuin jaso ditu eta ilustrazioez Casamanceko umeak arduratu dira. Hala, liburuaren salmenten %10 Senegalgo Casamance Beheko proiektura bideratuko da. Casamance Beheko Oussouye zonako

erregearen semea –Aristide– liburuaren aurkezpenaren egon zen. Oñatin Afana izenez da ezaguna eta 2007a ezkerer bizi da bertan.

Erregea bera ezin da bere herritik irten, eta, beraz, ezin izan zen liburua aurkeztera etorri. Hala ere, Griott pozik dago haren semeetako batek liburu berezi horren aurkezpenan hartu duelako parte.

Parrokia aurrean kontzertua eskainiko du Ganbarak, 22:00etan

E.A. | OÑATI

Kalean egitarauaren barruan, Ganbara abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur parrokia aurrean. Udako Gauak izeneko kontzertuaren laugarren edizioa izango da. Lazarragako lorategian

eta Bidaurretan ere eman izan dute kontzertua. 20ko eta 30eko hamarkadetako euskal konpositoreen lanak kantatuko dituzte.

Horrez gain, uztailearen 12an Arantzazun eskainiko dute kontzertua, D2016 egitasmoaren bai-

tako D2016 bidea bertara iristen dela baliatuta.

Bestalde, uztailearen 6an, eguaztena, Habanako D'Capricho duo musikaren kontzertua egongo da Lazarragako lorategian, 19:00etan.

Oñatiko Udala, LGTBI egunarekin bat


Ekainaren 28, martitzena, Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna aldarrikatu zuten eta Oñatiko Udalak elkartasuna adierazi zion LGTBI kolektiboari. Horrez gain, herriko hainbat zebra-bide ostadar kolorez margotuta azaldu ziren egun hartan.



OÑATIKO UDALA ETA ARANTZAZU EZKIBEL

AGURRA

LIERNI ALTUNA
Aramaioko alkatea



Aramaioxoko jaixek!

Aurten be heldu dira gure herriko jaiak. Egitarau opar bat prestatu dugu jai batzordean. Parte hartu dutenei eskerrak eman nahi nizkieke lehenik eta behin eta baita mailez eta kalean beraien iradokizun eta proposamenak egin dituztenei ere. Norbanakoei eta herriko taldeei esker egitarau oparo eta herrikoia dugu! Bereziki aipatu nahi nituzke larunbateko kontzertuak antolatatu dituztenak, Iban Elejalderi omenaldi ederra prestatu diete Xementerio taldekoek eta lagun askok. Herriko plazan aukera bikaina izango dugu Iboni omenaldia eginez, gau polita pasatzeko.

Behin hau esanda aramaioar denei jai zoriontsuak opa eta etorri nahi duzuen denoi gonbidatzea gustatuko litzaidake. Aramaioar denok etxean jaso duzue egitaraua eta denontzako ekintzak antolatzaren ahalegindu gara, beraz ahal eta nahi duzuen denok hauetan parte hartzera gonbidatzen zaituztet. Lanagatik edo osasunagatik edo edozein arrazoigatik nahi eta etorri ezin duzuenoi besarkada bero bat.

Eta bukatzeko eskaera bat, zaindu gaitezen elkarriz eta zaindu dezagun gure herria jaietan ere. Ez ditugu inoren askatasuna zapalduko duen jarrerarik herrian nahi, denok pertsonak gara eta denon ardura da guztion askatasuna bermatzea! Kalea eta gaua emakumeona ere badelako!

Jaietako egitaraua

BARIKUA

01

- 19:00** Txupinazoa eta pregoia.
- 19:05** Trikiti eskolakoekin kalejira
- 19:05** Herriko txistulariekin kalejira.
- 20:00** Txosnak zabalduko dira.
- 20:00-21:30** eta **23:30-01:30** Erromeria plazan: Oharkabe.
- 00:00** Kontzertuak txosnetan: Etsaiak, Eratu eta DJ Loro.

ZAPATUA

02

- 12:00** Umeendako egurrezko jolasak plazan: Kalaka.
- 12:30** Patata-tortilla txapelketa.
- 12:30** Txaranga herrian zehar.
- 12:30** Sozietateen arteko pikea eta pintxoaren salmenta plazan.
- 16:00** Hockey partiduak frontoian.

- 16:30** Briska eta mus txapelketa jubilatuen lokalean.
- 17:00** Plater tiro txapelketa.
- 17:00** Aramaioko Maledantza flamenko emanaldia txosnetan.
- 18:00** Kontzertuak txosnetan:
- 19:00** Irrintzi txapelketa plazan Aramaioko albokariekin.
- 20:00-21:30** eta **23:30-01:30** Erromeria plazan: Gau Alai taldea.
- 00:00** Kontzertuak plazan, Iban Elejalderen omenez: Libertad Condicional, El Exterminio de la Raza del Mono, Zarzamora, Xementerioren Lagunak eta Xementerio.
- 06:00** Makro twisterra txosnetan.

DOMEKA

03

- 11:00** Diana herriko txistulariekin.
- 12:00** Meza Bizente Goikoetxea abesbatzak lagunduta.

- 13:00** Herriko dantzarien emanaldia.
- 16:30** Jolas parkea parkean.
- 18:00** Herri kirolak plazan.
- 18:30** Punk a capella poteoa.
- 20:00** Dantza plaza emanaldia plazan, eta Eusko Label pintxoak -hanburgesak-.
- 21:00** 'Zuk in, zuk jan' afaria txosnetan
- 23:00** Eskaileretako emanaldia: 'Erdaldun berrien kluba'.
- Ostean** Aramaioko jaietako film laburren lehiaketa txosnetan.
- Ostean** Berbapasi txosnetan.

ASTELEHENA

04

- 11:00** Ume jolasak parkean.
- 13:00** Umeendako antzerkia plazan.
- 13:00** Kantu Jira plazan.
- 16:00** Kuadrillen arteko pikea.
- 19:00** Arrasate Musikalen emanaldia kultura etxean.
- 21:30** Herri afaria plazan. Ondoren, Ttek! elektrotxaranga.
- 01:00** DJ gaua. Ondoren, Urrezko Gibelaren Sari banaketa.

ZAPATUA

09

- 08:30** Arrantza txapelketa Kanpezun.
- 10:30** Pilota partiduak kiroldegian: -Aramaioko Pelota Elkarte-.



Iazko San Martin jaietan, mutikoa surf taulara igota. | IMANOL SORIANO

SAN MARTIN JAIK 2016 ARAMAIO

"Aramaio Udalak jai zoriontsuak opa dizkie aramaioarrei, eta nahi duten guztiei jaietara hurbiltzeko gonbita egiten die!"



Bizente Goikoetxea plaza 1 • ARAMAIO
Tel.: 945 44 50 16 • udala@aramaio.eus
www.aramaio.eus





Xementerio taldea osorik, argazki zaharrear. | XEMENTERIO

Musikari eta lagun handi bati omenaldi ezin aproposagoa

Xementerio taldeko Iban Elejalde gogoan izango dute zapaturako antolatu duten musika jaialdian

MAITE TXINTXURRETA | ARAMAIO

Iban Elejalde herriko Xementerio punk talde ezaguneko kidea zenari omenaldia egingo diote aurtengo jaietan, bere heriotzaren hamargarren urteurrenean.

Omenaldi horren muina, nola ez, musika izango da. Hala, bihar, uztailak 2, Elejalderen lagunek osatutako taldeak, El Exterminio de la Raza del Monok, Libertad Concionalak eta Zarzamarak joko dute plazan, gauerdian hasita. Baina hitzordu nagusia Xementerioaren itzulera izango da, hauek ere igoko baitira agertokira.

Herriko artistak agertokian

Iban Elejalderen omenaldian aramioarrak izango dira protagonista. Musika taldeekin hasi aurretik, Manex Agirre eta Xabi Igoa herriko bertsolariek hartu-

ko dute mikrofonoa, Elejalde gogoan hartuta bertsotan egiteko.

Bertsolarien ostean, musikariaren txanda etorriko da, horiek ere aramioarrak. Lehenik eta behin, Libertad Condional taldea igoko da taula gainera. Beraien ostean, aldiz, Ibanen Lagunak taldeak joko du, zapatuko ekitaldirako bereziki elkartutako taldea. Herriko musika talde desberdinetan diharduen jendea da, eta bertsioak joko dituzte. Hauek bukatzean, El Exterminio de la Raza del Monok astinduko ditu gitarra eta ahots kordak, eta gero, Zarzamarakoak igoko dira plaza musikaz giroten jarraitzeko. Talde guztiek doan joko dute, omenaldi berezi honetan laguntze aldera.

Lau talde horien ostean, eguneko hitzordu handia iritsiko da:

Xementerioaren itzulera. Iban Elejalde hil zela hamar urte pasatu dira, eta taldeak azkenengo zuzeneko duela bederatzi urte eskaini zuen, Elejalderen heriotzaren lehen urteurrenean, hain zuzen ere.

Itzulera berezia

Xementerio taldeko kide Gorka Ariasek dio beraiantzat itzulera hau "berezia" izango dela. Urtebete inguru daroate entseatzeko, azaldu duenez. "Ez dakigu jarraituko dugun talde moduan, baina omenaldia egiteko elkartu gara eta gogoz gaude", dio.

Ordu eta laurden inguruko emanaldia eskainiko dute, eta "denetarik" joko dutela azaldu du Ariasek: "Batzuk zaharrak eta beste batzuk beste garai batean egindakoak".

Hala, gogora ekarriko dituzte herriko herri punk doinuez agertokiak astintzen igarotako urteak.

Flamenko ikasleek kalera aterako dute euren artea

Maledantza taldeko kideek emanaldia eskainiko dute bihar arratsaldean txosnagunean

M.T. | ARAMAIO

Aramaioko Maledantza taldeko flamenko ikasleek, ume zein nagusiek, erakustaldia eskainiko dute bihar, zapatua, 17:00etan, txosnagunean.

Aurtengoa izan da flamenko eskolako lehena ikasturtea, eta orain arte ikasitakoa erakutsiko dute jendaurrean.

Nagusien taldetik lau emakumek hartuko dute parte, eta umeen taldetik, berriz, bost neskatilak. Taldeak eta dantzak tartekatuko dituzte. Bost dantza mota plazaratuko dituzte, guztiak "umore oso onarekin", Malena Lobo irakaslearen esanetan. Lobok aipatu du debuta "oso berezia" izango dela.



Malena Lobo ikasle gazteei eskolak ematen. | ARANTZAZU EZKIBEL

Elkarteen arteko pikea, gastronomia hitzordu berria San Martin jaietan

M.T. | ARAMAIO

Gastronomia elkarteek beste hitzordu bat izango dute aurtengo jaietan. Zapatuan, 12:30ean hasita, euren abilezia erakutsi behar dute moxal-okela prestatzen, talde bakoitzak nahi duen eran.

Txapeldunek diru saria eta plaka bat jasoko dute.

Gero, prestatutako pintxoak salduko dituzte, eta dirua Ekua-

dorko lurrikarak kaltetutakoentzat bideratuko dute.

Patata-tortilla lehiaketa

Egun berean, urteroko beste hitzordu bat izango da eguerdian, hori ere sukaldaritzarekin lotua: patata-tortilla lehiaketa.

Osagaiak antolaketarak jarriko ditu, eta 12:30ean izango da sari banaketa.



BEHI-ALDE
ERKOP

BEHI-ALDE, koop. e.

Olaeta-Aramaio (Araba)

Zuzenbide postala

44 POSTA KUTXA

20500 ARRASATE



Tel.: 945 45 01 00

Faxa: 945 45 03 15

EKI TABERNA

Gosariak, hamarretakoak, razioak, ogitartekoak, hanburgesak, entsaladak, plater konbinatuak eta postreak....

Aurrez enkargatuta eramateko bazkari eta afariak

Ondo pasau jaixek!!

Pedro Inazio Barrutia 9 • ARAMAIO
Tel.: 945 44 59 88

dukiena

J A T E T X E A

ONDO PASATU JAIXETAN!

Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86

ARAMAIO



SANMARTINAK 2016 ARAMAION



Kuadrillen arteko pikea, 2015ean. | AITOR AGIRIANO

Kuadrillen arteko pikeak girotuko du astelehen arratsaldea

Jaietan ohiko bilakatu den ekitaldia parkean egingo dute, jaietako azken egunean, 16:00etan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Egitarau zabala prestatu dute Gazte Asanbladakoek aurtengo jaietarako. Hainbat ekitaldi dagoeneko errotuta daude herrian, baina badira iaz estreinatuta eta arrakasta izan dutenak ere; eta baita aurten estreinatuko dituztenak ere.

Azkeneko urteetako ohiturari jarraituz, jaietako azkeneko egunean, astelehenean, kuadrillen arteko pikea egingo dute parkean. Gazte kuadrillek euren artean lehiatu beharko dute: horretarako, hainbat proba gainditu beharko dituzte. Kuadrillen ohorea egingo da jokoan.

Berritasunak

Hainbat berritasun ere egongo dira 2016ko San Martin jaietan. Horieta bat zapatutik domekara bitarteko gauean egingo duten *makro twister*-a izango da; 06:00etan egingo dute, txosnetan.

Domekan bi ekitaldi estreinatuko dituzte: *punk a capella* poteoa eta *Zuk in, zuk jan* afaria. Lehenengoa etzi, domeka, egingo dute 18:30ean. Poteo herrikoi bat izango da eta berezitasuna izango da *punk* abestiak abestuko dituztela "abesbatzen modura".

Zuk in zuk jan afaria txosnetan izango da, 21:00etan. Bakoitzak bere jana eraman beharko du etxetik; han, txosnetan, denek elkarrekin jango dute. Beste herri batzuetan arrakasta handia izan duen ekitaldia da hori.

Film laburrak eta 'berbapasi'

Bigarrenez egingo dute film laburren lehiaketa. Aurtengo gaia izango da *Azken azeitxunie*, eta lanak aurkeztu beharko dira zaturako, txosnetan. Domekan eskainiko dituzte lanak, eskaileretako emanaldiaren ostean.

Film laburren ostean, *berbapasi* egingo dute txosnetan. Antolatzaileek berba bat emango diote bikotea bati. Bietako batek berba hori aipatu barik azalpenak eman behar dizkio besteari, bigarren horrek hitza asma dezan.

11 monitoren jardungo dute eguaztenetik aurrera 101 umerekin

A.E. | ARAMAIO

Eguaztenean, hilaren 6an, hasiko dituzte udalekuak 3 eta 12 urte bitarteko umeei.

Ana Muñoa udalekuetako arduradunak azaldu du gelaka egingo dituztela taldeak; hala, adinen arabera banatuko dituzte umeei. Goizetan elkartuko dira, 10:00etan, kultura etxean. Ohiko den moduan, era askotako ekintzak egingo dituzte. 13:00ak arte egongo dira neska-mutikoak elkarrekin.

Igerilekura bisita

Hurrengo hiru asteetan egingo dituzten ekintzak askotarikoak izango dira. San Fermin eguna, Euskararen Eguna –uztailaren 21ean, Legution–, altxorraren

bila, ginkana, auzoetara irteerak, maskara tailerra eta sukaldaritza tailerra –pizzak, ogia eta trufak prestatuko dituzte– egingo dituzte. Azkeneko urteetan egin izan duten moduan, gainera, Otxandioko igerilekura ere joango dira. Uztailaren 22ra arte iraungo dute udalekuak; azkeneko egunean jai handia egingo dute.

Gazte udalekuak

Aurten, berrikuntza moduan, gazte udalekuak egingo dituzte, 12 eta 16 urte bitartekoendako. Iker Arriolabengoa izango da gidaria, eta uztailaren 6an, 8an, 11n, 13an eta 15ean egingo dituzte irteerak Aramaioko inguruak ezagutzeko.

Albaola museoa bisitatuko dute erretiratuek uztailean

Alaiak erretiratuen elkarteak antolatuta, Albaola museora bisita egingo dute uztailearen 14an. Irteera egin gura duenak hilaren 11 baino lehen izena eman beharko du, erretiratuen kontuan 40 euro sartuta. Plaza mugatuak izango dira –55 lagun–. Ontziola jatetxean bazkalduko dute.

Lagun Artean dantza taldearen entsegu: eguaztenean, 19:00etan

Datorren eguaztenean, uztailearen 6an, hasiko dituzte dantza taldekoek urteurren ekitaldian egin beharreko dantzen entseguak. 19:00etan izango da entsegu eskolako gimnasioan; garrantzitsua da dantzari guztiak joatea, hurrengo egunetako entseguak zehazteko.

Aramaioko mugak gaindituko ditu bigarren Irrintzi Txapelketak aurten

Bizente Goikoetxea plazan izango da saioa bihar, zapatua, 19:00etan

A.E. | ARAMAIO

Iaz Irrintzi Txapelketak izan zuen arrakasta ikusi, eta aurten, Aramaioko mugak gainditu eta edonori zabalduko diote parte hartzeko aukera. Bihar, zapatua, egingo dute lehiaketa Bizente Goikoetxea plazan, 19:00etan.

Parte hartu gura duenak egunean bertan izango du aukera izena emateko.

Albokariak girotuta

Ekitaldia Aramaioko albokariak girotuko dute. Irrintzi eta irrintzi artean alboka doinuak entzuteko aukera egingo da.

Parte-hartzaileen artean bi maila bereiziko dituzte: batetik, nagusiak egingo dira; eta, bestetik, 14 urtetik beherakoak. Maila bakoitzean bi sari banatuko dituzte; horiez gain, aramaioar onenak ere sarituko dituzte. Sariak ez dira pilatuko; hau da, maila nagusian aramaioar batek jasotzen badu saria, pertsona berak ez du aramaioar onenaren saria irabaziko.

Epaimahaia osatuko dute, iaz bezala, lau lagunek: Iker Elexpuru, Xabi Igoak, Beatriz Lopez de Bergarak eta Larrantz Arriolabengoa.



Iazko txapelketako irabazlea, Oihana Ameskoa. | IMANOL SORIANO

Emakume ahotsak nagusi

Iazko ekitaldian emakume ahotsak nagusitu ziren lehiaketan. Gazteen mailan Ibabe anaiek egin zituzten irrintzi onenak; nagusien mailan, aldiz, Oihana Ameskuak

lortu zuen sari nagusia. Nabarmenezkoa da nagusien mailan ez zela gizonen aurkeztu.

Ea, bada, Aramaioko eta inguruko gizon-emakumeek eztarri onak dituztela erakusten duten!

Saneamendu lanak egin dituzte Pedro Inazio Barrutia kalean

Pedro Inazio Barrutia kalean saneamendu hodi bat konpondu dute. Lan horiek egiteko 2.560 euro bideratu ditu Udalak. Nabarmendu dute lanok egiterakoan hondakin asko aurkitu dituztela; hala, arduraz jokatzeko eta komunitate behera hondakinik ez botatzeko gogorarazi du Udalak.

Opakua enpresak egingo ditu Ibarako ur deposituko lanak

Foru Aldundiak eleitu ditu Ibarako ur depositu berria egiteko lanak. Opakua enpresak egingo ditu, hain zuzen. Orain arteko ur depositua txiki geratu da; izan ere, Ibarako biztanleria asko handitu da azkeneko urteetan. Modu horretan, hobekuntzak igarriko dituzte Ibarren.



ARAMAIKO UDALA

LGTBIQ eguna aldarrikatu dute

Aramaioko udaletxeko balkoian ostadar koloreko bandera jarri zuten martitzenean, Sexu Askapenaren Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko. Aramaioko Udalak, Gazte Asanbladako feministek eta herriko familia batek jarri zuten bandera. Gainera, eguaztenean, *Ez dogulako ihes* egingo film laburren zikloa eskaini zuten Sastiñan.

Azben supermerkatua egiteko lehen pausoa eman du udalbatzak

- ▶ Jeltzaleek eta sozialistak onartu dute arau aldaketa
- ▶ EH Bilduk dio hori baino gehiago egin daitekeela

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Azbe eraikina dagoen lurraren izendapena aldatzeko prozesua abiaraztea erabaki zuen udalbatzak joan den martitzenean egindako ezohiko osoko bilkuran. Hainbat gai onartu zituzten, besteak beste, diru-laguntzen plan estrategikoa hiru urteotarako eta katastroaren balioak berrikustea. Eztabaida, baina, Azbek eragin zuen.

Supermerkatu bat jartzeko eskaera jaso zuen Udalak orain dela hilabete batzuk. Eraikin horrek, baina, industri erabilera izan du oraintsu arte; hortaz, Aretxabaletako hiri antolaketa-ko arauen elementuetan aldaketa egin beharra dago hirugarren sektoreari, hau da, zerbitzuei dagokien erabilera izan dezan. Jeltzaleak eta zinegotzi sozialista alde agertu ziren, Irabazi abs-

tenitu egin zen eta EH Bilduk aurka bozkatu zuen.

1.800 metro karratu

Aretxabaleta Naves enpresarena da eraikina. Eta asmoa da supermerkatu bat jartzea han; seguru asko, Eroskik: "Badakigu hitzarmenen bat dutela", jakinarazi du Unai Elkorok, alkateak, eta eraikinaren nondik norakoak eman ditu: "Salmenta guneak gehienez 1.800 metro karratu izango lituzke, eta inguruan 54 aparkaleku. Goiko solairuan, oster, biltegiak egongo lirarteke". Hori guztia egingo dute zerra-haginak dituen eraikinean, eta bulegoak egondako zatia bota: "Behin hori botata behar den bezalako biribilgune bat egin ahal izango da", argitu du Elkorok. Inguru guztiaren urbanizatzeko lanak eraikinaren jabearen ardurapean utzi gura dituzte.

Supermerkatua baino gehiago

EH Bildu ez zen ados agertu aurkeztutakoarekin. Batetik, eskatu zuten plangintza orokor baten barruan sartzeko eremu horren erabilera; bestetik, ez daudela proiektuaren aurka azaldu zuen, "gehiago egitearen alde" baizik: "Eremu handia da erabilera bakarra emateko, hortaz, beste alternatiba batzuk ere egin daitezkeela uste dugu. Alde batean supermerkatua, baina beste eremuan egon daitezke honako hauek: azoka, plaza estali bat, aparkalekuak... Eta gure proposamena da hori guztia aztertzea", adierazi du Ion Albizu zinegotziak. Egindako eskaerok, gainera, ez dituztela aztertu esan zuten: "Gure planteamenduak ez badira aztertzen gure jarrera eraikitzailea non geratu behar da?", dio Albizuk.



Azbe lantegia egondako eraikina. | MIRARI ALTUBE

Alkateak erantzun zuen EH Bilduk proposatutakoak zalantzan jartzen duela "bideragarritasuna" enpresa sustatzailearendako: "EH Bilduk esandakoaren arabera eraikin berria egin beharko luke sustatzaileak. Eta askoz ere inbertsio potoloagoa suposatuko luke horrek". Eta gaineratu du: "Proposamena gehiago landuta ekarri izana eskertuko genuke..." Era berean, onartu zuen eraikina Udalarena balitz beste proiektu bat egingo luketela.

Irabazi alderdia, bestetik, abs-tenitu egin zen. "Bilduk mahai-gaiean jarritako planteamendua zalantzan jarri gabe, hau da, behar bada ez dela lekuri egokiena; baina herriaren berrantolatze plan baten faltan ezin dugu aur-

ka bozkatu; izan ere, ez dago ezer idatzita lursail horretarako", zioen, bilkuran, Luis Mariano Gomezek.

Partaidetza prozesua

Behin onartuta izendapen aldaketa abian jartzea, orain, partaidetza prozesuari emango diote hasiera. Jendaurrean jarriko dituzte ikusteko eraikinaren planoak eta argibideak. Ondoren hasierako onarpena emango diote eta 30 egun izango dituzte orduan herritarrek alegazioak aurkezteko; EH Bilduk iragarri du aurkeztuko dituela.

Alegazioak aztertu ostean emango diote behin-behineko onarpena eta Foru Aldundiaren oniritzia jasotakoan onartuko da behin betiko.

Historia kontuak aitzakia hartuta bisita gidatua domekan

Aitor Antxia Leturiak egingo ditu gidari lanak, 11:00etan irtenda Santutxotik

M.A. | ARETXABALETAKO

Aretxabaletako historia eta ondarea ondo baino hobeto ezagutzen duen Aitor Antxia Leturiak bisita gidatua egingo du domekan, uztailaren 3an. Santutxoko ermitan, 11:00etan, elkartu eta pausoz pauso, kontu-kontari, Durana kale bukaeraraino iritsiko dira: "Aretxabaletaren gainean zerbait gehiago jakin gura duena pozik hartuko dugu", dio Antxiak, eta gaineratu du: "Hala, kalean goazenean jakin dezagun ikusten dugun horren atzean dagoen historia edo kontakizuna".

Kontu kuriosoak

Santutxoko ermita; erromanikoa-ren aztarnak dituen kanposantua; bidegurutzeta; eta udaletxea bisitatu dituzte, besteak beste. "Udaletxe barrura ez gara sartuko baina lorategian ere badago zer ikusia eta zer kontatua", dio. Elizan ere geratuko dira eta handik jo Otalora jauregira eta Durana kalera: "Kontu kuriosoak ere aipatuko ditugu; esaterako, jauntxoek zergatik eskatu zuten guardia zibilak Eskoriatzatik Aretxabaletara ekartzea".



Otalora jauregia, XVIII. mendekoa. | M.A.



Bidegurutzeta. | ARGAZKI ARTXIBOA



Kuarteleko armarrria. | M.A.

Ibilbidearen gida

Aitor Antxia Leturiak erakutsiko dituen lekuetako eta landuko dituen gaietako batzuk:

1- Kalebarrean

▶ Kanposantua: San Migel elizaren aztarna...

▶ Santutxo

▶ Erresponstu harria: atsedena hartzeko hildakoen kaxa zeramanak...

▶ Bidegurutzeta: amabirjina, kristoa...

2- Kalebarren

San Migel kalearen izen aldaketa XX. mendean

3- Kuartela: armarrria errepublika garaikoa

4- Udaletxea:

▶ Lau armarririk

▶ Horma margotuak

▶ Aurrealdea

5- Eliza

▶ Kristo erromanikoa

▶ Sailuenteko amabirjina

▶ Urbesalgoren Etzandako kristoa

6- Otalora jauregia: General Tablas...

7- Baidetxea: mojak, ur-sufretsua...

8- Durana kalea: Kale Nagusia (gero aldatua), Taberna Berriko zutabeak...

9- Udaletxe zaharreko armarrria

10- Durana 38.eko barruko eskallera

Martitzenean hasiko du Loramendik txalaparta ikastaroa

Loramendi elkarteak txalaparta ikastaroa antolatu du, beste urte batez. Martitzen eta eguenetan izango dira eskolak, uztailaren 5ean hasita. Lehenengo egunean Iralabarri plazan elkartuko dira, 18:00etan. Aurten ere Aitor Ziardegi eta Oier Sarasua aretxabaletarrek jardungo dute irakasle lanetan.

Izena emateko Loramendiren egoitzatik pasatu behar da arratsaldeetan: 15:30-19:30; edo telefonoz deitu: 943 77 09 70 edo 685 75 67 29.

Murrizketen aurka bilkura egin dute Kurtzebarriko kideek

Atxabaltan gure hezkuntza eta Hezkuntza kalitatearen defentsan leloarekin Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako eta DBHko langileek eta hainbat gurasok bilkura egin zuten joan den egubakoitzean. Irakaskuntzako sindikatuen ekimenarekin bat eginez, "hezkuntza alorreko murrizketen aurka" agertzeko eta LOMCeri eta Heziberriri ezezkia aldarrikatzeko elkartu ziren, eta arduratuta agertu Hezkuntza Sailak hartuko dituen erabakiekin.

311 neska-mutikok hasiko dituzte gaur udaleku irekiak, uztailaren 22a arte

Berrikuntzak daude aurten: San Fermin eguna beharrean Euskal Jaia ospatuko dute uztailaren 13an

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gaurtik uztailaren 22a bitartean ez dute aspertzeko astirik izango herriko 311 gaztetxok. 35 hezitzaile eta bi koordinatzaile lagun dituztela, jolasak eta irteerak izango dira nagusi hiru astetan.

Azken urteotan legez, 3 eta 12 urte arteko neska-mutikoak elkartuko dira adinaren arabera egindako taldeetan. "Umeei eman gura diegu berba eta ekintza batzuk parte-hartze bidez hautatu. Programaketa orokorra eginda egon arren, eurek ere izan dezatela zer esana", jakinarazi du koordinatzaile lanetan jardungo duen Jone Ojeak. Jolasak izango dira nagusi, beste behin, eta eskulanak ere egingo dituzte.

Euskal Jaia

Berrikuntzak daude, gainera. Orain arte urtero ospatu bada ere San Fermin eguna, aurten ez

dute halakorik egingo: "Aldatzea erabaki dugu", dio. Horren ordez, Euskal Jaia egingo dute, uztailaren 13an, hain zuzen: "Buruhandiekin jai giroan ibiliko gara goiz partean; arratsaldean, oster, nagusienak igerilekura joango dira eta gainerakoekin feria bat gertatuko dugu". Lekaixoka bertso eskolakoen bisita ere jasoko dute aurten, lehenengoz. Eskola-

ren berri emango diete jolasen bitartez.

Urtero legez, irteerak ere egingo dituzte, inguruko auzoetara, Gamarrako igerilekura eta kostaldera, esaterako. Eta gaua pasatzera ere joango dira: "3. eta 4. mailetakoak Otalazelaira, eta 5. eta 6. mailetakoak, oraindik zehazteko egon arren, seguru asko, Leixargarateko txabolara".

Kirol udalekuetan 34 gaztetxo

Orain dela urte pare bat egindako legez, kirol udalekuak antolatu ditu Udaleku Kirol Sailak Lehen Hezkuntzako 5. mailatik DBHko 4. mailara artekoendako. 34 gaztetxok eman dute izena eta horiek ere gaur hasiko dira. Sei begirale lagun hartuta hainbat kirol jarduera egingo dituzte: eskalada, ur jolasak, dantzak, euskal pilota, badmintona, irristaketa, akrosport-a, herri kirolak, altxorraren bila, mendi irteerak... Astelehenetik eguenera goiz eta arratsalde jardungo dute, eta egubakoitzetan goizez bakarrik.

Hauteskundeetako emaitzak kalerik kale

M.A. | ARETXABALETA

Joan den domekan egindako Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan, aldaketa izan zen Aretxabaletan abenduko datuekin alderatuz gero. EAJk lehen indarra izaten segitzen duen arren, gutxiagatik, EH Bilduk bigarren lekua galdu egin du, Elkarrekin

Ahal Dugu koalizioaren mesedetan. Hona hemen datuak: EAJ: 1.021 (%28,53); Elkarrekin Ahal Dugu: 1.009 (%28,19); EH Bildu: 913 (%25,51); eta PSE-EE: 365 (%10,20).

Botoa emateko eskubidea izan zuten 5.415 herritarrek eta horietatik botoa eman zuten 3.602k

(%66,52). Baliogabeak izan ziren 23 eta zuriak, oster, 19.

Antzeko joera mahaian

Bozkaleku bakarra egon zen Aretxabaletan, lau sailetan banatuta (zortzi mahai). Sailak banatzen dituzte kaleen arabera, eta mahaiak abizenak kontuan hartuta. Mahai guztietan antzeko joera izan zen -EAJ nagusi eta gero Elkarrekin Ahal Dugu eta EH Bildu-, 4-B mahaian izan ezik; hor, Elkarrekin Ahal Dugu izan zen nagusi eta EAJ hirugarren.

ARETXABALETAKO DATUAK


	ELKARREKIN AHAL DUGU	EAJ	EH BILDU	PSOE	PP	CIUDADANOS
1-A	117	109	81	61	24	3
1-B	105	111	87	45	23	7
2-A	122	144	136	47	26	3
2-B	153	163	136	51	33	5
3-A	129	136	113	62	31	6
3-B	134	152	119	57	20	10
4-A	113	128	125	16	9	4
4-B	136	78	116	26	10	5
GUZTIRA	1.009	1.021	913	365	176	43

ITURRIA: UDALA

1. saila: Otalora, Santakurtz, Sarasate, Guridi, Elkano, Iparragirre, Bedarreta, Larrin plaza eta Murubide plaza. 2. saila: Lausitta, Herriko Plaza, Durana, Mitarte, Basabe bidea, Andramari auzunea, Errekabarren, Iargi plaza eta Iturizar plaza. 3. saila: Aralar, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Laramendi, Zeraia, Gorbela, Aralar, Basabe poligonoa, Belorrieta eta Iralabarri plaza. 4. saila: Baintxe, Solohandi, Markole, Txarapea eta baserri-azkoak.

*1. sailetik 3. sailera: A mahaian, A-tik H-rainoko abizenak; eta B mahaian, H-tik Z-ra artekoak.

*4. sailera: A mahaian, A-tik I-rainoko abizenak eta B mahaian, J-tik Z-ra artekoak.



Autoen erakustaldia Herriko Plazan, iaz. | XABI URZELAI

Hamabost lagun elkartuko dira auto telegidatuen erakustaldian, domekan

M.A. | ARETXABALETA

Bigarren egingo dute auto telegidatuen erakustaldia herrian. Domekan, uztailaren 3an izango da, Herriko Plazan: 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. "Iazko arrakasta ikusita, berriro ekarriko ditugu autoak plazara. Oraingoan, gainera, hobeto gertatuko ditugu bai autoak, bai zirkuitua, eta ikusgarriagoa izango da erakustaldia", jakinarazi du Aitorrek, antolatzaileak.

Hamabost lagun inguru elkartuko dira, gehienak deba-

goiendarrak, baita beste horrenbeste auto ere. "Autoak izango dira gehienak, elektrikoak batzuk, gasolinazkoak besteak; eta 4x4 ibilgailuren bat ere egongo da. Auto handi bat ekarriko dute, gainera, jendeak ikus dezan", dio antolatzaileak. Iaz gurpilak erabili zituzten zirkuitua osatzeko, aurten oraindik eta txukunago gertatu gura dute, konokak erabilia.

Gero eta jarraitzaile gehiago dituen zaletasuna da: "Autoekin ez ezik, helikoptero eta txalupekin ere ibiltzen da jendea".

'Tren geltokia' antzezlanarekin dator Zirika Zirkus komentuko lorategira

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaletarrek ondo baino hobeto ezagutzen duten Zirika Zirkus talde ezaguna (*Txarlestrop, Pantxika lamur...*) azken antzezlanarekin dator: *Tren geltokia*. Datorren eguaztenean, uztailaren 6an, komentuko lorategian eskainiko dute, 19:00etan, familia guztiarendako aproposa den lana.

Hiru lagun elkartuko dira tren geltoki batean, hiru pertsonaia berezi: Pantxi, entrenatzaile fisiko, mental eta espirituala; Mona, ballet dantzaria; eta Konfu-so, hainbat lanbide izan dituen gizon jakintsua. Trenaren zain dauden bitartean eskainiko dituzte akrobaziak, dantzak eta eskujokoak, besteak beste, umorez zipriztinduta.



JOSE INAZIO ISASMENDI

Bretainian izan dira Basotxokoak

Bretainia aldean ibili ostean gustura itzuli dira Basotxo erretiratuen elkarteko kideak, 36 lagun guztira: "Mont Saint Michel abadia ospetsuan izan ginen [argazkian] eta barrura sartzean goraino joan gura izan genuen. Hain zuzen, bihar, uztailek 2, hantxe hasiko dute Frantziako Tourra", jakinarazi dute Basotxokoak.

Bandera jaitsi eta aurtengo sanpedroei agur

Gaur, egubakoitza, euskal jaia izango da gauerdian bukatuko diren San Pedro jaien barruan

MAITE TXINTXURRETA | ESKORIATZA
Martitzenean, 19:00etarako herri-
mordoxka batu zen Herriko
Plazan aurtengo San Pedro jaiei
ofizialki hasiera eman dien txu-
pin jaurtiketaren zain. Denbora
luzez itxarondako hitzordua zen
eskoriatarrentzat.

"Gora Eskoriatza! Gora san-
pedruak!" esanez bukatu zuen
pregoia Xabier Royo Almen gune-
ko ikasleak, eta segidan Ane
Arrietak txupinarekin metxa piz-
tu zuen. Hala, txupinaz bat fes-
tak ere leher egin zuen plazan.

Gustu guztietarako ekintzak

Egunotan ez da aspertzeko beta-
rik izan herrian, gustu guztietara-
ko ekintzak izan dira eta.
Nabarmentzekoen artean, San
Pedro bezpera gaueko nagusien
danborrada, jaietako hitzordu
nagusia asko eta askorentzat.

Azken asteetako entseguak
igarri ziren, eta batailoi desber-
dinetako kideak ondo koordina-
tuta ibili ziren. Txukun jantzita
atera ziren guztiak, norbere tal-
dearen uniformea edo koloreak
soinean, ezinbestekoa den moduan.

Hurrengo egunean, berriz,
Elizbira egin zuten. Joserra Zubi-

zarreta alkatea eta EAJko gai-
nontzeko zinegotziak atera ziren,
udaltzainekin batera eta Esko-
riatzako eta Aretxabaletako txis-
tularien musikaz lagunduta uda-
letxetik elizarainoko bidea egi-
tera. Ondoren meza izan zen.

Gaztetxoek ere izan dute zer-
taz gozatu. Gaztelekuak antola-
tuta, taldekako jokoak egin zituz-
ten eguaztenean. Pink Ladies
taldea izan zen onena azkenean.
Pikeak pike, umore ona eta alga-
rak izan ziren nagusi.

Euskal jaia gaur

Gaur, egubakoitza, azken eguna
izango da, eta Euskal Jaia aitzak-
ia ezin hobea izango da bukara-
ko ordu horiek topera aprobet-
xtatu ahal izateko.

Goizeko hamaiketan Eskoria-
tzako txistulari taldearen dianak
aterako ditu etxetik herritarrek.
Eguerdian taloak eta sagardoa
izango dira protagonista, eta
14:30ean herri bazkaria egingo
dute plazan. Arratsalde, erro-
meria eta buruhandien bizikleta
lasterketa izango dira, besteak
beste. Eta gauerdian, bandera
jaitserarekin agurtuko diutze
aurtengo sanpedroak.



Kalerik kale ibili zen danborrada martitzen gauean.



Txupin jaurtitzaleak -Almeneko ikasleak- udaletxeko balkoian.



San Pedro eguneko elizbira hainbat udal ordezkari parte hartu zuten.



Pink Ladies taldea, trebeena Gaztelekuak antolatutako jokoetan.



Mariatxien doinuak entzuten eguzkitan



Hondarrezko eskulturen tailerrea gustura ibili ziren artista txikiak.



Kontzejupeko pilota txapelketa.



Marixol Etxabek irabazi du balkoi lehiaketa . | ARGAZKILARIAK: AITOR AGIRIANO, TXOMIN MADINA

Herriko ohitura berreskuratuz

Uztailaren 9an bolatokiko azken lanak egingo dituzte

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Herritarrek eskatuta, eta, bereziki, erretiratuek, bolatokia izatearen nahia errealitate bilakatuko da. Izan ere, auzolanean –Udalak eta herriko enpresek lagunduta–, bolatokiko lanak ia amaitzear daude. "Hondatzailearekin atera ditugu obra-zaborrak. Lurra presatzea izan da lehen lana; gero, forma eman diogu eta lurra tinkotu dugu. Azken fasean, ohola jarri eta hesitu egingo dugu ingurua", argitu du auzolanean dabilen Jose Antonio Igarzak. Azken lan horiek uztailaren 9an, goizeko bederatzietan, egingo dituzte; horretarako, herritarrei laguntza eskatu die: "Gazteei erakutsi gura diegu bolo-jokoan egiten; eurek disfrutatzeko ere bada bolatoki hau. Ea gazteak animatzen diren lanei amaiera ematen gurekin".

Tradizioari ertsiz

Igarzak kontatu du betiko tradizioa izan dela bolotan aritzea Antzuolan. "Lehen, bolatoki oso ospetsua zegoen herrian. Beheko errota ondoan, Iribarren, geneukan bolatokia eta Debagoien mailan makina bat txapelketa egiten zen. Inguruko herrietatik ere etortzen ziren... Orduan txapelketa garrantzitsua zen Antzuolako eta gu mutikotan ibiltzen ginen. Besterik ez geneukan jolas-teko-eta! Gero, herritar batek pilotaleku ondoan ere jarri zuen beste bolatoki bat". Gazteendako erakargarria izango dela dio: "30 urteko gazteek ez dakite nola jokatzeko den bolotan. Ez dute herrian ezagutu, eta helburua litzateke zer den bolatokia eta nola jokatzeko den erakustea herriko gazteei ere", gaineratu du.

25 metroko luzera dauka

Bolatokiak, ohola jarrita, 25 metroko luzera dauka. Txirloak dauden tokiraino, aldiz, 20 metro ditu. Zabaleran, berriz, 40 zentimetro dauzkala argitu du Jose Antonio Igarzak: "Pixka bat jokoa errazte aldera eta bolo-jokoaz disfrutatzeko, zabaleran zentimetro gehixeagokoa egin dugu". Torresoroa atzealdean dago.



Bolatoki berria. | M.A.



Jose Antonio Igarza da bolatokia auzolanean egiten diharduenetako bat. | MAIDER ARREGI

Herritarren arteko zubi berriak sortuz lanean jardungo du Auzokok

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Ikasturtea bukatu dute Auzoko kideek. "Balorazio positiboa egiten dugu. Kanpotik etorri eta

euskaratik urrun dauden pertsonen euskara eta herria gerturatzeko aukera emateak kualitatiboki ez dauka preziorik", dio

Maite Telleria dinamizatzaileak. Jatorri oso desberdinetako pertsonak izaten dira Auzokora gerturatzen direnak: Ekuatore Ginea, Dominikar Errepublika, Nepal... "Auzoko ekimena herrian gizarteratzeko zein lagunak egiteko tresna oso garrantzitsua bihurtu da. Euskarara gerturatzeko aukera honek ere asko laguntzen du herritarren arteko zubi berriak sortzen. Antzuolan jaio eta euskaratik gertu daudenendako ere, jatorri eta hizkuntza desberdinetako jendea ezagutzea oso aberasgarria izan da", gaineratu du dinamizatzaile antzuolarrak.

Taldean sortzen den giroa oso atsegina eta baikorra dela adierazi dute Auzoko kideek. Hala, Telleriak azpimarratu du antzuolar guztiek izango dutela aukera irailetik aurrera Auzoko ekimenean berriro parte hartzeko.



Auzoko ekimeneko kurtso bukaerako afaria. | MAITE TELLERIA



JABI ETXANIZ

Elkartasun hotsa Kalebarrean

KOMUNITATEA GOIENA | ANELKAR | ANTZUOLA

Kalebarrengo jaietan musikaz eta festaz gozatu dugu. Elkartasunerako

ere izan da unerik. Hala, Oporrak Bakean kanpainarendako 731 euro batu dira. Saharako ohiko janaria probatzeko aukera izan zen eta 200 pintxo banatu ziren, besteak beste. Eskerrik asko bertaratutakoei!



JABI ETXANIZ

San Juan suaren gainetik

Herritar ugari batu zen suaren bueltan San Juan bezpera ospatzeko. Aurten, nobedadeekin; izan ere, sua gauez piztu zen. Suaren gainetik salto egitera ausartu ziren herriko gazteak. Jabi Etxanizen argazkiak ikusgai daude goiena.eus/antzuola helbidean.

Irrati-antzerki saio performatiboa egingo da herriko jaietan

Iraganean, gaur egunean eta etorkizunean barrena ibilbidea egingo duen irrati-antzerki saioa egingo da uztailaren 17an, 12:30ean. *Herri Zahar*, *Andre Berri* proiektuaren ekimena da eta helburua du euskal kultura eta tradizioetan emakumeak duen parte-hartzea hausnartzea.

Aiherrako 11 gaztetxok hasiko dituzte Antzuolako udalekuak

Astelehenean, uztailaren 4an, hasiko dituzte udalekuak 7 eta 12 urte arteko Aiherrako hamaika gaztetxok. Uztailaren 8ra arte izango dira Antzuolan herriko familien etxeetan. Lehenengoz, proba gisara izango dira udalekuetan. Helburua da gaztetxoaren artean senidetzeari sustatzea eta indartzea.

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

ELGETA



Herri Eguneko bazkaria, iaz, Elgetako Mendizaleen plazan. | IMANOL GALLEGU

Gogotsu ekin diete Elgetan Ferixa Nagusiko jaiei

Gaur gaueko zezensuzkoaren aurretik musika bandan izango dira DJ Bull eta Zopilotes Txirriaos

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Gaur, barikua, Erretiratuen eta Umeen Eguna da Elgetan. 96 erretiratu elkartuko dira Espaloian bazkaltzeko, eta bingoan egingo dute ondoren. Umeek ere bazkaria izango dute, eta aurretik zein ondotik puzgarriak eta abilezia jokoak. Arratsaldean herriko batukada taldeak girotu dituzte

kaleak, eta 19:00etarako sokamuturra dago iragarrita. Gauean DJ Bull-ek eta Zopilotes Txirriaos taldeak hartuko dute plaza.

Bihar, zapatua, Herri Eguna izango da Elgetan. Harrera jaiaberrirei (12:00), soka dantza herri-erorri berriekin (12:30) eta umeen euskal dantzak daude iragarrita. Gero, paella jana (14:30)

eta herri kirolen txapelketa parte-hartzailea kuadrillaka (18:30). Animatu dira hiru bat kuadrilla, baina zabalik jarraitzen du izen-emateak. Zapatu gauean, musika The Vartools eta Patxuko Nice taldeen kontua izango da.

Domekan 09:00etan zabalduko da azoka, eta 70 bat postu izango ditu. Tartean izango da Debagoieneko Txakolin Eguna —ikus 4. orria—. Festei amaiera emateko, Eriz magoaren ikuskizuna (19:00) eta gaztetxeko txitxi-burruntzia (20:15) daude iragarrita. Feria egunean Elgetara datozeni antolatzaileek eskatzen diete ibilgailuak Pagatza industrialdean aparkatzeko.

Zirkulazio aldaketak jaietan

Domekako 20:00ak bitartean oinezkoendako izango da Elgeta erdigunea. Gudarien Bidea itxita egongo da ibilgailuendako eta Berraondokotik bideratuko dute zirkulazioa. Horregatik, ezingo da Salvador osteko kalean apartatu.

Bestetik, domekako feria muntatzeko lanak zapatuan hasiko dira, 09:00etan. Berraondokoak libre beharko du ordu horretarako. Udaletik jakinarazi dute garabiak eramango dituela traban dauden ibilgailuak.

Autobus zerbitzu berezia

Gaur gauean bi autobus zerbitzu berezik lotuko dituzte Elgeta eta Eibar —90 minutuan behin, 22:30etik 06:00etara— eta Elgeta, Bergara eta Antzuola —60 minutuan behin, 00:00etatik 06:30era—. Autobus geltokiak Artekalean (ohikoa) eta Goikoetxe harategiaren kantoian (ezohikoa) egongo dira.

Goiena telebistak Ferixa Nagusiko erreportaje bereziak egingo ditu. Eskainiko ditu gaur, barikua, eta astelehenean eta eguaztenean *Debagoiena Zuzenean* saioan.

7.560 euro Herri Eskolan irisgarritasun lanak egiteko

L.Z. | ELGETA

Martitzenean egindako osoko bilkuran hainbat erabakiren berri eman zuen Iraitz Lazkano alkateak; tartean, Herri Eskolan irisgarritasun lanak egiteko 7.560,35 euroko diru-lerroa ezarzteza —BEZa kanpo—, baratze parkearen mantenurako 2.200 euroko lerroa finkatzea eta Magia Mostra finantzatzeko Pikuperi 2.500 euro ordaintzea. Alkatearen opor egunean lotuta, uztailaren 8tik 16ra Janire Lazkanok hartuko ditu alkatetza ardurak. Udalak, gainera, finkatu du 2017ko festa egun ofiziala: ekainaren 30a izango da.

Udalbatzak, bestalde, herri-tarrei ikastaroak eskaintzeko Cebank elkartearekin aurretik

sinatuta zegoen hitzarmena luzatzea erabaki du.

Mandela Arauekin bat

EH Bilduk proposatuta, Elgetako udalbatzak aho batez egin du bat Nazio Batuek onetsitako Presoak Tratatzeko Oinarrizko Mandala Arauekin. Arautegi horrek, besteak beste, muturreko isolamenduaren erabilera sistematikoa arbuatzen du. "Eskatzen dugu euskal presoeri arau hau aplikatzea", esan du Iraitz Lazkano alkateak. Gu Geu Elgetako Mikel Larreak esan du: "Giza eskubideen errespetuan beste pauso bat ematea da. Ea, behingoz, egunen batean, bateren batek zerbait mugitzen duen".



ELGETAKO HERRI ESKOLA

Bilkura, murrizketen kontra

Hezkuntzan murrizketarik ez! zioen pankartaren atzean agertu dira Elgetako Herri Eskolako irakasleak ere. Ikastetxearen aurrean egin zuten elkarretaratzeta hilaren 23an. Irakaskuntzako sindikatuen ekimenarekin bat eginez, hezkuntza alorreko murrizketen eta LOMCE legearen aurka agertu dira.



Arte tailerreko ikasleen lanak

Maite Barrainkuak Berraondoko Rmateria tailerrean gidatzen duen tailerreko ikasleen lanak ikusgai izan dira, astean zehar, zeramika gelan. Udarako ere tailer bereziak antolatu ditu Barrainkuak.

Martitzenean zauritu bat txakurren arteko liskar baten ondorioz

Buruan kolpea hartuta, martitzen arratsaldean anbulantzian eraman zuten ospitalera Elgetako emakume bat. Ertzaintzak emandako datuen arabera, txakurren arteko "eraso" baten ondorioz, emakumea estropezu egin eta amildegi txiki batetik behera jausi zen. Txakurretako bat, zaurituarena, hil egin da.

OHARRAK

ODOL EMAILEEN ZOZKETA

Elgetako odol-emaielen elkarretetik jakinarazi dute ekainean egindako zozketako txartel sari-tuak ez direla herrian saldu. Hain zuzen ere, zenbaki sarituak hauek dira: 1.471, 3.082, 2.404 eta 376.

BISITA LUBAKIETARA

Jaiak direla-eta domeka hone-tan ez da bisita gidaturik egin-

go. Bai, ordea, uztailaren 25ean, kafe antzokitik 10:00etan abiatuta. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea: 943 79 64 63, 943 71 89 11 edo turismo@debagoiena.eus.

GARBIGUNE IBILTARIA

Salvador kaleko plazan izango da garbigune ibiltaria, eguaztenean, uztailak 6, 10:00etatik 21:00etara.

LEINTZ GATZAGA

Alderdi politiko guztien babesa lortu du Gurelek

Hezkuntza Delegazioan izan ziren eguaztenean Udaleko, Gureleko eta Luis Ezeizako ordezkariak

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA

Joannes Mendizabal Gureleko kide eta Kultura zinegotzia, Aitziber Gorosabel Gureleko kidea, Izaskun Ezpeleta Koldotxo Luis Ezeiza eskolako gurasoen elkar-

teko zuzendari eta lehendakaria eta Jaione Garai Luis Ezeiza eskolako zuzendaria eguaztenean Eusko Jaurlaritzan izan ziren, gela desplazatuaren egoeraz negoziatzeko. Lau ordezkariak banan-

banan hitz egin zuten eta Hezkuntza Delegazioko alderdi politiko guztien adostasuna lortu zuten. Gainera, Rebeka Ubera EH Bilduko ordezkariak eta Garbiñe Mendizabal EAJko ordezkariak euren babesa eman zieten eta esan zuten "ahal duten guztia" egingo dutela gela bizirik mantendu dadin. Hala ere, azken hitza Euskal Gobernuak dauka eta oraindik ez du erantzun definitiborik eman. Beraz, oraingoz, behintzat, zain gelditu beharko dute gatzagarrek.

Gaur, kontzertua

Bestalde, gaur *Sonidos del Mundo* izeneko flauta, ahots eta kalinba kontzertua izango da Dorletako Santutegian, 19:00etan. Munduko hainbat herrialdeko musika interpretatuko da (Espainia, Frantzia, Japonia, Venezuela, Argentina, Euskal Herria, Afrika, Irlanda, Grezia...), toki eta kultura ezberdinetako arimek hitz egiten dien musika azalera-tuta. Hamar abesti joko dituzte, guztira. Sarreraren prezioa borondatea izango da.

San Martin eguna

Domekan, uztailak 3, San Martin eguna ospatuko da. Lehenengo, Dorletako Ama Txirrindularitza Probaren 39. edizioa jokatu da eta ondoren, 12:30ean, meza egongo da San Martin ermitan. Hori bukatzean, luntxa eta doke jolasa izango dira.

Udalekuak

Astelehenean hasiko dituzte udalekuak herrian. Guztira, hamasei ume ibiliko dira, hileko lau astetan zehar, uztailaren 29 arte.

Udazabal 16



Musika



Zirko-antzerki
Ikuskizuna



Pailazoak



Erakusketa



Zirko-antzerki
Ikuskizuna



Musika



Zirko-dantza
Ikuskizuna



Folklore jaiadia



Dantza-musika
Ikuskizuna

Uztailak 1

“Arrasate Musikal BigBand”
(Euskal Herria)

22:30 Monterron parkean

Uztailak 3

Lurrak (Euskal Herria)

20:00 Zaldibar frontoian

Uztailak 7

“Amalur” ikuskizuna Pirritx
eta Marimototxekin (Euskal Herria)

19:00 Monterron parkean

Uztailak 7tik aurrera umiaren bukaerarte

Dinbi, danba
mailuaren hotsa

Harresi aretoan

Uztailak 10

“Letter”
Malas Compañias (Euskal Herria)

20:00 Seber Altube plazan

Uztailak 15

Bocinegro (Espainia)

20:00 Jose Letona Plazan

Uztailak 17

Spazi...O (Dikothomia-Euskal Herria)

20:00 Zaldibar frontoian

Uztailak 21

CAUSANACUNCHIC (Ecuador)

22:30 Monterron parkean

Uztailak 24

Berriketan (Euskal Herria)

20:00 Herriko Plazan



ARRASATEKO UDALA

Laguntzailea:



Mojategi, urrezko dominen meategia

Urrezko dominak ekarri dituzte Eneko Carrascalek, Malen Ruiz de Azuak eta Jonathan Perezek

XABIER URZELAI | ARRASATE

Arrasateko atletismoak nekez ezagutuko du horren harrobi emankorra. Asteburuan lau domina ekarri dituzte Espainiako Txapelketetatik, horietako hiru urrezkoak. Atsedean hartzeko tarte handi barik, Arrasatera heldu berri GOIENAK hitzordua egin zuen Elxen, Toledon eta Mataron protagonista izan diren atletekin.

Carrascalek, biak urrezkoak

Mataron gazte mailako txapelketak jokatu zituzten. Eta, Eneko Carrascalek urrezko bi domina ekarri ditu handik, luzera-jauzian 7,13 metroko saltoa egin ostean eta jauzi hirukoitzean 14,94 metroko marka eginda: "Entrenatzailearekin adostuta, asmoa zen lehenengo egunean dena ez ematea, salto hirukoitzera freskotasunez iristeko. Eta hala ere salto ona egin eta domina irabazi ahal izan nuen. Hurrengo egunean, ostera, salto hirukoitzean marka ona egin eta bigarren domina irabazita pozik itzuli naiz etxera".

Hori horrela, uztailearen 14tik 17ra Europako txapelketan hartuko du parte Carrascalek gazte mailan eta bere betiko entrenatzailearekin joango denez, hobeto prestatu ahalko du zita garrantzitsua.

Ruiz de Azua Gijonera begira

Bestalde, Malen Ruiz de Azua Toledon lehiatu zen, promesa mailan eta 4,20 metroko saltoa nahikoa izan zitzaion podiumeko



Carrascal, Ruiz de Azua, Perez eta Dapena Mojategin. | GOIENA

leku gorenera igotzeko. Hala, Arrasatekoak hilabete barru Gijonen jokatu du Espainiako txapelketa, maila absolutuan.

Marka pertsonala hobetzea eta podiumera igotzea izango dira bere helburuak, baina badaki zaila izango dela; hor Naroa Agirre izango da faborito nagusia.

Perez, bigarren gaztaroan

Ruiz de Azuaren entrenatzaile Jonathan Perezek beterano mailako txapelketa jokatu zuen, Elx-en. Eta, bigarren gaztaroan dagoela erakutsita Perezek ere urrezko domina ekarri zuen, adinean aurrera egin arren sasoiatsu dagoela berretsiz. 2018ra arte lehiatzen jarraitzea espero du, gainera: "Bi urte barru beterano mailako Munduko Txapelketa egingo dute Malagan, eta hor horretan egotea gustatuko litzaidake".

Urrezko hiru domina horiez gain, Istar Dapenak brontzezko domina ekarri du Toledotik. 5 metro eta zentimetro bateko saltoa egin zuen Dapenak.

ESANAK

"Garrantzitsua zen saltoetan kalerik ez egitea"

MALEN RUIZ DE AZUA | ATLETA

"Beteranoen Munduko Txapelketa dut helburu"

JONATHAN PEREZ | ATLETA

Gasteizko lasterketan boluntario jarduteko deia

Uztailearen 10ean izango da nazioarteko lasterketa; ibarretik autobusak jarriko dituzte ikusleendako

X.U. | ARRASATE

Uztailearen 10ean 2.296 atleta izango dira Gasteizko triatlotaian lehiatzen, 22 herrialdeetatik etorritakoak. Urtero mundu osoko triatletak erakartzen dituen proba honek Landatik hasita Arabako hainbat herri zeharkatuko ditu, Gasteizera heldu arte.

Autobusak ibarretik

Lasterketa egunean Landara sartzeko errepide zatia itxita egongo da. Horregatik, lasterketa ikustera joan gura duten ikus-

leendako autobus zerbitzua jarriko dute antolatzaileek. Arrasatek (07:15), Aretxabaletatik (07:25) eta Eskoriatzatik (07:35) irtengo da autobusa.

Boluntario bila dabiltza

Triatlotaian arrakasta bermatzeko, laguntza behar dute antolatzaileek. Izan ere, detaile guztiak ondo zaintzeko, 600 boluntariotik gora behar dituzte. Deialdia zabaldu dute eta debagoiendarrak aurreten ere ekimenera batzea espero dute. Hala, boluntarioek proba



Aritz Kortabarria, 2012an. | A.LUGARTE

barru-barrutik bizi ahal izango dute, eta oparia jasota itzuliko dira etxera. Autobus zerbitzua erabiltzeko edo boluntario moduan lan egiteko, sartu www.triathlon-vitoria.com helbidean.



Iaz Frederic Uhrbom atleta suediarrek ezustekoa eman zuen. | GOIENA

Abixaran taldeak hartuko du Torreauzo krosa antolatzeko erreleboa, domekan

Lasterketak orain arteko ezaugarriei eutsiko die; sariz betetako proba herrikoia izango da

XABIER URZELAI | ARRASATE

Domekan (11:00) egingo dute Torreauzoko 19. krosa (izenemateak aurrez herrikrossa.com webgunean, edo lasterketa baino apur bat lehenago, irteera puntuan) eta aurtengo nobedade nagusia da lasterketako antolatzaile taldea aldatu egin dute. Orain arte Antxintxiketan atletismo taldeak hartu du proba antolatzeko ardura, eta orain, Abixaran taldeak hartu du erreleboa: "Esan ziguten eurek utzi egin behar ziotela lasterketa antolatzeari, bestela ere nahikoa lan dute-eta beste proba batzuk antolatzeko, eta hori ikusita gu animatu ginen, guri ere gustatzen zaigulako beste herri batzuetako lasterketara korrika egitera joatea", adierazi du Arantzazu Ezkibekek.

Hala, talde berriak lehenengo itzulerari eutsi gura izan dio: "Lasterketa herrikoia izango da, oso erritmo lasaian egiteko aukera egongo da, eta jendea animatu gura dugu, inork ez dezala beldurrik izan. Gainera, eskerrak eman gura dizkiegu lasterketa babestu duten denda eta komertzioei, eurei esker sari mordoa pilatu ditugulako. Esango nuke ia denendako izango direla sariak".

Lasterka egitetik, antolatzera
Duela urte batzuk Oñatiko emakumezko talde batek elkarrekin korrika egiteko sortu zuen Abixaran, eta orain beste pauso bat eman dute, herri mailako kirolaren alde halako lasterketa herrikoia bat antolatzera animatuta.

Frantziako Tourreko irteera puntuan izango da Markel Irizar, bosgarren urtez

X.U. | ARRASATE

Trek Segafredo taldearekin Tourreko bederatzikoan izango da Markel Irizar; hain zuzen, Oñatikoaren bosgarren Tourra izango da hau: "Bauke Mollema izango da sailkapen orokorreko gure erreferentea, jakinda Froome, Contador edo Quintana besteak baino koska bat gorago daudela. Gure taldekide Mollemari ezin diogu eskatu lasterketa irabaztea, baina bai aurrealdean ibiltzea, hamarren barruan egon daitekeela uste dut. Eta, horrekin batera, etapa

bat irabazteko helburuarekin goaz. Iaz ez genuen lortu, eta aurtengo ediziorako badugu amets hori".

Zortzi euskaldun

Jon Izagirre, Mikel Landa, Mikel Nieve, Gorka Izagirre, Markel Irizar, Haimar Zubeldia, Imanol Erviti eta Romain Sicard, zortzi ziklista horiek animatu ahal izango dituzte, bereziki, zale euskaldunek. Eta Pirinioetako etapak aproposak izango dira horretarako; aurreten asteburuan tokatzen da, gainera.

Gizartea aldatzeko helburua duen lasterketa, domekan

- Urkulun egingo dute Kooperatiben Arteko II. Lasterketa, etzi
- Gaur, egubakoitza, izena eman daiteke 'mundukide.org' webgunean

XABIER URZELAI | ARRASATE

Iazko lehenengo edizioak utzitako zapore gozoa errepikatu guran dator domekan Mundukide Fundazioak antolatutako II. Kooperatiben Arteko Lasterketa (11:00, Urkulu), helburu garbiekin, gainera. Munduan dauden horrenbeste injustiziaren eta ezberdintasunen kontra konpromisoa agertzeko ekimen moduan aur-

keztu dute Fundazioko lagunek lasterketa. Pertsona behartsuenen eskura aukera sozioekonomiko egokiak sortzen lagundu gura dute, batetik, eta talde lana gorai-patzea, kooperatibagintzako identitate gisa, bestetik.

Hori horrela, kooperatibetako langileei zuzendutako lasterketa da, eta hiru laguneko taldeak osatu behar dira lasterketan esku

hartzeko. Iazko lasterketan, gainera, parte-hartzaileek azpimarratu zuten polita izan zela lan lekutik kanpo lankideekin halako ekimen batean esku hartzea.

Azken eguna, gaur

Mundukideko ordezkari Urri Urizarrek gogorarazi duenez, gaur, egubakoitza, izango da izena emateko azken eguna: "Iaz ia

ESANAK

"Iaz giro oso onean ibili ginen, ia 30 talde izan ziren"

"Urkulu leku aproposa da egun-pasa etortzeko"

URRI URIZAR | MUNDUKIDE



Julen Irizar. | GOIENA

Julen Irizar, Segoviako Itzulian etapa irabazita

X.U. | BERGARA

Castelloko Itzulian erakutsitako sasoi onari eutsi egiten diola erakutsi zuen atzo, martitzena, Julen Irizar bergararrak. Ampo taldeko ziklista Segoviako Itzulia lehiatzen ibili da aste barruan, eta lehenengo egunean garaipenetik gertu egon bazen ere, bigarrenean iritsi zitzaion saria.

San Idefonso eta Torrecaballeros artean 122 kilometrotako etapa gogorra izan zen -Navacerrada eta Navafria igo zituzten-, eta hainbat ihesaldi saiakeren ondoren hiru lagun artean erabaki zen esprinta: Gonzalo Serranoren (Cartuchos-es Magro), Daniel Sanchezen (Extremadura) eta Julen Irizarren artean, eta azken kurbara azkar sartuta Irizarrek irabazi zuen esprinta.



Iazko lehen edizioan parte hartu zutenek helmugan ateratako talde argazkia. | GOIENA



MIKEL MUJIKA

Mujika, Diaz eta Ugarte podiumean

Asteburuan Euskal Herriko junior eta maila absolutuko txapelketak jokatu dituzte Gasteizen, eta ibarreko hainbat igerilari dominaz josita itzuli dira handik. Jon Mujika bergararrak -argazkian- 50, 100 eta 200 metroko bizkar estiloko lasterketak irabazi zituen. Eta, Aloña Mendiko Nerea Diazek eta Eric Ugartek ere lan aparta egin zuten, bien artean lau domina ekarri zituzten eta. Uztailean Espainiako Txapelketan izango dira.

Debagoieneko Kuadrillen Arteko V. Futbol Txapelketa egingo dute uztailearen 16an

X.U. | ARETXABAETA

UDAk antolatuta, uztailearen 16an egingo dute, Ibarren, Kuadrillen Arteko Futbol Txapelketa. Uztailearen 14a da izena emateko azken eguna, eta horretarako hainbat bide daude: Uda-retxabaleta-ko Twitter edo Facebook kontuen bidez, e-posta erabiliz (udaretxabaleta@gmail.com) edota Whatsapp bidez (635 206 333).

Talde bakoitzaren ardura-dunaren izena eta harremantarako telefono zenbaki bat jarri behar dira, eta 100 euro sartu La Caixako 2100-6838-42-0200011554 kontuan (16 urtetik gorakoendako). Musika, jatekoak eta edatekoak egingo dira.

Dorletako Amaren 39. Saria jokatu dute domekan Leintz Gatzagan

X.U. | LEINTZ GATZAGA

Euskaldun Torneoko ziklista onenak gerturatuko dira domekan Leintz Gatzagara, 119 kilometrotako lasterketan lehiatzera. Ziklistak 10:00etan hasiko dira lanean eta hiru alditan gainditu behar dituzte Gatzagako maldak. Hala, azkarrenak 13:00 aldera jasoko ditu besoak, plazan bertan.

Ibilbidea urterokoa izango da, hor ez dago aldaketarik. Gatzagan hasi eta Eskoriatza aldera hartuko dute ziklistek. Lehenengo jaitsiera errepide zaharretik egingo dute, baina gainontzekoetan Arlaban jaitsiko dute. Eta, Arrasateraino joan ostean Eroski pasa eta Epeleko biribilean

buelta erdi emanda hartuko dute osterara ere Gatzagarako bidea. Hiru joan-etorri egingo dituzte horrela, eta azken igoeran erabakiko da proba.

Iaz Fran Zurita izan zen onena

Azken urteotan parte-hartze oso polita izan du Gatzagako igoerak. Iaz, esaterako 152 ziklista batu ziren irteera puntuan, eta Infisport taldeko Fran Zurita izan zen onena, helmuga baino 200 metro lehenago erasoia jota -92 txirrindulari heldu ziren helmugara-.

Duela bi urte, berriz, Juan Ignacio Perezek nagusitasun handiz irabazi zuen, tarte polita atara zien kontrarioei.



Duela bi urte Juan Ignacio Perez izan zen onena. | GOIENA

Murgiondo, Gipuzkoako Itzulian bigarren

X.U. | OÑATI

Astelehenean amaitu zuten hiru etapa izan dituen Gipuzkoako Itzulia, eta Ulma taldeko Xabier Murgiondo bigarren sailkatu da.

Gazte mailan Gipuzkoan dagoen lasterketa entzutetsuena da amaitu berri dena, eta hiru egunetan erakutsitako erregularitasuna erabakigarria izan da Oñatiko podiumera igotzeko. Lehenengo eguneko 8 kilometrotako erlojupekoan zortzigarren sailkatu zen Ulma-ko mutilla. Zapatuko etapan, berriz, txantxikua zazpigarren izan zen, eta hirugarren egunerako indarrak gordeta Murgiondo laugarren sailkatu zen. Hala, hiru egun horietan podiumera igo ez bazen ere, erregularitasunak saria izan du.

Lantegi bateko bizipenak kontatzen dituen ikuskizuna

Estreinatuta berria den 'Lurak' lana Zaldibar frontoian etzi, domeka, 20:00etan

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Askotariko diziplinak -zirkua, antzerkia eta zuzeneko musikatzen ditu *Lurak*-ek. "Zirku garaikidearen ezaugarria da zirku-teknikak erakustez gainera istorio bat kontatzea. Guk ere horrela egin dugu, eta 70eko hamarkadako Euskal Herrian girotu dugu, industrializazio garaiko lantegi batean. Mundu ikuskera ezberdina dugun lantegi bereko langileak gara taularen gainean gauden bederatzita lagunak", azaldu du Gaizka Chamizo aktoreak.

Iaz otsailean sortu zuten -espresuki ikuskizun honetarako- Lurak taldea. Eskarmentu handia duten artistek osatzen dute: Ortzak Acostak -Circo del Sol konpainian urteetan jardun duenak; Izaskun

Agirresarobek -aireko akrobazietan espezialista denak; pailazo eta antzerki formazioa duen Gaizka Chamizok; Kataluniatik ekarri duten Marc Muñoz eta Nuria Puig bikote akrobatikoak; Mikel Hernandez eta Anai Ganbra txalapartariak; askotariko musika tresnak jotzen dituen Roberto Castrok; eta Gotzon Batikon trikitilariak.

Guztientzako

Ikuskizunaren berezitasuna da ez daudela aktoreak alde batetik eta musikariak bestetik. Kide bakoitza ongi definitutako pertsonaia baten azalean dago sartuta eta hainbat gauza egiten ditu. "Oso ondo ulertzen da bakoitzaren rola. Diziplina ezberdinak elkarrekin eta modu naturalean ondo fusionatzea izan da gehien

kostatu zaiguna. Ohiko antzerkigintzatik badu, nahiz eta hitz gabeko elkarriketak diren gehienak. Era berean, zirku-jolasak ere badaude, baina jolas horiek ere istorioa kontatzeko tresnak dira. Zuzeneko musikak ere garrantzi handia du kontakizuneari; ez da soinu-banda hutsa", dio Chamizok.

Edozeinek ulertu eta ondo pasatzeko modukoa dela dio aktoreak. "Oso bisuala da; haurrentzako eta helduentzako aproposa. Horrela adierazi ziguten Gasteizen ekainaren 10ean egin genuen estreinaldian, eta astean Bilbon egin dugun emanaldiko ikusleek ere bai. Kanean egiteko lana da baina udazkenean, hainbat mol-daketa egin ondoren, aretoetara eramateko asmoa dugu".



Ramon Arantzabal margolaria Errekalde parkean. | MAITE TXINTXURRETA

Ramon Arantzabal margolariak 'Lau parke, lau kolore' instalazioa jarri du

Errekalde, Santa Ana, Usondo eta Arrizuriaga parkeetan koloretako tutuen muntaiak jarri ditu

A. A. / M. T. | BERGARA

Gau magikoak performancea egin zuen Arantzabalek Muni-ben orain dela sei urte, eta haren ondorioa dela dio orain herriko lau parkeetan gauzatu duena. "Egin nuen lehenengo ekimenean aurora boreala agertzen zen, eta bide horretatik joan dira urtero plaza berean egin ditudan instalazioak ere. Muni-be herritar askorentzako topaleku bihurtu da. Parkeetan jarri ditudan tutu koloretsuak azken urteotan egin ditudan ikuskizunetan erabili izan ditudanak dira. Nolabait esanda, parkeetako muntaiekin, Muni-be plazarako bidea hartu duen kultura arloko jendearen haize bolada da irudikatu gura izan dudana", dio margolariak.

Kultura sortzaileei keinua

Usondo parkean, Santa Anan, Arrizuriagan eta Errekalden zortzi tutuz osatutako modulu bana jarri du Arantzabalek. Denera, laurogeita hamar tutu inguru erabili ditu *Lau parke,*

lau kolore instalazioan. Errekaldekoa da bereziarena; izan ere, sarreratik gertu jarri duen moduluaz gainera, parkearen goiko aldean ere beste muntaia bat egin du. "Parkeetara gerturatzeko zozela tutu batzuk ikusten dira eta behin parkean sartuta, gero eta tutu gehiago agertzen dira begien aurrean".

Parkeak kolorez janzteaz gainera, tutu horiek kultura arloko jendearen errepresentazioa izatea gura izan du. "Lau kolore erabili ditut. Koloreak adierazten du ze artista edo kultura jarduerara ordezkatzeko duen: margolariak, musikariak, idazleak...".

Hilabetez ikusgai

Arantzabalen hasiera bateko asmoa instalazioa hilabetez ikusgai egotea da. Hala ere, herritarrek muntaia errespetatzen badute eta eguraldi txarraren ondorioz tutuak kaltetzen ez badira, abuztu osoan ere mantentzeko asmoa azaldu du artistak.



Gasteizen ekainaren 10ean egin zuten estreinaldiko ko estreinaldiaren une bat. | LURAK

'2057 Odisea bat kanposantuan' film laburraren bigarren zatia, bidean

Uztaileko asteburuetan errodatuko dute, eta figuranteak behar dituzte

A. A. | OÑATI

2003an egin zuten film laburraren kapitulu berri bat grabatzen hasteko ia guztia prest dute. Oñatiko gazte talde batek bultzatutako proiektu kolektiboa da eta askotariko herritarren parte hartzearekin gauzatu dute.

Urbiako fondan egin zuten ogitarteko lehiaketa baten gaineko kontakizuna jaso zuen lehenengo zatia. Oraingoan, berriz, lehiaketako parte hartzaile batek eta haren entrenatzaileak elkar



Imanol Aranburu eta Andoni Inza dira protagonistak. | 2057 ODISEA KANPOSANTUAN

nola ezagutu zuten da istorioaren abiapuntu eta argumentu nagusi. "Ahalik eta lanik txukunena egiten saiatuko gara, nola ez, baina profil eta adin ezberdinetako herritarrak batu eta elkarrekin lanean ondo pasatzea dugu, bereziki, helburu. Aurreko esperientzia oso ona izan zen; oso oroitzen onak ditugu, eta horrek bultzatu gaitu bigarren honetan murgiltzera", azaldu dute *2057 Odisea bat kanposantuan* film laburreko lantaldeko kideek.

80 aktore eta 100 figurante

Talde teknikoa eta artistikoa osatuta dute; hamar lantaldeetan daude banatuta. Talde bakoitza dagokion alorrean egin beharreko lanei azken ukituak ematen ari da dagoeneko; eta hala behar du izan, uztailearen 6an dute-eta grabatzen hasteko data jarrita.

Hala ere, filmeko hainbat sekuentzian parte hartu gura dutenentzako tokia dutela diote. "Arraza, adin eta profil ezberdinetako herritarrak behar ditugu uztailearen 8ko arratsalderako. Hurrengo goizerako, berriz, herri-bilera bat irudikatzeko kideak behar ditugu. Uztailearen 30ean, lehiaketako publikoa antzezteko lagunak behar ditugu. Horrez gainera, 6 eta 7 urte bitartean dituzten haurrak ere behar ditugu uztailearen 16an eta 24an grabatuko ditugun beste sekuentzia batzuetarako. Parte hartu gura duenak, bada, idatz dezala lehenbailehen figurazioa@gmail.com helbidera. Izena emateko ez da ezinbestekoa aurrez horrelako lanak egindakoa izatea. Eskatzen dugun bakarra da gogoia, pazientzia eta baieztokoari eusteko konpromisoa".



Iaz, Errozioko erromerian sevillanak dantzaten. | GOIENA

Errozioko erromeria ospatuko dute domekan Arrasateko Arruena parkean

- ▶ 26 urte daramatzate Al-Andalus elkartekok erromeria antolatzen
- ▶ Hemezortzi etxe andaluziarretako ordezkariak etorriko dira

IRATI ELORTONDO | ARRASATE

Arrasateko Al-Andalus elkartetik irtengo da Errozioko Ama Birjina eta erromesek lagunduta Santa Teresa elizara abiatuko da. Aurten ere, hainbat ekintza prestatu dituzte.

Egitarau zabala

Erromeria goizeko bederatzietan hasiko da Al-Andalus elkartean; bertan, harrera egingo zaie bertaraten diren Andaluziako etxeei. Ondoren, armosua egongo da guztientzat, zukua, kafea eta era askotako gozoak eskainita. Jarraian, hamarretan, koruen tartea izango da, Agur Erregina Erroziokoa (salbea), Al-Andalus

Errozio erako koruak eta Norte y Sur Matienako koruek babestuta, honako hau ere elkartean. Koruak amaitzean, Errozioko Ama Birjinarekin batera irtengo dira 10:15ean eta Santa Teresa elizara joango dira erromesaldian. Bertan, ama birjinari abestuko diote koruek. Jarraian, lore eskaintzari ekingo diote bazkideek eta etxeko kideek. Goizeko hamaitketan, meza nagusia hasiko da Santa Teresa elizan, koruek lagunduta. Ordubete pasa eta amaitutakoan, Las Casas taldeak abestuko du, eta eliza atarian zaldiak egongo dira Arruena parkera joateko. Eguerditik arratsaldera arte egongo dira bertan eta sevi-

llana dantzak egongo dira, baita Andaluziako produktuen dastaketa ere. 19:00etan, egunari amaiera emateko, Agur Erregina Erro-

ziokoa abestuko dute berriz, eta ama birjina agurtuko dute zelai erdian.

26 urte erromeria ospatzen

Lehenengo urtea biziki gogoratzen du Pepe Gomez Al-Andalus elkarteko presidente ohiak: "Jende ugari batu zen, ez zen gaur egun modukoa izan, baina azken urteetan Euskal Herriko Errozio erromeriarik onena lortzea lortu dugu." Euskal Herriko txoko guztietatik etortzen dira erromesak; "Iaz 2.000 erromes gerturatu ziren, espero dugu aurten ere jende mordo bat hurbiltzea". Pepe Gomez herritarrak Arruena parkera hurbiltzera animatzen ditu.

DATUA
18
ETXE ANDALUZUAR
Hemezortzi etxe andaluziarretako ordezkariak hurbilduko dira aurten Arrasateko 26. Errozio erromeriarira.

Velez de Mendizabal, zeledoien lehendakari

I.E. | ARRASATE

Lehendakari Javier Camenok osasun arazo larri baten ondorioz kargua utzi behar izan du eta, hain zuzen ere, Urrezko Zeledoien zuzendaritza taldekoek Jose Mari Velez de Mendizabal arrasatearra aukeratu zuten lehendakari.

Lehendakari martxora arte

Jose Mari Velez de Mendizabal bazegoen jada zuzendaritza taldean lehendik, baina berarentzat espero gabeko sorpresa izan da bera hautatu izatea. "Javier Cameno beti alboan izan ohi dut zuzendaritza taldean egon naizenean, eta gertatutakoa ikusita ni lehendakari hautatzean erabat harritu nintzen." Martxora arte egongo da kargu horretan, datorren urtean hautatuko baitute berriz ere lehendakaria: "Martxora begira espero dut nire lana ondo kudeatzea; nire ustetan, ez naiz hautagai egokiena, eta, oraingoan, geratzen diren hila-beteetan egindako plangintzetan zentratuko naiz". Horrez gainera, lehendakaritza taldean kudeatu nahi duela dio Velez de Mendizabalek.



Velez de Mendizabal. | J.V.

Haurrentzako 'Titiritorto Basatia' antzerkia aurkeztuko urte gaur Aretxabaletan

19:00etatik aurrera eskainiko dute antzerkia komentuko lorategian



Maitena Illaramendi Unanue, Titiritorto Basatia antzeztzen. | GATZ TALDEA

I.E. | ARETXABALETA

Gatz Basatia taldearen eskutik, autokarabana batean aurkeztutako txotxongiloak gerturatuko dira Aretxabaletara. Gatz Titiritortoaren eta bere familiaren istorioaren antzezpina izango da gaurkoa.

Antzerkia autokarabanan

Agertokiak autokarabana itxura izango du, *Matxeneta* izenekoa, eta bertan, kantuan aritzeko aukera izango dute txikienek. Maitena Illaramendi Unanuek sortutako txotxongiloak aurkeztuko

ditu txikienean aurrean gaur arratsaldean, moja agustindarren komentuko lorategian, arratsaldeko zazpietatik aurrera. Maitena Illaramendi Unanue irakaslea da eta 2014ko udazkenean bururatu zitzaion antzerki honen ideia. Basoan ondoak batzen ari zela izan zuen lehen aldiz txotxongiloekin antzerkia sortzeko ideia eta pertsonaia ugari sortu zituen naturan dauden elementuetan inspiratuz. Izaki bereziak dira *Titiritorto Basatiak*, Maitena Illaramendi Unanuek hitzetan, Nafarroako oihanetan barrena aurki ditzakegunak.

Liburua salgai

Antzezlanaren amaieran Gatz Titiritorto Basatiaren liburua erosteko aukera egongo da. Txikienek txotxongilo berezi hauen abenturak berriz ere bizi ditzaten.

'Europa bat-batean' jardunaldiak

I.E. | ARRASATE

Uztailaren 11tik 16ra egingo dituzte Donostian kantu inprobisatuen gaineko topaketak. Askotariko tokietan egingo dituzten emanaldiez gainera, goizetan Miramar Jauregian jardunaldi akademikoak antolatuko dituzte adituak diren ikertzaileekin. Horrez gain, transmisiorako gakoak, genero ikuspegiaren inguruko hausnarketak eta hizkuntza gutxituen inguruko saiok egingo dituzte. Parte hartzeko azken eguna uztailaren 6an izango da *uik.eus* webgunean.

ZORION AGURRAK

**BERGARA
Jone Arrieta
Gorosabel**

Uztailaren 7an, 12 urte.
Zorionak, lazтана! Ondo pasatu zure urtebetetzean, uda guztia daukazu-ta zure esku. Besarkada handi eta muxu bat danon partetik. Markelek, mila.

**BERGARA
Ibai Sanchez Mujika**

Uztailaren 6an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Muxu handi bat Oierren, amatxoren eta aitatxoren partetik.

**BERGARA
Ibai Segurola Garate**

Uztailaren 5ean, 3 urte. Zorionak, Ibai! Ondo-ondo pasatu eguna, maittia. Muxu handi bat Bergarako eta Antzuolako aitona amonen partetik. Eta beste muxu bat zure lehengusu Markelen partetik.

**BERGARA
Ibai Arabaolaza**

Uztailaren 5ean, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik. Oso harro gaude zutaz. Ondo pasatu oporrak.

**BERGARA
Mikel Unamuno
Andueza**

Uztailaren 4an, 9 urte. Zorionak, mutil handi! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo pila bat, etxeko guztien partetik.

**ARETXABALETA
Magali Arriola Uralde**

Uztailaren 3an, 2 urte. Zorionak, maittia! Eguneroko poza eta irria zara! Txokolatzeko muxu pottotto bat zuretzako, etxeko guztien partetik.



**OÑATI
Nahia Guridi Urtaza**
Uztailaren 3an, 3 urte. Zorionak, maittia, etxeko partetik! Ondo pasatu eguna eta urte askotarako, sorgintxo!

**OÑATI
Ane Buquete Diaz de
Gereñu**

Uztailaren 1ean, 5 urte. Zorionak, maitte! 5 urtetar bete dituzu; nola pasatzen den denbora... Primeran ospatu eguna eta muxu pila-pila bat, etxeko guztien partetik. Muak!



**BERGARA
Iraia Igarza Gimber**
Uztailaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak, Iraia, etxeko guztien partetik!



**BERGARA
Markel Larrañaga
Fernandez**
Ekainaren 30ean, 6 urte betetzen ditu Markelek. Zorionak, mutil handi! Eta muxu handi bat etxeko danen partetik!



**ARRASATE
Suhar Mena Morras**
Ekainaren 29an, 2 urtetxo! Zorionak, Suhartxo, gure pirata maitea!



**OÑATI
Haizea Zubia Aranzabal**
Ekainaren 29an, 6 urte. Zorionak, Haizea, gure etxeko printzesa! Ze neska handi in zan! Ondo ospatu urtebetetze eguna eta patxo pila bat, familia osoaren eta, bereziki, Ametsen partetik! Askok maitte zaitugu!



**ARRASATE
Ainara Manjon
Vicente**
Ekainaren 29an, 10 urte. Zorionak ahizpa Paularen eta gurasoen partetik. Egun ederra izan dezazula. Muxu asko!



**OÑATI
Laiatz Altube Arkonada**
Ekainaren 27an, 3 urte. Urte askotarako, maittia! Zein handia giten ari zaren... jada 3 urte! Jarraitu zaren bezalako maitakorra eta *xalada* izaten. Muxu goxo-goxoak aitatxoren, amatxoren eta, batez ere, Lexuriren partetik. Mua!



**ARETXABALETA
Nora Cantera Herrasti**
Ekainaren 27an, 8 urte. Oso ondo pasatu zura eguna. Zorionak eta patxo handi bat, familia osoaren partetik.



**OÑATI
Amets Yarza Lizarazu**
Ekainaren 27an, 7 urte. Zorionak, Amets!



**ESKORIATZA
Uxue Kerejeta Quintas**
Ekainaren 26an, 9 urte. Beti alai eta barrez, jarraitu horrela. Etxeko partetik, zorionak eta muxu handi asko!



**OÑATI
Aratz Idigoras**
Ekainaren 25ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetzian eta besarkada potolo bat, etxeko danon partetik.



**ARRASATE
Gorka Maria Seco**
Ekainaren 24an, 23 urte. Zorionak, Gorka! Sanjuanekin batera heldu da zure urtebetetze eguna! Sanjuan sua bezain bizi eta alai jarraitu dezazula beti! Zorionak etxeko denen eta, bereziki, Anerren, Unaxen eta heldu berri den Laheren partetik. Askok maite zaitugu.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.


Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ESKER ONA

**Carmen Oyarbide Acha**

2016ko ekainaren 22an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, bere alabaren izenean.

Bergaran, 2016ko uztailaren 1ean.

ESKER ONA

**Marcelino Larrañaga Basauri**

2016ko ekainaren 25ean hil zen, Benidormen, 70 urte zituela.

Familiak bere esker ona eman nahi dizue zuen doluminak eta babesa ematera joan zareten guztioi.

Maitia, itsaso eta mendiak zenituen maite eta itsasoaan barrena aurkitu duzu pakia. Aita, zure nahia beteko dugu zure gune kuttunetan izan dezazun atseden. Betira arte, euskaltzale eta abertzale zintzoa.

Bergaran, 2016ko uztailaren 1ean.

OROIGARRIA

**Marian Herrero Alvarez**

2016ko ekainaren 1ean hil zen, Kanarrietan, 61 urte zituela.

Agur ekitaldia astelehenean, uztailaren 4an, izango da, 19:00etan, Arrasateko Aldai parkean.

Errauts dateke, baina zentzu beteko. Agian hautsa, baina hauts maitemindua.

Aldez aurretik eskerrak bertaritzen zareten guztioi. Arrasaten, 2016ko uztailaren 1ean.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**ARRASATE** Goiena: Otolara Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.**BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.**OROILORE**Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak**Heriotza-asegurua baduzu:
Ez onartu besterik gabe
zure aseguru-konpainiak
esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:**NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55
BERGARA**EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK****Esti eta Iban**

Esti eta Iban arrasatearrak uztailaren 2an ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Familia eta lagun artean ospatuko dute eguna. "Parranda eta dantzarik ez da faltako, seguru egon! Besarkada eta muxu handi bana, kuadrillaren partetik".

**Elvira eta Manolo**


Elvirak eta Manolok ekainaren 29an egin zituzten 25 urte ezkondu. "Zorionak, familia-koen eta lagunaren partetik! Ondo ospatu eta jarraitu zoriontsu izaten!".

**Iban eta Desiree**

Iban eta Desiree zapatuan ezkonduko dira, 13:00etan, Bergarako udaletxean. Ostean, Itziar Salagi jatetxean bazkalduko dute. "Zorionak, bikote! Azkenean, iritsi da zuen eguna. Familiakoek eta lagunek eguna primeran igaro dezazuela opa dizuegu".

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntua. Hartu parte eta... on egin!

Larrinetxe jatekxan
prestatutako
ahuntz-gazta
entsalada



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2016-07-01

BUKATZEKO

Batura Mobile, diasporari begira lanean

- ▶ Hamar urte bete dituen Bilboko enpresaren kudeatzailea Gotzon Arzelus bergararra da
- ▶ Ganaduaren kokalekua zehaztuko duen telefonorako aplikazioa dabil garatzen Argentinarako

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Bilbon egoitza duen Batura Mobile SL enpresak hamar urte bete ditu. Aplikazioak garatzen ditu telefono mugikorretarako, Android zein iOS. Sekula baino osasuntsuago dago. Hainbat proiektu dituzte esku artean, proiektu interesgarriak, eta horietako bik diaspora dute jomuga. Hain zuzen, Bergarako Gotzon Arzelusek kudeatzen du bederatzi langile dituen enpresa hori, eta Goiena Komunikazioak parte-hartze txiki bat dauka han.

Euskal abizenen jatorria

Zenbat euskaldun joan ote zen Hego Ameriketara joan den mendean? Eta aurrekoan? Auskalo! Egun, oraindik, asko eta asko dira euskal abizenak dituztenak; Kolonbiako Antiokia eskualdean, esaterako, %40k dute. Horiek gogoan, *Leiho* proiektua dabil garatzen Batura Mobile. "Onomastikarendako leiho berri bat izan dadin gura dugu eta euskal abizenen jatorriaren berri ematea da asmoa", dio Arzelusek. Onartu du ez dela samurra edukiz betetzea aplikazio hori: "Zeintzuk dira euskal abizenak? Askok dauke frantziar jatorrikoak, baina gure artean dagoeneko 200 edo



Gotzon Arzelus bergararra, enpresaren webgunea atzean duela. | MIRARI ALTUBE

300 urte daramatzatenak; hortaz, horiek badira edo ez? Eztabaidak eztabaida, gu eduki kontuetan ez gara sartuko; plataforma sortuko dugu beste batzuek edukiz bete dezaten". Hain zuzen, diasporakoekin pentsatuta dabilta lanean. Hala, abizenaren egituraren esanahia azalduko dute, eta horren gainean dagoen informazioa eman: "Kolonbiako presidente ohia Alvaro Uribe da. Horren abizenaren

jatorria Urkulu inguruan dago, Aretxabaletako Larrino auzoko baserri batean, hain zuzen", dio, eta gaineratu du: "Harekin egoteko aukera izan genuen orain dela urte batzuk, presidente zela. Abizenaren gaineko idatzi bat eman genion kutxa baten sartuta eta hunkituta jaso zuen". Jaki-nik euskal abizen mordoia daukela munduan zabaldua, horiek balioan jarri gura dituzte.

Ganaduaren atzetik

Esku artean duten beste proiektuetako bat ere Hego Amerikara begira dabilta garatzen: "Argentinan, Txilen eta beste hainbat herrialdetan lursail zabalak dituzte ganaduarendako. Eta egun osoa pasa dezakete horien bila. Bilaketa hori errazteko gabilta lanean", dio. *Papstor* du izena aplikazio horrek, eta ganaduak izango duen txip baten bitartez (kutxa batean zintzilik), non dagoen jakinaraziko du. Mendaroko Enkoa enpresarekin eta Argentinako Rosenbusch-ekin elkarlanean garatuko dute: "Argentinarako da, baina, gero, beste herrialde batzuetara zabaltzeko asmoarekin".

Lehenengo fasean, ganaduaren bilaketa arazoari emango diote irtenbidea, eta bigarrean osasuna dute helburua: "Parametro biometriko batzuk sartuko dizkiogu txipari eta temperatura neurtuko dio ganaduari. Hala, haren osasunaren berri jasoko du ugazabak". Garatzen dabilta antzeko aplikazioak egon badaudela dio, baina eurek eman gura dioten erabilerarekin ez. Gainera, edozein animaliarekin erabili ahal izango litzateke hori. Lehenengo prototipoa udazkenarako izango dute gertu.

AZKEN BERBA

ANDER
ETXEBERRIA



Eguzkia

U dan sartu berri gara eta hasi dira, tarteka, egun eguzkitsuak. Horrenbestez, hasi da ere eguzkiari intsumiso direnentzat sasoirik zailena. Arrazoiak badaude azala bakean uzteko: zuhaizpean edo itzalkinaren azpian hobeto egoten delako, arriskurik gabe beltzarantzeko klima eskasa dugulako (hiru egun urdin, bi lainotuta), osasuna...

Ez da samurra gizarteko arauen kontra joatea. Mende bat dela egokiena azal zuria erakustea bazen, orain jokoz kanpo dago udan abenduko kolore bera duena. Ez hori bakarrik, gure garunean gertatu den aldaketa baten ondorioz edo, iruditzen zaigu lagun hori gaixorik dagoela. Beraz, ez deskuidatu Andramaxetan Santamasetako kolore berekin agertzen, gaixotzat hartuko zaituzte eta.

Zer diot, baina? Alderantziz, aurpegia eman! Estualdian sendo egon beharra dagoenez, egoera hau mehatxua baino gehiago aukera da, aukera trebetasun ezberdinak lantzeko: "Hozkailuan egon zara?" bezalako komentarioentzat prestatu erantzuna, gerri inguruan ez daukazu eguzki markarik? Erakutsi petrinak eragindakoa, eta abar. Hasi da, beraz, eguzkiari intsumiso direnentzat sasoirik ederrena. Eutsi!

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK



Zure enpresa martxan jartzen laguntzen dizugu

Enpresa izaera aukeratu

Diru laguntzak

Aholkularitza

Fiskalitate egokiena aztertu

Zergak

Laguntzak

30 urteko eskarmentua kontabilitate, fiskal, lan eta juridikoa, enpresa, autonomoen, partikularren eta enpresa berri bat sortu nahi dutenen zerbitzura



Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.eus